

Oscar Alvarez Gila
Alberto Irigoyen Artetxe

Isla Malako haritza

Ignazio Argiñarena Otsotorena
bertsolariaren bizitza eta lanak
(1909-1997)

Edizioa: Gorane Intxaurraga

LABAYRU IKASTEGIA
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
BILBAO
2007

© *Argitaraldi honena*: LABAYRU IKASTEGIA - AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

© Oscar Alvarez Gila (Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz)
Alberto Irigoyen Artetxe (Eusko Ikaskuntza. Montevideo)

Diseinua: IKEDER, S. L.
Fotokonposaketa: IKUR, S. A.
Silutegia: BASTER S.L.L.

ISBN: 978-84-89816-67-1
Lege gordailua: BI-1948-07

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

Aurkibidea

Sarrera	9
Gure edizioa	13
1. Sailkapena	13
2. Irizpide linguistikoak	23
Ignazio Argiñarena (1909-1997)	
1. Bizitza (<i>Oscar Alvarez Gila</i>)	27
Errazkinen	27
Etxetik kanpo bizimodua irabazten	30
Maitasuna gerra garaian	33
Gerra osteko estutasunak	38
Ate ireki bat: Uruguai	42
Migel: Ignazioren anaia, guardia zibil bertsozalea	50
Isla Mala: <i>tanbero</i> baten aurrerabideak	53
Familiaren gorabeherak	60
Azken urteak	63
2. Bertsoak (<i>Oscar Alvarez Gila eta Alberto Irigoyen Artetxe</i>)	65
Ignazio Argiñarenak jarriak	65
50eko hamarkada	65
Bertso berriak jartzera nua	65
Fameliari eta lagunari; Martin Orejari	69
Arrebari	71
Pensamentua artu det orain	73
Neure lagunak Amerikatik	76
Auzolanari	78

Famelian etxean	79
70eko hamarkada	80
Zure bersuaren bueltak	80
Kontrapunto entre los dos hermanos	81
Berso bi berrik jarri naian	83
80ko hamarkada	84
Neure anaia berso berri bat	84
Jaio giñan guztiok	85
Errazkinen jaio (Segunda parte la vida en bersos) ...	87
Kasimiro ta bere anaia	90
Neure illua beaizut	91
Amerikatik Españiraiño	93
Berso batzuek jartzeko	95
Estimatzen dizut nik	97
Argiñarenak ez gera izango	99
Neskaix ederra ikusten zaitut	101
Marzoaren oetabeatzi	104
Berriz ere bertso bi	107
Nere anaia bertso berri bat	109
Neure lagunak adi zazute	111
Bertso bat jarri nai det	113
Edurne etzera zu	115
Berso batzuek jartzeko daukat	117
90eko hamarkada	119
Neure bizia nolakua dan	119
Bertso batzuek jarri nai ditut	121
Zure bersuak aurretik	123
Bertso batzuk jartzeko	126
Bertso batzuek jartzeko daukat [2]	128
Bertso bi orain jarzia	130
Ahijadita mía te quiero cantar una canción	132
Datarik gabeak	133
Anaia jarri biaizut	133
Bein Migelekin an zotz aundian	134
Berso batzuek jarri bi aitut	135
Berso batzuek jarri biarkizut	137
Berso batzuek jartzeko daukat	138
Bertso batzuk jartzeko	140
Beste batzuek jartzeko	142

Edurneri nik orain	143
Errazkinen jaio eta	145
Errazkingo neskatxak	147
Festa eguna Ardanori	149
Españatikan zuk bialdu zendun	151
Gazte gaztetan asia nintzan (Confesión de mi vida en coplas)	152
Gu ere emen gaude	154
Gurasoak Espaiñian	155
Inazi ta famelia	157
Jesukristoren gurutze Jaunak	158
Kasimiro zu Españitikan	159
Neure anaiari ordu onetan	160
Neure illua beraizut	161
Neure illua bertso berri bat	163
Neure illua kanta biaizut	165
Oraintxen ere Agustinari	166
Zer esaten dirazu	167
Zure eskubitza atzo artu det	168
Zure eskubitza nerekin	170
Zure kartian esan dirazu	171
Ignazio Argiñarenak bilduak	172
Migel Argiñarena (1913-)	172
Gaur nik urteak bete	172
Zuen bersuak entzun ditugu	174
Goiztikan jeiki eta	176
Urtea etorri bera bukatuz	177
Amerikatik Espaiñiraño	180
Itzak izbide ekarri eta	183
Lenengo nere agurra	185
Jose Fermin Argiñarena (1953-)	187
Ameriketako osabaren	187
Au eta geiago ere zuek	188
Berso batzuek jartzera	189
Kanturako biotza	190
Jose Migel Argiñarena (1948-)	191
Danok ditugu jun etorriak	191
Martin Oreja (1913-1978)	193
Berso batzuek jartzeko artzen det	193

Bibliografia (<i>Oscar Alvarez Gila</i>)	197
Material osagarriak (<i>Oscar Alvarez Gila eta Alberto Irigoyen Artetxe</i>)	199
1. Ignazio Argiñarenaren autobiografia idatzia. 1986ko urtarrila- ren 21a	199
2. Ignazio Argiñarenaren autobiografia idatzia. 1996ko apirilaren 30a	207
3. 1994ean <i>La Revista de los Vascos</i> aldizkariko elkarrizketa	212

Normalean, honelako sarrerak lanak bukatu eta gero egin ohi dira. Askotan horrela izaten da; eta horrela egin izan dugu behin baino gehiagotan, oraingoan ez, ostera. Zuek, irakurleok, eta gu egileok, aldi berean ari gaitaizkio lan honi hurbiltzen. Ez zuek, ez guk, ez dakigu oraindik zein izango den gure lan honen ildoak. Zuek, lana irakurtzeke duzuelako; eta guk, aldiz, idazteke.

Hasieratik hasiera erabaki dugu, beraz, lan honen nondik norakoak azaltzen. Egileak bi gara, bi kontinente desberdinetan bizi garenak, eta bi espezializazio gune desberdinetan dihardugunak. Alde batetik, Euskal Herriko historialari euskalduna; eta bestetik, Uruguaiako euskal jatorriko eleberrigile erdalduna. Kontatu nahi genuen –eta dugun– bizimodua hainbat eratan egin daiteke; hala ere, ez dugu uste biografia historiko baten zientifikotasuna nahikoa denik islatu nahi genuen konplexutasuna adierazteko. Ignazio Argiñarena Otsotorenaren bizitza, nola edo hala, Euskal Herriko XX. mendeko historiaren laburbiltze luzea da; eta gure herrian gertatu eta eragin izan duten gertakizunek, Ignazio Argiñarenaren bizimodua ere baldintzatu, zuzendu edo markatu egin dute: aldaketa ekonomikoak, gerla zibilak, euskararen eta euskal kulturaren lanketa eta errepresioa, nafartasuna eta euskaltasunaren arteko eztabaida faltsua... Eta, azkenean, Ameriketarako emigrazioa, ia mende eta erdi inguruan euskal gizartean erroturik iraun duen fenomeno, garrantzitsua bezain ezezaguna gure gaurko ikuspegitik. Han, Atlantikoaz bestaldean, *Euskal Herri berriak* loratu eta garatu ziren: euskal etorkinek eta beren ondorengo amerikarrek sortu eta mantendu dituzten euskal erakundeak, aldizkariak, jaiak... Oro har, euskaltasunaren jarraipenaren adierazpide berri dira, eta euskal giro honetan murgildu zen gure pertsonaia; gaztetan bertsolaritzaren hasi-masiak ikasi zituen familiako tradizioak bultzatuta, eta gero, urte askotan igeltsero, kapataz, soldadu, begirale eta

–Ameriketaratu zenez gero– esnezale izan zenari gaztetako zaletasuna etorri zitzaion berriro bizitzaren azkenaldian, eta herri arrotz batean, euskara gero eta jende gutxiagorekin hitz egiteko aukera zuenean, lehengo bertsolaria berriro jaio zen. Eta bertsoekin batera, euskaltasuna sentitzeko beste bide bat ere ireki zitzaion.

Guk azken urteotan ezagutu genuen. Hobeto esanda, gutako batek baino ez zuen aurrez aurre ezagutu: 1994an Danilo Maytia ikerlari euskal-uruguaitarrarekin batera, Alberto Irigoyenek hainbat elkarrizketa egin zion Ignazio Argiñarenari, eta, horren ondorioz, harreman estua izan zuen familiarekin. Ignazio 1997an zendu zenean ere, harremana ez zen eten; irmo mantendu zen. Horri esker, bere idazkietara hurbiltzeko aukera izan dugu.

Ignaziok idazki horien artean, hainbat gutun, argazki eta dokumentu ofizialen artean, bere altxorrik kutunena gordetzen zuen: hizkuntza ulergaitzez idatziriko poesiak. Poesiak zirela jakiteko ez zen askorik behar, ikusiaz batera konturatzen zen bat koaderno horietan zegoena ez zela prosa arrunta. Hizkuntza ulergaitz hori zer zen ere erraz igarri zion Alberto Irigoyenek, nahiz eta –abizenei erreparatuta bestetara badirudi ere– euskaraz jakin ez. Alberto Irigoyen Uruguain jaiotakoa izan arren, sustraiak Euskal Herrian (Hegoaldean eta Iparraldean) ditu, eta aspalditik dabil euskal gaien ikerketan murgilduta. Euskara ulergaitza bai, baina arraroa ez zaio egiten. Edonola ere, koadernoak han geratu ziren, nahi izanez gero, ikusteko moduan.

Bigarren hurbilketa 2002ko udaberrian (Hego hemisferioko udaberrian, zehaztu beharra dugu) egin zen. Aspalditik genituen harreman profesionalak Albertok eta biok, Ameriketako euskaldunak direla eta. Gai erakargarri horrek batu egin gaitu, alegia: hemendik begiratuz gero, euskal mundu exotiko berri bati irekitako leihoa da; eta emigratutako hango euskal herritarren ondorengoentzat, beren sustraiak aurkitu nahian dabilzantentzat, hausnarketarako bidea. Eta horretan, angula plater goxo baten aurrean berbetan geundela –oraindik Uruguain aberatsak ez diren bi euskal herritar arrunt bil daitezke halako plater baten inguruan–, solasaldiak Ignazio Argiñarenaren paperen ingurura eramán gintuen. Harrezkerokoa azkar laburbiltzen da: Santiago Onaindia bekaren deialdira aurkeztu, lortu eta lanari ekin genion.

Eztabaidak izan ditugu, hala ere, lana nola burutu erabakitzean; lanerako eta iraganeko errealitateari hurbiltzeko bi ohitura desberdin direlako gureak: historialariarena eta eleberrigilearena, zientzia eta fikzioa. Edo osterantzean, zientzia eta fikzioaren nahasketa bat egin, baina bi era guztiz desberdinetan kontatuta. Hizkuntza bera ere, nonbait, eztabaidagunea izan da: euskara ala gaztelania? Ala biak batera? Kostatu zitzaigun, bai, erabakia hartzea.

Baina, azkenean, bekarako biek irabazi zuten: historiak biografia historikoa eskaini zuen euskaraz; literaturak, aldiz, eleberrri biografikoa, gaztelaniaz, aurki zeuon eskuetan edukitzeko parada izango duzuen. Argitalpen honetan lehenengoa baino ez dago¹. Ignazio Arginareñaren bizitzan bi hizkuntza, bi herri, bi kultura elkartu zirenez, Ameriketako euskaldunen aztarnen bila gabiltzanok ere, horrela ibiltzen gara, bi munduetako euskaldunen arteko zubiak eraikitzen.

Oscar Alvarez Gila

Alberto Irigoyen

Portugalete - Montevideo, 2005eko urtarrilaren 12a

¹ Eleberria *Tarttalo* argitaletxeak argitaratu du: Alberto Irigoyen, *El requeté que gritó Gora Euskadi*, 2006.

SAILKAPENA


Ameriketako abenturan aberastu ez baziren ere, Argiñarena anaiek, Ignaziok eta Migelek, altxor bat gordeta zeukaten: bizitzako jazoera eta gorabehera batzuk euskaraz bertsoan idatzirik. Horien artean Uruguaira heldu baino lehenagoko idazkiren batzuk badiren arren, gehienak Euskal Herria betiko utzi eta gerokoak ditugu. Guztira 124 idazlan aurkitu ditugu Argiñarenatarren eskuizkribuen artean¹, eta horietatik heren bat errepikatu egiten dira, ortografian, erabilitako hiztegian edo bertsoen luzeran aldaera txiki batzuk badira ere.

Bertso guztiak lau multzotan banaturik ageri dira, eta horretarako kontuan hartu da nork gorde zituen eta nola dauden bildurik.

1. Alde batetik, Ignazio Argiñarenak bilduriko bertsoak ditugu. Horietako batzuk orri solteetan zeuden. Bertso horien kronologia oso aldakorra da; eta askotan idatzi zireneko datak zehaztea ia ezinezkoa egin zaigu. Edonola ere, bertso horietako gehienak bizitzako azkenengo hamarkadetakoak dira.

2. Horrez gain, Ignaziok bi bertso-koaderno ere bazituen. Horietako lehenengoak, eta era berean zaharrenak, azalean *Borrador* izenburua dauka. Azkenengo orrialdeetan, Altsasuan harrobiko *listeroa* izan zeneko ohar batzuk dauzka. Hori dela eta, argi dago koaderno hau Europatik Uruguaira joan zenean eraman zuena. Bertan hasierako urteetako idazlanak dira nagusi. Idazteko moduak ere interpretazio honetara garamatza, izan ere, trazu tin-

¹ Bertsoak gehienak eskuz idatzirik daude, koadernoetan zein orri solteetan. Oso gutxi dira, aldiz, idazmakinaz idatzitakoak, Ignazio Argiñarenaren paperetakoak guztiak ere. Bertso horiei erreparatuz gero, erraz kontura gaitzeko Ignaziok ez zuela batere trebeziarik izan makinaz idazteko; eta horren adierazle dira errakuntzak eta hitzen arteko lotura gehiegizkoak. Hortaz, ziur aski nahiago izango zuen eskuz idatzi.




Borrador koadernoaren azala

koko letra biribilak, oraindik zahartzarora heldu ez den pertsona baten idazkera adierazten du.

3. Bigarren bertso-koadernoak, berriz, 1980ko hamarkadaren bukaera aldean idatzirik dagoela dirudi. Aurrekoan ez bezala, Ignazio Argiñarenak ez zuen inolako aipamenik idatzi azalean. Eskolan erabiltzen ziren lerrodun koadernoetako bat da eta Montevideoko argazki batzuk ditu –hauek ere data asmatzeko balio digute–. Azalaren atzealdean «Cuaderno Uruguay» izena dakar; eta beste baten faltan, berau aukeratu dugu, hain zuzen ere, koadernoak identifikatzeko. Ignaziok ez zituen orrialdeak zenbatu, orriak baino, letik 40ra (eta atzealdean itsatsiriko beste orri bat, 41 zenbakiarekin markaturik).

Koaderno hau, dirudienez, Ignaziok bere bizitza guztian sortu eta bildutako bertsoak elkarrekin gordetzeko eta sailkatzeko erabili zuen. Izan ere, orri solteetan edo *Borrador* koadernoan dauden bertso asko hemen errepikatu egiten dira, batzuetan aldaketa txikiekin. Nola edo hala, oso zehatza izan ez arren, orden kronologikoaren antzeko zerbait islatzen da bertso horien jarraipenean.



Cuaderno Uruguay koadernoaren azala

4. Migel Argiñarenak orri solteetako bertsoak ere gorde zituen bere pape-
ren artean.

5. Azkenik, familiak utzitako materialaren artean, bertsoak kantatzen
diren hiru kasete gorde dira.

Argitalpen honetan, Ignazio Argiñarenaren koaderno bietan (*Borrador*
koaderno eta *Cuaderno Uruguay*) eta orri solteetan zegoen materiala batu
dugu. Baina liburuarekin batera datorren CDan besteak ere badaude. Bertso
sailletako batzuk hainbat aldiz errepikatzen zirela kontuan hartuz, eta Igna-
zioren bertsoak idazteko garapena ikusi ahal izateko, batetik datadun ber-
tsoak daude, bestetik datarik ez daukatenak eta, azkenik, senitartekoek bial-
dutakoak. Datadunak hamarkadatan banatu dira eta, argi ikusten denez, 80
eta 90ekoak izan ziren oparoenak.

Errepikatzen direnak kendu egin ditugu, baina geratutako bertsoietan
oharretan ipini ditugu aldaera batetik bestera dauden aldeak. Azken bertsoia
hartzen ahalegindu gara, edo osotuena behinik behin.

Egileei dagokienez, nahiz eta bertso gehienak Uruguaira emigratutako Ignazio Argiñarenak sortuak izan, tartean dira haren anaia Migelek eta Euskal Herriko senideek bidalitako hainbat idatziren kopiak ere. Bertso horien edukietatik susmatzen denez, gehienak posta-trukean jasoak dira, hau da, Uruguako eta Nafarroako senideek, gutunetan, argazkiez gain, bertsoak ere bidaltzen zizkieten elkarri. Nafarroan, hasiera batean Migel eta Ignazio Argiñarenaren anai-arrebentzat dira bertsook; gero tartean Martin Orejarekin ere badituzte harremanak; eta 70eko hamarkadatik aurrera ilobekin hasiko dira, batik bat Jose Fermin eta Jose Miguel Argiñarena anaiekin. Ignaziok Edurne izeneko ilobari ere bidaltzen dizkio, izan ere, Nafarroara egin zuen bidaletako batean bera izan zen Edurneren bataioan aitapontekoa.

Horrela, Ignazio eta Migel Argiñarenaz gain, beste egile hauek ere sinatuko dituzte hainbat bertso, hirurak ere bertsolari ezagunak Euskal Herrian:

1. *Martin Oreja (1913-1978)*. Errazkindarra. 1960an eta 1961ean *Paulo Igantzi* sariketan parte hartu zuen; bigarren parte-hartzean hirugarren geratu zen. P. Diez Ulzurrunek gogoratzen zuenez, «txapelketetan 30etik gora aritzen ziren: M. Lasarte, A. Aldaz, B. Perurena, Martin Oreja, Klemente Ezkurdia, Arrastia, Moises Jaso, Bautista Madariaga, Markos Maritxalar Lesakakoa, Mutuberria Basaburukoa...»². 1962tik aurrera Euskaltzaindiak deituriko *Xenpelar* bertso-paper lehiaketaren seigarren deialdian (1967)³ hirugarren geratu zen. 1963ko azaroan Nafarroako Bertsolari Txapelketa jokatu zen, eta berarekin batera lehiatu ziren Manuel Huizi, Simon Ibarra, Andres Narbarte, Bautista Madariaga, Manuel Arozamena, Aingeru Aldatz, Mikel Zabaleta, Erramon Mihura eta Mikel Arozamena⁴.

2. *Jose Migel Argiñarena Otamendi (1948-)*. Errazkindarra. 1976an Zarautzen lehen aldiz antolatu zen *Lizardi Sarian* txapela eskuratu zuen⁵. 1979an Lesakan ospatu zen azken *Paulo Igantzi* sariketa (egungo Nafarroako Bertsolari Txapelketen aurrekaria) irabazi zuen⁶. Ondoren, Nafarroako Bertsolari Txapelketa antolatzen hasi zirenean, 1982an (Lesakan) eta 1986an (Donezte-

² «P. Diez Ulzurrun... azken Iruñshemea?», *Korrok*, 2, Iruñea, 1984.

³ «Premio Xenpelar», *Auñamendi-Bernardo Estornés Lasa fondoa*, Euskomedia fundazioa: www.euskomedia.org, 2004ko uztailaren 4an kontsultatua. Urte berean, bi bertso argitaratu zizkieten *Príncipe de Viana* aldizkari nafarrean, hauetako bat Xenpelar sarian parte hartzeko idatzirikoa: «Agur-bertsoa», *Príncipe de Viana*, 14, Iruñea, 1967, 3 or.; eta «Emakumean moda berriko jazerari buruz», *Príncipe de Viana*, 12, Iruñea, 1967, 3 or.

⁴ <http://www.argia.com/mendea/kronoak/1963.htm>.

⁵ AGIRREAZALDEGI, Ainhoa. «Lizardi Saria 25 urte», *Bertsolari*, Donostia, Bertsozale Elkarte, 43, 2001eko udazkena, 116-137 or.

⁶ Ik. www.argia.com/mendea/kronoak/1979.htm, 2004ko ekainaren 26an kontsultatua.

ben) irabazi egin zuen⁷. Euskal Herriko aldizkarietan ere hainbat bertso argitaratu ditu⁸.

3. *Jose Fermin Argiñarena Otamendi (1953)*. Errazkindarra eta aurrekoaren anaia⁹. Bertsolari txapelketa batzuetan parte hartutakoa da eta, anaiak bezala, berak ere hainbat bertso argitaratu ditu¹⁰.

Gaiei dagokienez, askotarikoak dira; hala ere, Ignaziok eta Migelek idatziriko testuei soilik so egiten badiegu, esan genezake beti errepikatzen direla kontu edo arlo nagusi batzuk:

1. «*Gure bizia nolakua dan jendiak jakindu dezan*». Horrela adierazi zuen Ignazio Argiñarenak bere asmoa Uruguaira heldu eta oso denbora gutxiren buruan (1950 urtean) idatzi zuen «Bertso berriak jartzera nua» konposizioan. Bi anaion helburuetako bat, batez ere Nafarroara zuzentzen dituzten bertsoetan, beraien bizimodu berriaren inguruko albisteak bidaltzea da. Argi asko ikus daitekeenez, bertso hauek oso funtzio garrantzitsua bete zuten familiako bi adarren arteko harremanetan, distantziak eragindako inkomunikazioari aurre egiteko modua izan zelako.

2. Aurrekoarekin loturik, baina beste ikuspegi batetik, «Ahijadita mía te quiero cantar» bertsoan islatzen den hari nagusia ageri da beste idatzi asko-

⁷ «Nafarroako Txapelketen historia. Sarrera»; www.bertsozale.com/nafarroa2005/bertsola6.htm, 2004ko ekainaren 26an kontsultatua.

⁸ Besteak beste, hauek:

- 1982: «Mendi ttonttorrean sortu da», *Argia*, 945 zk., Donostia, 31 or.
- 1985: «Gure herri zar agurgarria», *Herria*, 1.794 zk., Baiona, 6 or.; eta *Herriz herri*, 221 zk., 3 or.
- 1986: «Bertsotan», *Egin*, 2.772 zk., Hernani, 25 or., Jose Fermin Argiñarenarekin.
- 1988: «Autobia, txorakeria», *Hemen*, 137 zk., 7 or. «Bertsotan», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., Bera, 17 eta 20 or. «Goizeko ordulariari bere doinua entzutean», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., Bera, 23-24 or. «Hainbeste egun eta gau», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 23 or. «Jakingo duzu nola», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., Bera, 22 or.

⁹ ARIZTI, Pako. «Gerra askotako beteranoak. Madariaga anaiak. Nafarroako oihanetik jaitsi ziren bertsolariak», *Bertsolari*, Donostia, 47, Bertsozale Elkarte, 2002ko udaberria, 68-81 or.

¹⁰ Besteak beste, hauek:

- 1977: «Bestelan ondo baiña... ez?», *Euskalerriko Eskautak*, apirila-maiatza, Bilbao, 9 or.
- 1983: «Otaño gendun bertsolaria», *Egin*, 1.747 zk., Hernani, 18 or. «Uztapide il zaigu», *Príncipe de Viana*, 153 zk., Iruñea, 7 or.
- 1986: «Argiñarenak izango al du», *Egin*, 2.765 zk., Hernani, 29 or. «Balendinen omenez», *Argia*, 1.127 zk., Donostia, 49 or.
- 1988: «Adiskide zenuen batek, aberastu denez geroztik, ez du zurekin deus jakin nahi», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., Bera, 87 or. «Artalde guztietan», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 85 or. «Bertsotan», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 17, 77-78 eta 82 orr. «Errege bat Nafarroan», *Zeruko Argia*, 1187 zk., 56 or. «Hainbeste mitin ta politiko», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 24 or. «Nerekin ados egongo zera», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 87 or. «Orain aurkitzen zara», *Tiipi-Tiapa*, 24 zk., 22 or.
- 1989: «Oporrak pasa eta», *Hemen*, 156 zk., 7 or.
- 1990: «Bertsularia egin da berriz txapelketaren jabea», *Herria*, 2.038 zk., Baiona, 4 or.

BERTSOLARIEN TXAPELKETA

Ohitura jator bat



Moises Jaso Gaintzakoa orain dela hogei bat urte plazaz plaza bertsolari onenekin ibilia.



Alkat Iñodikoa.



Olano Aranokoa.

eta 6. Jose Fermin Argiñarena.

Agurraren ondoren ofizioa binaka jardun ziren: Lehen bikotean Moises Jaso apaizgintza utzi zuena zen eta Alkat sendagile karrera egin eta apaiza izateko ikasten hasten dena. Bigarren bikotean Jose Migel Argiñarena sendagilea zen, eta Mendiburu mozkorra. Hirugarren bikotean Olano San Pedro zen, eta Jose Fermin Argiñarena neska zahar bat zeruko atetan deitu zuena.

Ondoren bakarka gai

bati zuzur bina beriso bota zituzten: Moises Jaso ezkontzera zihoan gazte bati, Alkatek bere etxea alaitzen zuen txoriari, Jose Migelek mendian behera datorren errekatxo garbiari, Mendiburuk haur jai berri bati, Olanok izarrez betetako zeru urdinari, Jose Ferminek euskara ez dakien euskaldun bati.

Ondoren oinak eta puntuak eman zizkieten bertsoak osatzeko. Azkenik kartzelako bi gai erabili ziren bina bertso botatzeko: Nafarroa zer

den, eta poltsa batetan aurkitutako haur bati.

Epaimahaiaren erabakia hau izan zen: lehen Jose Migel Argiñarena, bigarren Mendiburu eta bertso onenaren saria Jose Fermin Argiñarena-arentzat, Nafarroa zer den gaiaz botatakoagatik.

Azkenik ohar gisa esan zuten Nafarroako bertsolarien txapelketa hau beste herriren batek nahiko balu egitea, ez dagoela inolako oztoporik heraien aldetik, baina inork nahi izango ez balu egiten jarraituko dutela.

Jose Migel Argiñarenak mendian behera doan errekatxo garbiari buruz botatako bertsoak:

Mendi tontorrean sortu da datorren errekatxo, zentzura hauxe etorri zait izan leike bidasoa, arrainak hortxe aurkitzen du ur garbi eta gozoa, bazkioari eskerrak bizi da gaur arrain gaisoa.

* * *

Errekatxoa, arrainak maite zaituzte bihotzetik, baina zerbait nik gaur esateko badaukat zuri bertatik, bazenekizun Euskadi puskatuzten dezula erditik, ez nago jeitxiko zinatekela sortuzten zeran lekutik.

* * *

Mendiburuk haur jai berri bati botatako bertsoak:

Ongi etorri haurtxo maitea aingerutxoen gisara, beharda noizpait zuk egin behar dukezu gure biltzarra, ez pentsa bitan dagozi beti hegoa eta iparra, haurtxo maitea ez duzu segur botarik azken nigarra.

* * *

Ongi etorri haurtxo maitea zintzoa eta gaetsua, izan zaitela aita ta ama diren bezain indartsua, ta salba zazu odolez busti dagoen lur amultsua, iparaldeko gorantz zabalduz zure nigar tirrien musua.

ZALDUBI
argia.31

Jose Fermin eta Jose Migel Argiñarenak parte hartu zuten bertso saio baten albistea, *Zeruko Argia* aldizkarian (941 zk., 1982)

tan ere. Nafarroako familiarekiko harremana ez da gertakizunen kontaketa hutsean geratzen, eta ukaezina da bertsoetan asmatzen den afektibotasuna. Uruguaitik herrimina, familiamina eta oro har atzean utzitakoaren oroimena ageri da alde batetik; eta bestetik, distantziak apurtu ezin dituen lotura sakonen jarraipena. Handik hona, eta hemendik hara, sentimenduak gurutatu egiten dira elkarrekin; esaterako familiaren alde batean edo bestean norbait hiltzen denean. Horrez gain, aholkuak ere ematen dizkiote elkarri eta hori irauten duen harreman estu baten adierazgarri da. Esaterako, Ignazio Argiñarenak Edurne bere alababixiarekin duen harremana, bertsoetan ere agertzen zaigu. Jose Fermin Argiñarena ilobak ere garbi eman zien adizteraz gauza bera: «zuekin aztuta gaudenik etzazute behintzat uste».

3. Familiari etengabe bidaltzen dizkioten aholkuen artean, erlijioak leku handia betetzen du. Jaungoikoaren laguntza, Jainkoarenganako esperantza eta gurasoek irakatsitako fedeari eusteko beharra, horixe baita beren ustean oker guztien konponbidea, 1985ean idatziriko «Amerikatik Españiraño» bertsoetan argitzen duen moduan:

Olako gauzik gerta ez dedin
dotriña ikasi degu.
Ama gatxuak egun askotan
ortan erakutsi digu.

3. Hausnarketari ere uzten diote txokoa bi anaiak, batez ere bizitzako unerik erabakigarrienaren inguruan: Uruguaira emigratzeko erabakia hartu izanaren inguruan, alegia. Alde batetik, bidaia bera hamaika aldiz errepikatzen den gaia da: horren deskribapen zehatzak ematen dizkigu, batez ere Ignazio, Nafarroatik atera zirenetik Montevideoko *Euskal Erria* elkartera heltzean eman zieten ohorezko bazkarira arte. Hain zuzen ere, badaude bi bertso, hainbat konposiziotan behin eta berriz errepikatzen dituenak:

«Gure erritik atera giñan
aorran oita zorzian,
eta lenengo Nazio zan
pasatu giñan Franzian.
Gero berrogei egun pasiak
pasatu giñun onzian.
Geroko pensamentu onakin
guztia pazienzian.»

«Abenduaren oeta batian
ontzitik giñan atera.
Bazkari on bat eitia danok
juan giñan Euskalerrira.
Bazkari ori bukatutzian,
bakoitza bere tokira.
Geroztik emen bizi gerala
animalin antzera.»

Bertsoetan egiten diren gogoeta eta hausnarketa horietan hiru aldi bereiz daitezke:

Hasiera batean, aurreko bertsoan ikusten den bezala, oso iritzi ezkorra dute Argiñarenatarrek emigratzeko erabakiaz. Uste dute errakuntza izan dela, Amerika ez dela pentsatutako modukoa, eta hori bertsoan honela adieraziko dute: «lana fuerte egin biarra/ orko pobriaren gisan».

Baina hamarkada bat igaro eta gero, lanaren lehen fruituak biltzen dituztenean, hau da, Argiñarenatarrek tanboa erostea lortzen dutenean, ikuspegi erabat aldatzen da. Beren iritzi ez daude hain txarto, batez ere familia hazten ikusi dutenetik:

«Jaunari grazik eman dazkiot
iruoitamar betetzen.
Oartu gabe ari gedala
aitondu eta zartutzen.
Illo monton bat ekusten degu
ari dirala azitzen.
Bizi biarra onez aurrera
oieri piskat laguntzen.»

«Guztia gaizki itz egitia
ez dala gauza bikaña,
irabazia badadukagu
orke bi gizonek aña,
Esne ta ogia badaduzkagu
zurie eta bikaña.
Aragi ederra jan nai dunantzat
komeni zaijon aña.»

«Onera etortzia pensa gendun
ta ez dadukat pena.
Irugarren gizaldian
etorri da amaikagarrena.»

Baina 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, ostera, ezkortasuna da nagusi berriro ere hausnarketetan; alde batetik, familian izan zituzten zoritxarregatik (Ignaziori seme bat, Pedro, hil zitzaion eta beste seme bat, Jesus, hamar urtean izan zuen kartzelan *tupamaroa* izateagatik; Migeli, berriz, emaztea hil zitzaion); eta bestetik, Uruguako ekonomiaren gainbehera izugarriregatik.

«Esango dizut nola gabiltzan
geroztikan okerrago.
Neure ustian arreglorik eman
sekulan geigo ez dago.»

«Nazijotxu au ona zan bañan
atzera a[r]i da gelditzen.
Zorra aundiak ein ditugu ta
orain legurriak artzen.»

4. Bukatzeko, euskara eta euskalzaletasuna ere etengabe azpimarratzen diren gaiak ditugu. Ameriketara heldu orduko, lehendabiziko bertsoetatik «gure izkuntza zarrari» atxikimendua erakusten diote bi anaiek, Ignaziok *Argiñarenak ez gera izango* bertsoetan aldarrikatzen duen moduan:

Neure naia da euskeran alde
eitia al dan guzia.

Edota, baita *Bertso batzuek jartzeko daukat* bertsoetan ere:

Euskeran alde nik jarriko det
beti bai neure eskua.
Arguiñarenak gaudela beti
euskararen alde prestuak.

Harro sentitzen da Ignazio, beraz, «Uruguaien gertatzen gera/ gu bi anaiok aspaldin./ Bañan alare gure euskera/ itz eiten degu berdin» aitortzen

duenean. Izan ere, euskara ez galtzearen aldeko apustua –edo erregua– egiten duenean, «aspaldin dala sortue» gogoratzen digu, «Españik eta Franziaik ere/ edade ori eztue».

Espainiari eta Frantziari egiten dien aipamen hau ez da, alabaina, kasualitate. Ignazio gerra garaian tertzio karlistetan boluntario sartu zen, eta alderdi karlistarekiko izan zuen atxikimendu ideologikoa neurtzen zaila bazaigu ere –idazkietan ez du argitzen, eta batzuetan ematen du Ejerzitoan beste destino gogorragoetara bidal ez zezaten eman zuela izena karlisten alderdian–, argi dagoena da arin egin zela euskalduna eta euskaltzalea, eta baita Migel anaia ere. Edonola ere, azkenengo urteetan oso bilakaera interesgarria asmatzen da bere ibilbide ideologikoan, eta Euskal Herriaren –ikuspegi batzuetan hitz hau alderdikeria guztien gaineratik dago– ikuspegi orokorragoa eta *abertzaleagoa* erakusten du. Esaterako, aurrerago aipatu dugun bezala, bi autobiografia idatzi-tan Nafarroa eta Espainiaren artean, Vaskonia jartzen duenean.

Lau probintziak morroi gaudenak
beste iru daude Franzian.
Bertso ederrak jarriko [d]itugu
zazpiak bat juntatzian.

Horrez gain, 1980ko hamarkadatik aurrera ikusten denez, gero eta tratu estuagoak zituzten bi anaiek Uruguaiako euskaldunen erakundeekin; esaterako, Montevideoko *Euskal Erria* euskal etxean lagunekin biltzen zirenean, eta batez ere 1993ko Mar del Platako *Euskal Astera* joan zirenean. Euskal Herriko senideekiko harremanek ere zer edo zer eragingo zuten bilakaera horretan, bi iloba bertsolariekin izan zuten bertso-trukean ageri den bezala. Erabat osoturiko pentsamendu politiko abertzalea eta alderdi baten aldekoa zeukatela baieztatu barik, zalantzarik gabe esan daiteke beste euskal emigrante askori gertatu zitzaizen bezala, Argiñarena anaiek ere euskalzaletasunaren kontzientzia berritua atzerriko euskal taldeen eraginez jaso zutela.

Usted, ¿qué es, vasco, navarro o español?

¿Yo?, navarro y de Pamplona, la capital de los vascos...

¿Qué opina del Zazpiak bat? (siete en una)

Que es algo lógico, esencial. Además, como los más veteranos de Europa...¹¹

¹¹ Ik. 220 or.

2. IRIZPIDE LINGUISTIKOAK

Oro har, bertsoak idatzi ziren moduan transkribitzen saiatu gara. Hala ere, gaurko euskal grafiarako moldaera batzuk egin ditugu, irakurleari begira ulergarriago izan dadin. Hurrengo irizpide hauek jarraitu ditugu:

1. Grafia, letren idazkera gaurko erabilerara egokitu dugu orokorrean:
c, qu>k: contua>kontua, quendu>kendu; v>b: Virjiña>Birjiña; mb, mp>nb, np: dembora>denbora; txistukariak (s, z, x, ts, tz, tx) gaurko erabileraren arabera jarri ditugu: atxegin>atsegin, erraisa>erraza;

ñ eta ll bokal artekoak idazleak erabiltzen dituen moduan utzi ditugu, ostera, ll+kontsonantea>l.

y>i bihurtu dugu zenbait kasutan: bay>bai. Bokal arteko epentetikoa denean, ordea, j idatzi dugu: graziya>grazija.

2. Hitzak lotuta egon direnean banatu egin ditugu. Batzuetan horrek ez du aldaketarik ekarri: einditugu>ein ditugu, egunombat>egun on bat. Beste batzuetan bai: eintziñan>ein ziñan. Banatzean letraren bat osotu beharra ikusi orduan, honetara jarri dugu: einuan>ei[n] nuan, a[r]i, zu[r]e, ald[e] ingo, ta [a]ma, deseaten [di]zuet.

Askotan ezin dira hitzak osotu bertsoaren neurria hautsiko litzatekeelako. Halakoetan oharren bidez ematen dira forma osotuak: biatut>behar ditut.

3. Aldaera fonetikoak idazleak jarritako moduan gorde dira: ezkendun, ezpadirade, ezpada...

4. Noizean behin testua ezin da ondo irakurri, holakoetan hutsunea dagoela eta testu apurren bat falta dela adierazteko, [...] jarri dugu. [] eta barruan testua jarri denean, osotu egin dela adierazten du, lerro amaieraren baten, edo ondo ikusi ez arren zer jartzen duen antzematen denean, hala adierazi dugu.

Inoiz edo behin gramatika aldetik osotzeko ere hala jokatu dugu: iñor[k] esanda, gera gaztia[k], ni[k] ere.

5. Gaztelaniazko testuetan, autobiografietan, ulermenari begira erredakzioa apur bat zuzendu dugu: paragrafoak eten, puntuazio-markak txertatu, hitzei azentuak jarri, ortografia gaurkotu.

Isla Malako haritza

Ignazio Argiñarena Otsotorena
bertsolariaren bizitza eta lanak
(1909-1997)

1. Bizitza

ERRAZKINEN

1909ko uztailaren 22an Errazkinen mutil bat jaio zen, Juan Fermín Argiñarena eta Josefa Otsotorenaren seme-alabetan bosgarrena. Ignazio izena ezarri zioten bataioan. Urte dezente geroago eta jaioterritik oso urrun, Uruguaiako Isla Mala deritzon herrian zeukan *tanboan*¹ eta etxean gogoratu zuenez:

Un día 22 de julio de 1909, nació yo y me pusieron el nombre, Ignacio Arguiñarena, hijo de Joan Fermín y Josefa, en el pueblo de Errazquin, Navarra, España. Según cuentan nació grandote y según me crié fuerte. El día 25 de julio, el día Santiago, que hacían fiestas en España, me llevaron a bautizar. El cura que me bautizó, entre las ceremonias cuando me metió sal a la boca, dicen que empecé a llorar a gritos, parece que no me gustó, y dicen que dijo el cura: «Isilik ago arrama aundie», cállate chillón.

Según mis padres fui creciendo bien, sin ningún contratiempo. Mis padres, 4 hermanitos y los abuelos vivíamos en una casa de labranza. Después vino otro hermano, el último, el 13 de agosto de 1913, o sea a los cuatro años. Los otros hermanitos se llamaban, la mayor, María Magdalena, nació en 1899, el 22 de julio, el mismo día que nací [yo]; el segundo, Antonio, nació el 6 de febrero de 1901; la tercera, María Salomé, en 1903, 20 de setiembre, y la cuarta Jesusa, en 1907, el 24 de diciembre. Esa era la familia entera que nos criamos juntos, como dije arriba, en una casa de labranza²,

¹ Argentinan eta Uruguain horrela deitzen zaio esnea ekoizteko abere-ustiategiari.

² Ignazio Argiñarenaren autobiografia idatzian, 1986ko urtarrilaren 21ekoan (aurrerantzean *Autobiografía 1986*), aipatu zuen hori. Handik hamar urtera, oster, hurrengo autobiografia idatzian, 1996ko apirilaren 30ekoan (aurrerantzean *Autobiografía 1996*), honakoxe hau idatzi zuen jaiotzaren inguruan: «Nací en España, 1909, el 22 de julio provincia de Navarra, Valle Larraun, Errazquin, Vasconia. Hijo de Joan Fermín y Josefa. Quinto hijo. Tenía hermanos, 4: la primera la María, Antonio, Salomé y Jesusa. Yo, Ignacio, a los 10 años, el mismo día que nació la primera la María, después nació el último, Miguel. Todos Arguiñarenas y Ochotorenas, del mismo



Josefa Otsotorena eta Juan Fermin Argiñarena, Ignazio eta Migelen gurasoak.

Baserritarrak genituen, beraz, Argiñarenatarrak. Sos askorik gabeko halako familiari zegokionez, etorkizunerako irtenbideak edo aukerak ez ziren ederrak Josefa eta Juan Ferminen seme-alabentzat; eta are gehiago baserria eta baserriko lur eta ondasunak oinordetzan jasoko ez zituztenentzat. Ignazio, seiren artean bosgarrena izanik, ez zuen izango gurasoen etxean luzaroan bizitzeko konturik, horien eta –horiek hiltzean– anaia nagusiaren morroitzan ez bazen. Eta, gainera, etxeko ondasunak eurak ere ez ziren izango familia handi bati jaten emateko adinakoak; izan ere, hamar hektarea baino gutxiagoko etxalde batean hainbat txerri, lauzpabost behi eta oilaskoak ziren Argiñarenatarrek zuten ia errenta guztia. Oro har, garaiko euskal baserri arrunt bateko bizimodua zuten.

padre y madre». Aipatu beharreko aldaketa bakarra jaioterria non dagoen zehazterakoan dago; Nafarroa eta Espainiaren artean, orain, *Vasconia* ezartzen duela. Hau guztia Ignazio Argiñarenak bizitzaren azkenaldian bizi izan zuen aldaketa ideologikoarekin lotzen da, euskaltasunaren defentsan ari zen eta euskal identitatea biziagotu egin zen beragan.

Teníamos un rebaño de ovejas y unas 4 vacas, y criábamos cerdos y unas gallinas. En las chacaras plantábamos trigo, maíz, nabos y patatas, alubias junto con los maíces. Y recogíamos para comer todos los días del año alubias con un poco de tocino que carneaba un cerdo grande en el año. El trigo y el maíz molíamos en el molino de piedra. Amasábamos en casa el pan y con la harina de maíz hacíamos las taloas, o sea tortas con queso con leche. Es muy rico, porque después de quitar los corderos ordeñábamos las ovejas y hacíamos queso muy rico. O sea en aquellos tiempos hambre no pasamos.

Los niños enseguida empiezan a hacer algo. Yo me acuerdo con 9 años ordeñaba las [...] y las cuidaba en la sierra³.

Gazte-gaztetarik, beraz, lanari ekin behar izan zion, gainontzeko mutilek eta neskek bezala. Mutilei kanpoko lana zegokien. Horrela bada, inguruko Aralar mendietako borda batean ardiak zaintzea zer zen laster ikasi zuen Ignaziok:

Ni lanik gabe orain artian
sekulan ez naiz gelditu.
Zazpi urtekin etxeko ardiak
egiten nitun kuidatu⁴.

Bere bertsoetan umetako bizimoduaren gomutapen asko islatu zituen: auzolana nola egiten zen, Aralar mendira ziren bila ateratzen zirenekoak, gaztaina erreen usain goxoa... Eskolara joatea ere egokitu zitzaion, bederatzirekin hasi zen Errazkinen eta. Ez zen luzaroan ibili, izan ere, elurrak, eguraldi txarrak edo etxeko lanek behartuta behin eta berriro eteten zitzaion eskola urtea. Eskola izan zen, hain zuzen ere, ordura arteko euskara hutsezko bizimoduak gaztelaniarekin lehenengo harremana izan zuen lekua. Ez zen batere alai izan, gainera:



Josefa Otxotorena eta Juan Fermin Argiñarena familiarekin.

³ *Autobiografía 1986*.

⁴ Ik. 128 or.

Akordatze[n] naiz eskolara ni
lendabiziko urtetan,
Prohibitua jarri ziguten
itz egitia gure izkunzan.
Orreri kontra ezin egiña
guretzat pena izan zan⁵.

Edonola ere, Ignazio erdaraz idazteko ez ezik, bere kabuz euskaraz zirri-borratzen ikasteko ere gai izan zen. Hala eta guztiz ere, bere hezkuntzan izan zituen hutsuneak onartuta, ordurako soldaduskatik itzulitako mutila zela, berriro eskolara joan eta bi urtean ibili zen bertan. Ignaziok berak zahartzaroan aitortu zuenez, bi urte horietan aurreko guztietan batera baino askozaz ere gehiago ikasi zuen.

ETXETIK KANPO BIZIMODUA IRABAZTEN

Baina lehenagotik ere, lanean hasita zegoen. (Baserritik at, esan nahi dugu). Soldatapeko lana egiteko aukera ia ate heldu zitzaion etxera 1931n, hogeita bat urte zituela. Orduko hartan Espainian sare telefonikoa ezartzen ari ziren, eta baita Frantziarekin nazioarteko konexioak egiten ere. Horrelako linea bat Errazkindik gertu igarotzen zen eta herriko gizon eta mutil asko sartu ziren lanbide ezohiko –eta oso errentagarri– horretan. Erabakia hartzea, aldiz, ez zitzaion batere samurra egin Ignaziori; izan ere, aitak kontrako iritzia agertu zion, baserriko zereginetarako bere besoak behar-beharrezkoak zirelakoan. Hala ere, atzetik amaren bultzada jaso zuen, eta bultzada hori erabakigarria izan zen:

Así que me iba creciendo y cumplí 21 años. Y en ese verano se construyó la red nacional de telefónica de París a Madrid y a Barcelona, por debajo de la tierra. Y le daban trabajo a toda la gente que quería trabajar, y el sueldo era muy bueno para entonces, 8 pesetas en 8 horas. Yo quería ir y mi padre no quería, pero la madre me decía que vaya. Y yo me comprometí con un amigo, el domingo a la tarde que nos íbamos a ir a pedir trabajo. Y lo hicimos, pero mi padre me desafió con amenaza diciendo: «Te vas. Ya, ya volverás, sí.» Así empecé la primera vez a trabajar. Pero a gusto recibía 48 por semana. Entonces no decía que no. Mientras estaba cerca de casa, unos meses y ⁶ seguí trabajando.

⁵ Ik. 121 or.

⁶ Soldataz ari da. Astean 48 pezeta irabazten hasi zen.

El último día de trabajo en la telefónica estuvimos trabajando bajo el agua y siguió 3 días temporal, que se crecieron los arroyos, y muchos desprendimientos. Y entre ellos rompió el canal de la Central, y nos fueron a buscar todo el que quería trabajar. Hasta el 21 de diciembre estuvimos arreglando. Unos 35 muchachos teníamos que subir al hombro las bolsas de porlan, eran de 50 kg. Los demás llevaban una cada viaje, y otro que se llamaba Juan y yo llevábamos 2 en cada viaje, sin que nos obligara nadie. Pero alguno tuvo en cuenta. Cuando fuimos a cobrar nos pagaron más sueldo a los dos que a los demás.

Y ahí vienen Navidades. Nochebuena pasamos en casa. Otro amigo, Ignacio, y yo fuimos a San Sebastián para conocer por primera vez. Aquello para nosotros era grande y a los 15 días, o sea, el 8 de enero de 1931, tuve que incorporar al ejército, y me tocó en Santoña. Fuimos juntos de Pamplona los que iban a Santander, y nosotros en un tren militar. Bajamos en la estación de Trectas⁷ y de allí en una zartzeta pasamos en el agua a Santoña. Ya era de noche⁸.

Itsasoa gertutik ezagutzeko aukera izan zuen, beraz, hurrengo urtebete eskasean⁹. Santoñan soldaduskaren lehenengo hamar hilabeteak bete zituen, hots, instrukzioa eta kuarteleko egonaldia.

Ilbeltzaren zorzian
soldaduskan sartu.
An egin zizkidaten
legurriak artu.
Etxetik oso bertan
ez nintzen gelditu.
Santoñako partian
e[g]i[n] nintzan tokatu.
Zeñek apartatu,
la[g]un artian juntatu,
urtia pasatu,
etxera bueltatu,
Orduan giñan danok
oso kontentu.u.u.¹⁰

⁷ Ziur aski, Treto-ko tren geltokiaz ari da, Santoñatik gertuen dagoen geltokia baita, Bilbo eta Santanderren arteko trenbide estuko linean.

⁸ *Autobiografía 1986*.

⁹ Izan ere, urtea ere ez zuen bete soldaduskan, 1931ko urtarrilean Santoñan armadan sartu eta urte bereko abenduaren 2an lizentzia osoa eskuratu zuelako. Urritik aurrera Santoñatik Iruñera aldatu zioten destinoa.

¹⁰ Ik. 87 or. Soldaduskan gertatutakoari buruz, baditu beste bertso batzuk, esaterako (Ik. 155 or.).

Santoñako kuarztelean, batez ere Espainiako iparraldeko mutilak biltzen ziren soldaduska egiteko, horietako asko euskal herritar eta euskaldunak. Han Ignaziok bigarrenegun egin zuen topo aurrez aurre bere euskaltasunarekin; oraingo honetan, ostera, eskolan espainieran lortutako trebeziak, apartekoa izan ez arren, balio izan zion:

Problema era para nosotros, los vascos. Muchos de ellos no sabían ni jota en castellano, y ni escribir algunos. Yo sabía muy poco, pero con lo que sabía tenía que hacer interprete¹¹.

1931ko abenduan, berriro kalean, estatuarekiko betebeharrak militarra egin eta gero. Orduan, gurasoen etxera itzultzea erabaki zuen, lehengo jardueretara, baserriko zereginetara.

Me vine licenciado de allí. Dos años más pasé con mis padres en el mismo trabajo. En ese año, 1933, se casaron dos hermanos Antonio, para casa, y Jesusa, con un contratista de trabajos públicos¹².

Anaia zaharrenaren ezkontzak Ignazioren bizimoduari aldaketa handiak ekarri zizkion. Ezkontzarekin, Antonio Argiñarena etxagun bihurtu zen, aitaren ordez. Jaun berria eta kanpotik ezkonduko etxeko andrea zituen etxean eta Ignazioren egoera hankaz gora jarri zen. Orduetik aurrera ez zen gehiago etxeko semea izango, anaiaren morroia baino, eta hori diru-kopuru edo lansari oso txiki baten truke: premuak urteko 500 pezetako soldata ezarri zuen. Hori dela eta, lehendik hartutako erabakia aurrerratu egin zuen. Bizitza bere kabuz irabazi behar zuen lehenbailehen, eta Jesusa arrebaren senarrak berehala eman zion nahi zuen aukera: 1934ko urtarrilaren lehenengotan bere koinatuaren enpresan sartu zen kapataz gisa lan egiteko, Nafarroan zehar Aldundiarentzat errepideak eraikitzen eta konponketa lanak egiten:

Me fui con este cuñado a trabajar. El primer trabajo me tocó en la carretera de Avinzano, de la general al pueblo, y a continuación hicimos de

Ogeitabat urte pasa, postura orretan.
Soldadu joan biarra, tokatu zait bertan.
Eta etzait tokatu, etxetikan bertan.
Urte bat an pasata, etorri naiz bueltan.

¹¹ *Autobiografía 1986.*

¹² *Autobiografía 1996.*

Lezaun, en el mismo lugar uno al norte y otro al sur, y de ahí volvimos para atrás hacia Pamplona, hasta el pueblo Salinas de Monrreal, de ahí a Alzoriz, la tercera carretera, terminar esa y pasamos a Biurrun –de ahí tengo mucho recuerdo después contaré–, de allí fuimos al variante de la ciudad de Estella, y a continuación a Azagra. A medio hacer éste se suspendieron todos los trabajos del estado; estalló la guerra civil de España, 18 de julio de 1936. A casa de los padres a ayudar otra vez¹³.

MAITASUNA GERRA GARAIAN

Familiaren baserrira itzultzeak, hala ere, ez zuen esan nahi Ignaziok bizi-tzaren bilakaeran atzeraka egin zuenik. Alderantziz, behin-behineko babesa baino ez zuen hartuko, harik eta gerrak zer bide hartuko zuen jakin arte. Ez zekien aurreko lanbideari lehenbailehen berriro ekingo ote zion, eta batik bat, ea bere andregaiia berriro ikusteko parada utziko zion zoritxarreko borrokaldiak.

Izan ere, ordurako maitasunak Ignazioren atean jo zuen berriro. Oraindik nerabea zenean, beste asko bezala, neskatan aritu zen, baina adinaren ezjakintasunagatik eta lotsa gaindiezinagatik harremanak ez zuen aurrera egin:

Más o menos cuando tenía unos 16 años me empezó a gustar una vecinita que se llamaba Elenita. Cuando podía estar un rato con ella era todo mi ilusión. Así pasamos unos 4 años. Pero pasó un malentendido entre nosotros y ya no le quise más nunca, aunque tuve mucha pena tener que dejar que tanto le quería. Y nunca más me olvidé de ella aunque no la vea¹⁴.

Hitzez adierazi ez bazuen ere, gertatutakoa benetan latza egin zitzaion Ignaziori, eta handik aurrera ez zen beste neska batekin maitemintzen saiatu, harik eta lanagatik Biurrunera hurbildu zen arte. Biurrun Nafarroako erdialdean dagoen herria da, Iruñeatik Tuterara arteko errepidean. Herri euskalduna dugu, gainera. Ignazio eta bere menpeko koadrila osoa bertara heldu ziren, Biurruneko errepidean lan batzuk egitera. Peoiak barrakoi batean geratzen ziren, Ignaziok, ostera, kapataza izanik, Biurruneko ostatuan

¹³ Ibidem.

¹⁴ *Autobiografía 1986*. Neska honen izena Elena Oreja zen.

hartu zuen gela. Bertan ostatuaren jabe-aren alaba, Aleja Biurrun Huarte¹⁵ izenekoak, ezagutu zuen; eta oso denbora gutxiren buruan elkarrekin hasi ziren senargai eta andregai moduan. Baina ezkongaietako urte hauek gogoratzean ere, Ignaziok argi uzten du beraien harremanak ez zuela paseo erromantiko batekin inongo zerikusirik izan:

En Biurrun, me enamoré de una muchacha, pero la familia no me quería a mí, y ¿qué problema por eso? Yo era el que tenía que vivir con ella y no ellos. Salió de casa y se puso a servir en Tolosa, en Guipúzcoa¹⁶



Aleja Biurrun Huarte.



Tolosa – Arkaute etxea.

Hemen sartu zen Aleja Biurrun neskame, amaren etxetik alde eginda.

¹⁵ Aleja Biurrun Huarte, Jeronimo eta Monicaren alaba, Biurrunen jaio zen 1909ko otsailaren 16an.

¹⁶ *Autobiografía* 1996.

Oztopoak oztopo, Ignaziok eta Alejak beren harremana aurrera eramane zuten, neskaren ama eta neben iritziaren kontra. Aita lehenago hil zenez, Monica Huartek ostatuaren gidaritza hartu zuen, eta horrela familiaren mugimendu guztiak kontrolatu nahi izan zituen. Alabaren ezkontza ere aspalditik zeukan hitzartuta Biurrungo maisuarekin; eta semeekin batera, Aleja bere nahietara makur zedin ahaleginetan ibili zen behin eta berriz. Baina, alferrik:

La Madre y hermanos no le dejaban: «Este forastero que ha venido, qué sabes quién es, no te metas con él, no te conviene». Pero ella pensaba todo diferente. Nosotros nos veíamos con cariño, pero le hicieron la vida imposible. Pensó irse de casa pero no le dejaban. Pero buscamos la vuelta. A ella le mandaron a Madoz, a fiestas, el día San Juan, el 24 de junio de 1935. Nos entendimos los dos que el 29 sábado, era el día San Pedro, y al otro día, domingo, teníamos dos días libres que podíamos buscar lugar para ella. Efectivamente, nos fuimos en el Citroen de mi cuñado. Ellos iban a visitar los padres a Cerain, matrimonio con una nenita y nos dejaron en Tolosa. Y mi hermana como había estado sirviendo en un chalet, fuimos a preguntar si sabían quién necesitaba una muchacha. Y nos dijeron “nosotros mismos”. Y le explicamos la cosa cómo era. Pues allá quedó. Nos molestaron bastante los hermanos que querían traer, pero ella firme estuvo en todos los momentos, y no pudieron porque era mayor de edad¹⁷.

Beteko al ziren azkenean beraien ametsak? Hala uste zuten. Ignazio lanera itzuli zen, ezkontzeko adina lortu arte; Aleja, bien bitartean, Tolosan gelditu zen itxaroten. 1936ko udarako ezkontzekotan ziren, baina bizitzaren gorabeherak zirela eta, amets eta etorkizunerako plan hauek guztiak kolpe batez desegin zitzaizkien:

Nos agarró la guerra; ella con los rojos y a mí con el de Franco, a 20 km. de mi casa, pero teníamos la frente en el medio y no había ni comunicación, hasta que los de Franco rompieron. Es cuando pude ver y así seguimos hasta marzo del 37, es cuando me llaman a mí la quinta. Eso es peor, cuando llevábamos ya casi 2 años de novios. A la guerra, al matadero. ¡Qué día la despedida, para siempre! Pero pensamos una cosa buena. Después de todo sacamos un hijo de ese día, siempre nos acompaña¹⁸.

Izan ere, 1937ko martxoan dei egin zieten bere kintakoei, armadan sartzeko. «En vez de ir de soldado, yo me tenía que incorporar al América 14,

¹⁷ *Autobiografía 1986.*

¹⁸ *Autobiografía 1996.*

en Pamplona. Pero vinieron a ofrecernos ir al Tercio o la Falange, que seríamos mejor vistos, y bueno, fuimos al Requeté»¹⁹. Ondo ikusia zegoenez, etxetik gertu gerra egitearren, Ignazio Requeté-en *Lácar* tertzioan sartu zen, bes-tela auskalo nora bidaliko zuten. Berehala, andregaiia haurdun utzita, Bizkaiko frontera eramán zuten. Hasieran bere batailoiko lotura izan zen, eta gero banderadun izendatu zuten. Frontera, Gernikako bonbardaketa izan eta egun gutxira heldu zen, bertan borrokan ziharduten tropa karlistak indartzeko.

El grupo estaba en Muxika, en Bizkargi estaban los rojos, cerquita de Gernika. Ahí paramos el vehículo, un camión, éramos unos cuarenta y pico y nos pararon en la carretera a Gernika y yo estaba mirando unas abarras en la carretera... Y en eso, dispararon cuatro... La primera vez, sí que asusta. Ahí estuvimos mirando Gernika, la farra que habían hecho...

No íbamos todos juntos. Íbamos igual dos o tres, para ver, un rato allá. Y en eso, venía un hombre, solo por la calle y como quería hablar con él, le encaro: "...diga, ¿puedo hablar con usted?". Pero viéndome la boina roja me contestó: "no tengo tiempo". Como yo me había dado cuenta de ese detalle, me saqué la boina y guardándola en el bolsillo del pantalón le dije: "mira, de ésta, nada, ¿eh?, no tenga miedo que no le va a pasar nada, si me permite, yo le voy a hacer unas preguntas..." Y veo que el hombre se tranquiliza y me dice "bueno, hágalas, pero rápido que tengo trabajo". Entonces le pregunto "¿quién quemó esta ciudad?". "¿Esta ciudad?, estábamos en la feria los gernikeros y vecinos cuando de pronto vinieron aviones de Franco y ahí bombardearon toda la ciudad. Y ha quedado todo quemado", me dijo. "Muchas gracias, yo quería saber si la habían quemado los rojos cuando la huída, como decían, o viceversa, como me parecía a mí", le dije²⁰.



Nafarroako Brigaden boluntarioak El Mazucon.

¹⁹ Argiñarena, I.: «El tambo como alternativa de vida», *La Revista de los Vascos*, 5 (octubre de 1994), Haize Hegoa, Montevideo, 13-19 orr.

²⁰ Ibidem.



El Mazuco.

Burdinazko Gerrikoa apurtu, eta ekainaren 17an bere erregimentua Bilbora sartu zen. Ez ziren, hala ere, luzaroan geratu Bizkaiko hiriburuan. Euzko Gudarostearen talde iheslarien bila Santoñara eta gero Santanderrera ailegatu ziren abuztuaren 31n. Iparraldeko frontea ia deseginda zegoen, Asturiasko erasoak besterik ez zen falta. Llanesen aurrean, Deva ibaiaren ertzean, erresistentzia errepublikarrak gotorlekua eraiki zuen, tropa frankistei aurre egiteko, *El Mazuco* deitzen den mendilerroan. Indar bien arteko desoreka nabaria zen, ia berrogei mila boluntario nafar alde batean, itsasotik *Almirante Cervera* gerraontziaren kanoien laguntza zutelarik; eta bestetik, bost mila inguru defendatzen, asturiarrak eta euskal herritarrak. Bi astetan burruka gogorean iraun eta gero, Asturiasera sartzeko giltza eskuratu zuten frankistek. Baina Ignaziok ez zuen, bere batailoikideek bezala, Gijongo portua ikusi.

En las peñas de Mazurco tuvimos un combate muy bravo, me pegaron un balazo en el codo izquierdo, y un dolor parecía que me estaban metiendo un hierro rosiente. Llegué entre las lluvias de balas que sonaban al pasar pero el que se oía silbar ya pasó. Llegué así a la plana mayor. Me atendió enseguida un doctor y me pregunta si me dolía. Le dije que me parecía desde que tocó el brazo la bala que me parecía que me estaban metiendo un hierro rosiente, que es lo que sentía, y me puso una inyección y me salió un sudor en todo el cuerpo, y me calmó todo el dolor, ¡que alivio! Al rato me ayudaron hasta la primera carretera y tomé un vehículo a Santander, al Cántabro.

Al otro día a la sala de operaciones para cortar el brazo. Un doctor me preguntó: «¿Cómo estás? ¿Te duele mucho?». Le contesté nada, desde que me puso inyección el doctor que no sentía más el dolor. Le dije al compa-



Ignazio Argiñarena, Tolosako ospitalean (1937), gerrako zauritik osatzen. Goiko lerroan bosgarrena da, ezkerretik eskuinera ikusita.

ñero: «tenemos tanto trabajo que alguno tiene que quedar sin hacer» y me dijo «vete a la sala que te den desayuno y mañana veremos cómo se encuentra ese brazo». Así lo hice.

Al otro día me hicieron ir a la sala de operaciones. Me hicieron la misma pregunta, a ver si me dolía y le conteste lo mismo, que no me mandaron a desayunar. Al tercer día vencida se comprobó que tenía alivio la herida y así me quedé con el brazo. ¡Qué disparate hubieran hecho conmigo! Como el que hicieron con muchos, pero hecho está hecho con apuros, todo bien no se puede hacer.

De allí me trasladaron a Bilbao, y de allí a Tolosa donde estaba la novia. Me vino enseguida con mucha suerte. Nos vimos otra vez y al poco nos casamos. El día que caí herido fue el 14 de setiembre²¹.

GERRA OSTEKO ESTUTASUNAK

Obligazioz egin biarra
askotan egin zait tokatu,

²¹ *Autobiografía 1986.*

Besoa ausita bialdu niñuen
lare jua[n] nitzan konte[n]tu.
Olako lanik boluntarios
iñor ez dezala artu,
Denbora gutxin egondu nitzan
gorrik ein gendun pasatu²².

Gerra, beraz, bukatu zitzaion Ignaziori. Horri esker, 1937ko abuztuaren 8an, Fermin, lehenengo semearen jaiotzan egoteko modua izan zuen. Handik hogeï egun garrenean, Aleja erditzetik nahiko errekuperaturik zegoenean, Tolosan bertan ezkondu ziren. Ezkonberriek Tolosa hartu zuten bizitokizat, baina jakina denez, elbarri baten etxean ez zegoen ilusio handirik etorkizunerako. Eskuratuko al zuen inoiz Ignaziok berriro lehenagoko indarra eta mugimendua? Denbora eta pazientzia hartzea baino beste erremediorik ez zitzaion geratu horretarako.

Dos años me llevó poder atar botones con los dedos de esa mano. Me declararon como “inútil temporal”, por seis meses y luego otros seis meses más. Pero me tenían que empezar a pagar una indemnización. Entonces en la oficina, cuando empezamos el trámite yo dije que prefería rechazar la indemnización si me daban un trabajo que pudiera hacer, como cartero, portero o cosa parecida, sabiendo leer y escribir.

Y tal vez yo no estaría hoy aquí, si no hubiese actuado así. Porque entonces me dieron, enseguida, un trabajo de apuntador en el ferrocarril, al no tener un trabajo más que de pluma, en una cantera de piedra donde se cargaban trenes de treinta plataformas con piedra partida para arreglar las vías. Trescientos prisioneros y aparte más de cien jornaleros. Ese trabajo allá se llama “listero”²³.

Laster asko, bizitza berriaren egunerokotasunera ohitu ziren Argiñarenatarrak. Goizero, trenez bi orduko bidaia egiten zuen Ignaziok, Tolosatik Altsasura joateko, eta gero itzuli. Ezkonberriek, lasaitasun ekonomikoari eskerrak, familia handitzeari ekin zioten eta oso urte gutxiren buruan egin zuten.

²² Ik. 128 or.

²³ Ik. 19. oharra.



Argiñarenatarrak 1949an. Ezkerretik eskuinera: (1) Jesus, Aleja, Ignazio eta Maria Lourdes. (2) Fermin, Ramona Estefania eta Pedro.

A buscar más hijos; el Pedro nació el 29 de junio. Fuimos a vivir a Alsasua por no tener tan lejos el trabajo. Tercer hijo el 3 de agosto en el 40. Seguimos luchando. La guerra se terminó pero las cosas también. Tuvimos otro hijo el 26 de enero de 1942. Creíamos que serían bastantes pero vinieron dos más, pero los dos varones y dos nenas parecía que estábamos completo, pero nos nació otro varón el 3 de septiembre de 1947²⁴.

Dena den, Altsasuan bizi izanda ere, Ignaziori bizimodua ez zitzaion askorik aldatu. Lehengo bidaia astunei ihes egin ezinik jarraitzen zuen, nonbait. Hori bai, lantokia etxetik oso hurbil zeukan; baina gerra osteko Espainiara ez zen heldu, ez ogi zuririk, ez bakerik, ezta aberastasunik ere, erregimen berriaren propagandak alferrik aldarrikatzen zuen bezala. Europan ere gerra piztu zen, eta berarekin ekarri zituen eskasia eta gosea. 1941ekoa negurik krudelena izan zen. Dirua edukita ere, ez zegoen inon jateko zer erosirik. «De sueldo me pagaban seis pesetas más que al obrero, pero era una miseria. Yo ya tenía cinco hijos. Cuando vine aquí, ya no se podía encontrar ni de comer, las cosas valían mucho, el racionamiento no daba para nada y el sueldo era chico»²⁵. Estraperloaren urteak hasi ziren.

Buena cuadrilla para la vida que estaba en aquel tiempo. Ni con el dinero no se encontraban las cosas de comer. Como el tren tenía libre, yo me iba el día que tenía libre hasta Salamanca. De allí traía garbanzos, lentejas

²⁴ *Autobiografía 1996*.

²⁵ Ik. 19. oharra.

y harina y algún pan. Y otro sábado me iba a Cataluña en busca de aceite y azúcar. El día que no me quitaban los milicos ya le daba a los hijos de comer, pero el día que me quitaban me embromaban gastar dinero y sin cosas a casa. De esa manera vivimos en esos 12 años²⁶.

Gosea, beldurra, errepresioa, estraperloa... zalantzarik gabe, urte latzak izan ziren, bai, Argiñarenatarrek hainbat euskaldunek bezala pasatu zituztenak.

Bi illabete ogirik gabe
pasatu gendun Alsasun,
Alkate jaunak merezi zuan
erretzea bea labesun.
Erri guzia ogirik gabe
jaiean komenioa artzen zun.
Parroko jaunak jai batian
komuniok gabe utzi zun²⁷.



Ignazio Argiñarena eta Aleja Biurrun beren etxea izan zenaren aurrean. Altsasu, 1987.

²⁶ *Autobiografía 1986*. Ez zeukan iritzi onegirik estraperloaren kontra aritzen ziren indar publikoiei buruz. «Carabineros eran. De ellos y Guardia Civil hicieron de dos grupos uno. Ahí se estropeó todo. Guardia Civil eran hombres, pero Carabineros eran hombres vendidos, coimeros. Pues ahí andábamos y yo estaba tan cansado...» (Ik. 19. oharra). Izan ere, bere anaietako bat, Migel, Guardia Zibila zen ordurako.

²⁷ Ik. 129 or.

ATE IREKI BAT: URUGUAI

XIX. mendeko Montevideo hirian, euskal etorkin askok bizimodua ateratzeko oso bide errentagarria aurkitu zuten: esnegintza. Oro har, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, Uruguain eta baita Argentinan ere, jarduera horretan euskal herritar asko eta asko aritu ziren, ia-ia monopolioaren muge-taraino iritsi arte. Izan ere, bi nazio horietan *vasco lechero*-aren irudia oso erro-turik dago jendearengan eta hori Europatiko inmigrazioa oparoena izan zen garaietatik dator. Río de la Plata inguruko ia biztanle guztien artean uste zabala zen, inolako zalantzarik gabekoa gainera, euskal herritarrek naturaz esnegintzarako molde edo trebetasun berezia zutela. Gaur egun ere, nahiz eta aspaldian egoera asko aldatu den, irmo dirau irudi horrek.

Esnegintzarako ustiategirik arruntenak, lehenago esan dugun bezala, *tanboak* ziren. Ez da oraindik erabat argitu nondik datorren hitz hori; dirudie-nez jatorriz Peru aldeko ketxuatik dator, eta hizkuntza horretan familia baten beharrianak asetzeko adinekoa den nekazaritza lurzoru txikiari ematen dio izena. Argentinan eta Uruguain, ostera, esanahia apur bat egokitu egin zi-tzaion, eta abeltzaintza enpresa txikiei deitzeko hasi ziren izen hori erabil-tzen. Horretara, estantzia eta tanboa kontrajartzen ziren: estantziak oso hedadura handikoak ziren, hirietatik urrun, eta milaka abelburuko taldeak hazteko balio zuten, gero okela, artilea eta larruak ekoizteko; tanboak, aldiz, askotan ez ziren hektarea batera iristen, eta hirietatik hurbil zeuden, beraie-tan esnetarako abelburu batzuk baino ez ziren hazten. Helburua, azken fine-an, ez zen esnea kanpoko merkatuetan saltzea, hiritik gertuko merkatuak hornitzea baizik²⁸.

XX. mendearen hirugarren hamarkadarako, Montevideo hiria esnez eta esnekiz hornitzen zuten tanborik gehienak behinik behin, hiriaren udal-barrutian egoten ziren, hiribilduan bertan ez zeudenean. Hainbat arrazoi elkartzan ziren hori horrela izateko: hasteko, komunikabideen sarea orain-dik ez zegoen oso garaturik, batez ere trenbidea, eta hori urrutiko soroetatik esnea behar bezalako baldintzetan ekartzeko oztopo handia zen. Horrez gain, esnegintzak ez zuen erakargarritasun handirik Uruguaiako nekazarien artean. Bertako *criolloen* pentsamoldean, estantzietan zaldi gainean abeltalde

²⁸ MONCAUT, Carlos A.; «Recuerdos de tiempo de antes: tambos y vascos», *El Día*, 1958-III-2, La Plata (Argentina).

PUIGGRÓS, Rodolfo; *Historia Económica del Río de la Plata*, Buenos Aires, A. Peña Lillo Editor, 1966.

FERRERO, Roberto A. eta CRAVERO, B.F. Fermín; «El descubrimiento de la buena leche. Los comienzos de la industria lechera argentina», *Todo es Historia*, 198, Buenos Aires, 1982, 8-43 orr.

erraldoiak gidatzen zituenari gehiago irizten zitzaion, behi otzaren aurrean burua makurtzen zuenari baino; horrexegatik esnegintzarako tanbo gehienak, guztiak ez esatearren, atzerritarren eskuetan zeuden, euskaldunenetan gehienbat. Bukatzeko, ez dugu ahaztu behar hiriaren hazkunde demografiakoaren ondorioz, 1880tik aurrera hiribilduaren hedadura hirukoiztu egin zela, eta hasiera batean hiritik aldendurik zeuden tanboak eraikuntza berriez setiatuta geratu ziren.

Egitura ekonomikoaren aldaketak, hala ere, berrikuntzak eskatzen zizkion esne-ekoizpenaren atomizazio horri. Irtenbidea produktoreak elkar-teea izan zen. 1935ean, tanberoek beraiek bultzatuta eta Montevideoko *intendenciaren* (udalaren) babespean, nazio mailako elkarte bat sortu zuten: *Asociación Nacional de Productores de Leche*, eta honi loturik, enpresa eta marka berri bat: *Cooperativa Nacional de Productores de Leche*, Conaprole siglekin ezagunagoa izango zena. Hasieratik, kooperatiba berriaren helburu nagusia ustiategiak modernizatzea izan zen: hiribildutik kanpora atera ahalik eta tanbo gehienak, esnearen bilketan eta kontserbazioan higienizazioa bultzatzeko neurriak hartu, eta amaitzeko, esnearen kantitatea eta kalitatea gehitu. Ahalegin horretarako finantziazioa ere eskuratu zuten, besteak beste, Uruguaiako estatuak ekoizpenerako banatu zituen laguntzak eta *Banco de la República* lur berriak erosteko mailegu bigunak atera zituen. Uruguaiako hiriburuaren inguruan ehunen bat kilometroko erradio bat markatu zen, esnegintzarako eremu berria izateko asmoz; eremu horretara eraman zituzten esplotazio berriak lehenagokoak baino hedadura handiagokoak izan zitezela nahi izan zen. Abelburu gutxiko tanboak, abere talde ertaineko enpresa bihurtu ziren azkenean, eta ondorioz, esnearen ekoizpena oso azkar handitu zen²⁹.

Baina laster ahalegin honek guztiak oztopo handi bat izan zuen, eta lehenago aipatutako hiru faktoreetako bati ezin izan zitzaion aurre egin, izan ere, bertako jendea ez zegoen prest esnegintzarako tanbo berrituetan lan egiteko. Enpresa hauen aldatze eta handiagotzearekin ordura arteko kudeaketa sistema familiarra ez zen batere eraginkorra. Ordura arte etxeko besoak tanboa aurrera ateratzeko nahikoa baziren ere, aurrerantzean soldatapeko peoi eta langileak guttiz beharrezkoak izango ziren. Eta non topatuko eta Euskal Herrian topatu zituzten. Non bilatuko zituzten, bestela? Erantzuna begi-bis-

²⁹ AZCONA PASTOR, José Manuel; MURU RONDA, Fernando eta GARCÍA-ALBI GIL DE BIEDMA, Inés; *Historia de la Inmigración vasca al Uruguay en el siglo XX*, Montevideo, 1996.

takoa zen: esnegintzan munduko adituenak ziren aberrian. Uruguai, beraz, euskal inmigrazio berri bat berpizteko³⁰ beharrezana zuen.

1949an, Rafael Zabaleta nafarra zen *Asociación Nacional*eko zuzendaria. Bere agintepean, hain gogokoa zuten euskal inmigrazioari bultzada eman nahian, Uruguaiako Barne Ministroa zen Alberto Zubiriarekin harremanetan jarri zen; eta elkarrizketa honen berri, Montevideoko *La Plata* egunkariak eman zuen:

(..) hace algún tiempo miembros de la Asociación Nacional de Productores de Leche proyectaron la contratación de artesanos que por aptitudes físicas y por conocimientos de agricultura y lechería, pudiesen ser un aporte importante para el desarrollo de la industria lechera de nuestro país. Fue así que se optó por el elemento vasco, artesano aventajado en estos menesteres³¹.

Zabaleta bera ere zailtasun horiek eragindako estutasunak sufritzen zituenetako bat zen; tanbo eratu berria zuen Floridako departamentuko Berrondo deritzon eskualdean. Baziren hogeita hamabost urte Uruguaira heldu zela, eta harrezkero, esnegintzan aritu zen beti, azkenean bere enpresa ireki ahal izan zuen arte. Horrexegatik:

Esku indarraren beharrean, Euskal Herrira jo zuen Rafael Zabaletak Uruguain lan egiteko gizonetzko eta emakumetzko proposen bila. Hilabete eskas egin ondoren, Nafarroan bildu zituen 62 emakumetzko eta gizonetzko Uruguaira lanean joateko prest. Kontratuaren arabera, bi urteko epea *Asociación Nacional de Productores de Leche* erakundeko zenbait kideren etxaldeetan edo abeltzietan lanean eman ondoren, estatuaren eskutik naziotasuna eta etxea lortuz, Uruguain aurretik erabakitako soldatarekin lanean geratzeko eskaintzen zieten³².

Horrelako baldintzak sarritan erabili izan ziren aurreko hamarkadetan, Hego Amerikako estatuak inmigrazio talde antolatutako erakarri nahi izan zituztenean. Ez ziren, hala ere, guztiak langile hutsak, 62 lagun horien arte-

³⁰ Inmigrazio honen inguruan, ikusi: FERNÁNDEZ, Renée eta Danilo MAYTIA; «1949: Brazos vascos para tambos uruguayos», *Euskoneu&Media*, 194. zbk (2003/01/10-17), argitarapen elektronikoa eta IRUJO AMEZAGA, Xabier; *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*; Doktrordutza tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2004, argitara gabea.

³¹ «62 inmigrantes vascos», *El Plata*, Montevideo, 1949-XII-22.

³² IRUJO AMEZAGA, Xabier; *Euskal erbeste...*, 201 orr. eta «Emigrantes vascos al Uruguay», *Euzko Izpar Banatzea*, Paris, 677 (1950), 3. orr.

an baziren familia-taldeak, guztira 22 familia, eta horietako buruak izan ziren kontratatu zituztenak; gainontzekoak emazteak eta umeak izan ziren: «incluso 15 niños. Las edades de los matrimonios oscilan entre los 25 y los 35 años, y los solteros entre 17 y 28 años». Hauei guztiei:

(..) de acuerdo al contrato, por el término de dos años se les asegura trabajo, determinado salario y la comida. Los salarios han sido escrupulosamente estudiados y se puede decir que son, en general, altos. Al terminar el contrato cada uno de ellos quedará libre y puede optar por regresar o bien radicarse en nuestro medio³³.

Dei honi baietza eman ziotenen artean, Ignazio Argiñarena eta Aleja Biurrun zeuden hasieratik; handik gutxira, Migel Argiñarena anaia eta haren familia ere konbentzitu zituzten. Ez batzuek, ez besteek ez zuten ikusten etorkizun garbirik gerraosteko Nafarroan. Amerikak, aldiz, bazuen bi anaientzat aurreko belaunaldietan izan zuen erakargarritasuna; ez ziren, ez, Uruguaira emigratu zuten lehen errazkindarrak izango; lehenagotik ere, gurasoen ahotik entzuna zuten moduan, beste herrikide batzuek ere bide berari ekin zioten; esaterako, Fermina Peteati, 1909tik Salto hiri inguruan bizi zena.




Martin Boadas Errazkinera bidaian (1958). Fermina Peteati bere ama, errazkindarra zen.

³³ «Llegaron a nuestra capital 62 inmigrantes vascos», *Euskal Erria*, Montevideo, XXXVIII:963-964 (1950), 40 or.

Egun tristia izan gendun
despeidatutzian.
Negarra saltatutzen zait
akordatutzian.
Aita suaren onduan
ta arreba guatzian,
ija negarrez gaxuak
kasi urtu ziran³⁴.

Ignaziok eta Alejak etxeko altzari guztiak saldu behar izan zituzten, eta lortutako diru apurrekin, Altsasuko etxea utzi eta berehala, Irunerantz abiatu ziren, bertan biltzekoak zirelako espedizioan parte hartuko zuten guztiak. Irunen Migel eta bere familiarekin egin zuten bat; gero, trenez Pariseraino joan zen talde guztia, eta handik urriaren 28an El Havreko portura. Eguerdirako portuan zeuden, Uruguaira eraman behar zituen ontziaren aurrean.

Oetabos urte dira ingurun
gu onera giñan etorri.
Barku aundi bat Takoma izena
giñun onera ekarri³⁵.



Tacomaren bidea (azaroaren 9tik
abenduaren 21era arte).


Tacoma ontziaren historia xelebrea zen behinik behin, baina taldeko inork ez zion antzeman bertara igotzeko prest egon arren. 1939ko abenduaren 13tik 17ra Uruguaiako kostaldearen aurrean II. Mundu Gerrako lehendabiziko itsas-bataila handia izan zen, *Río de la Plata*ko bataila. Bertan Erresuma Batuko Erret Itsas Armadako *Exeter*, *Achilles* eta *Ajax* destruktoreek, alemaniako *Kriegsmarin*eren bandera-ontzia zen *Graf Spee* korazatua hondoratu zuten ehiza luzearen ostean. *Graf Spee* ontziak berarekin hainbat ontzi laguntzaile

³⁴ Ik. 71 or.

³⁵ Ik. 80 or.

eta hornitzaile zeramatzan, horien artean *Tacoma* bera. Guduaren ondorioa ikusita, Uruguaiako gobernua ontzi hauek guztiak konfiskatu eta bere zerbitzuplean jarri zituen³⁶. Horrela, euskal etorkin hauek ekartzeko, *Asociación Nacional*aren esanetara jarri zuen.

Azaroaren 9an, azkenean, ontzia portutik irten zen; baina ez zuen zuzenean Montevideorako bidea hartu, Kanadarakoa baizik. Bertan Argiñarenatarek Juan Medina makinari espainiarra ezagutu zuten, ontzian gora eta behe-
ra jolasean ibiltzen ziren umetxoek aurkeztuta. Uruguain finkatu eta gero, luzaroan adiskidetasun sendoa izan zuten. Ternuako Saint John's hiriko portu-
tuan, *Tacomak* Frantziatik zekarren liho pasta utzi eta patata-hazia hartu zuen; eta bertan egon ziren, harik eta abenduaren 2an berriro itsasoratu arte. Azke-
nean, abenduaren 21ean espedizioa Uruguaiako kostaldera heldu zen.



Tacomako euskal inmigranteak Montevideoko portura iristean.

³⁶ Erabaki honen atzean ere, bazegoen mendeku nahia. Oso denbora gutxiren buruan, itsaspeko ezezagun batek *Montevideo* merkantzia-ontzi uruguaitarra hondoratu zuenean, alemana izango ez ote zen susmoa zabaldu zen –urte asko geroago jakin zen *Tazzolo* italiarra izan zela erruduna-. Handik gutxira beste itsaspeko batek, alemana berau, *Maldonado* merkantzia-ontzia desegin zuen, nahiz eta Uruguai gerran sarturik egon ez. (BERTOCCHI, Alejandro N.; *Tacoma*, Montevideo, 1993). 1948an Uruguaiako Armadaren ontzi laguntzaile bihurtu zuten; eta Armadarako eta Estaturako salgaiak eramateaz gain, eskola-ontzia ere bazen. El Havretik Montevideorako txango honetan, beraz, patatekin eta kadeteekin batera banatu zuten euskal etorkinek ontzia.

Llegamos al amanecer y los tripulantes nos señalaban Carrasco y esto y aquello. Esa madrugada heló, hacía un frío enorme. Luego salimos caminando del puerto, hacia la Plaza Independencia, a la Casa donde estaba Zubiría. Unas niñas que venían con nosotros le obsequiaron unos ramilletes de flores. Fotos de esas que sacaron entonces, habrá por ahí y ahí fue que nos dijo que plantáramos un Gernika cada uno. Muchos no habrán entendido qué quiso decir. Pero yo, que estuve allí, sí entendí³⁸.

Harrera ohore handiz egin zieten espedizio kideei. Esan bezala, Alberto Zubiria ministroa bera ere portuan zegoen; handik zuzenean Gobernu-Etxera joan, eta bertan eman zuen hitzaldia. Zubiriak bere gurasoak gogoratu zituen, eta batik bat bere aita, Uruguaira aspaldi ezkutuko bidaiari gisa heldu zen etorkin euskalduna. Handik jarraigoa Euskal Erria euskal etxearen egoitzara zuzendu zen; bertan Conaprolek iritsi berriei bazkari ederra eskaini zien; eta han ere hitzaldiak bota zituzten, besteak beste, Rodolfo Gorriti euskal elkartearen zuzendariak eta Rafael Zabaletak. Atzean, itxaroten, euskal etorkinentzako lana eskaini zuten tanbojabeak zeuden. Postre garaian langileak banatu zituzten; eta nork norekin joan behar zuen argitu eta ostean, tanboak urruti zeudenez, azkar-azkar bilera amaitutzat jo zuten:

Contratados por Pascual J. Di Santi: Miguel Mutuverria Erasun y Félix Mutuverria Erasun.

Contratados por Rafael Zabaleta: Juan B. Zabaleta Cestau; Ramona Perurena de Zabaleta; Miguel A. Aspiroz Cestau; Francisca Zabaleta de Aspiroz; Saturnino Maya Echeverria; Julio Orradre Astibia; José M. Puy Abarzuza; María Carmen García de Puy y Teresa de Jesús Puy.

Contratados por Gordon y Cía.: Antonio Bidegaray Dendarieta.

Contratados por Veiga y Camarote: Nazario Larraburu Gastambide.

Contratados por Eulogio Dutra: José Martínez Moleres; Mercedes Burcaicea de Martínez; María M. Martínez Burcaicea; José A. Iraizos Aristizaba; Francisco Ciganda Ilarregui y Marcelino Ichazo Larrayoz.

Contratados por Diego R. Aldama: Joaquín Urdaniz Michelena; Francisco Calderón Recondo y Juliana Villabona de Calderón.

Contratados por Jorge Berti: Fernando Aristegui Iciaga; María C. Arburúa de Aristegui y Julia Aristegui Arburúa.

Contratados por Alejandro Bonilla: Ignacio Arguiñarena Ochotorena; Aleja Biurrún de Arguiñarena; Fermín, Pedro, Ramona, María Lourdes y Jesús Arguiñarena Biurrún.

³⁷ Montevideoko auzoa, aspaldian itsas-uretako balnearioa.

³⁸ Ik. 19. oharra.

Contratados por Rivera Rodríguez: Miguel Goñi Tellechea.
Contratados por Eleuterio P. Moneta: Miguel Arguiñarena; Estefanía Oreja de Arguiñarena; María Inés y Fermín Arguiñarena Oreja.
Contratados por Salvador Mezzano: Cirilo Goñi Iribarren.
Contratados por Martín Methol: Pedro Larraburu Gastambide.
Contratados por Luis Álvarez: Esteban Erasun Ochandorena y Antonio Gualbenzu Alcoz.
Contratados por Juan D. González: Juan José Villanueva Vicente.
Contratados por Juan Bide: Guillermo Oscoz Larralde; María Jesús Muñoa de Oscoz y Leandro Elisalde Ochandorena.
Contratados por Bartolo Perrone: Eleuterio Badostain Ripodas.
Contratados por Raúl B. Cuello: Ignacio Goñi Tellechea.
Contratados por Alfredo Facello: Lorenzo Gastesi Mariezcurrena.
Contratados por José G. Gonzatto: Félix Marcos Iraizos Eguras; Martina Aristizabal de Iraizos; María Ángeles Iraizos Aristizabal y Tomás de la Merces Liria.
Contratados por P. J. André: José Daroca Lizarraga; Sabina García de Daroca y María Elena Daroca García.
Contratados por José Meriggio: Pedro García Martínez y Dolores Amadoz de García.
Contratados por Orosmán Lopardo: Eugenio Gómez Solla; Felisa Daroca de Gómez y María del Carmen Gómez Daroca³⁹.

Oihartzun itzelarekin, eta esperantza are handiagorekin onartu zen euskal immigrazio hau, beraz. Baina handik gutxira, esperimentuak porrot egin zuen. Ignazio Argiñarenaren ustean, «Zabaleta metió gato por liebre, al formar el grupo ya que algunos venían con experiencia, pero otros muchos no»⁴⁰. Izan ere, esperientziarik gabekoen artean bera –eta baita bere anaia Migel ere– sartu behar ditugu. Alabaina, talde horretako kideen artean Argiñarenarrak izango ziren, ziur aski, ibilbiderik onena egin zutenak.

Fueron muy pocos realmente los que quedaron trabajando en los tambos próximos a Montevideo, otros, permanecieron en Uruguay pero se radicaron en la capital con otros oficios y muchos, frustrados con la experiencia, volvieron a su tierra. Algunos de aquellos que quedaron instalados con tambos propios han regresado a Navarra en los últimos años, aunque han quedado descendientes radicados acá.

³⁹ CONAPROLEren artxiboa. 1949ko abenduan heldu ziren euskal esnegileen errolda eta bana-keta.

⁴⁰ FERNÁNDEZ, Renée eta Danilo MAYTIA; «1949: Brazos vascos...», 2003.

Dado que el éxito logrado fue inferior al esperado, un segundo viaje programado no llegó a concretarse⁴¹.

Baina Ignazio, Migel eta beraien bi familientzat, aukera berri bat sortu zen, bizitza berri baten esperantza. Beste nazio bat, beste kontinente bat... suertea ere aldatuko ote zitzairen? Halaxe espero zuten behintzat.

MIGEL: IGNAZIOREN ANAIA, GUARDIA ZIBIL BERTSOZALEA

Baina aurrera jarraitu baino lehen, denboran iraganera egitea komeni zaigu une honetan. Izan ere, orain arte Ignazio Argiñarenaren bizitzaz eta gorabeheraz baino ez dugu jardun; baina haren anaia Migel ere ausartu zen Uruguaira joaten. Nor zen, ba, berau, eta zergatik jarraitu zion Ignaziori? Lehenengo galderari erantzuteko, ekar dezagun gogora Ignazio Argiñarenaren bertso hau:

Sei giñan senidiak
ta ni bosgarrena.
Ta gero Migel zala
etorri azkena.
Maria izan gendun
senide zarrena,
ta gero Antonio
zala biarrena,
Salome urrena,
Jesusa laugarrena.
Gure aita ta [a]ma
kunplitu zuena.
Famelie ederra
azi ginduela.⁴²

Familiako anaiarik gazteena genuen, beraz, Migel. Errazkinen jaioa zen, 1913ko abuztuaren 13an. Bere anaia bezala, oso etorkizun mugatua zuen gurasoen baserrian; 1934an soldaduska egitera deitu ziotenean, lanbidez *artzaina* zela adierazi zuen. Esan gabe doa etxeko artaldeak zaintzen

⁴¹ Ik. 40 oharra.

⁴² Ik. 85 or.



Migel Argiñarena soldaduzkan. Erdiko zaldiaren burutik eskuinetara bigarrena da.

izango zela. Ignaziori bezala, soldaduzkan sortu zitzaion bizitza bere kabuz irabazten hasteko grina. 1934ko abuztuaren lehenengoan militar bihurtu, eta handik urte bat eta bi hilabete eskasean lizentziatu egin zen, kabu graduazioa eskuratu. Baina askatasunak ez zion askorik iraun; Gerra Zibila piztu eta berehala, 1936ko abuztuaren 20an mobilizazio-deialdia jaso eta berriro espainiar armadan sartu zen. Gerra osoa mobilizaturik pasatu zuen, hainbat frontetan borrokan (Aguilar de Campoo, Asturiasko mendiak, Burgo de Osma), harik eta 1939ko abuztuan berriro lizentzia eman zioten arte. Migelek berak bertsoetan esaten duenez:



Estefania Oreja eta Migel Argiñarena.

Sasoia oberena,
nuan garaian.
Gerra zaigu agertu,
guri Españian.
Gose edarri zeinbat,
metrallan artian.
Bi erreal sueldua,
nuen egunian.

Iru urte ingurun,
bukatzean noski
lanikan ez nuan da,
ikusi naiz gaizki.
Lenengo itzalketa,
sartu naiz guardi.
Emen pasa nituan,
bost urte ta erdi⁴³.

Baina bakeak ez zuen, jakina denez, oparotasunik ekarri, ezta guda irabazi zutenekin batera borrokatu zutenentzat ere. Eta irtenbidea non eta milizian bertan topatzen saiatu zen. Horrela, 1941eko otsailaren 11n Guardia Zibilen kide egin zen; baina 1946ko otsailaren 17an, kidego horretan bost urte zeramatzala, familia-arazo larriengatik betiko lizentzia eskatu zuen Guardia Zibiletik irten ahal izateko, erreserbara pasatuta⁴⁴. Zenbait hilabetetan soldata erdia jaso zuen, legeak bost urteko zerbitzuengatik aitortzen zion



Migel Argiñarena, Fermin, Maria Ines eta Estefania Oreja.
Errazkin, Uruguaira joan baino zertxobait lehenago.

⁴³ Ik. 185 or.

⁴⁴ *Guardia Civil; Sección de Personal; 4º Negociado (Valdemoro)*; «Documentación del Guardia Civil Retirado ARGUIÑARENA OCHOTORENA, D. Miguel».

eskubidea baitzen; baina hortik aurrera, emaztea eta bi seme-alabekin, lehen-go ogibidera itzuli behar izan zuten, Uruguaira emigratzeko aukera eman zioten arte.

ISLA MALA: TANBERO BATEN AURRERABIDEAK

Dagoeneko esanda dagoen moduan, Euskal Errian egin zen harrera-bazkarian, euskal etorkin bakoitza patrioiarekin harremanetan jarri zuten. Kontratuak nahitaez bi urterako izan behar bazuen ere, oro har baldintzak ez ziren batere txarrak, batez ere diru aldetik. Soldatak, Nafarroan zeudenekin konparatuz, benetan ere onak ziren. Baina Ignazio Argiñarenaren bila etorri behar izan zuten tanberoa ez zen bazkarira agertu. Dirudienez, euskaldunen espedizioa gehiegi luzatu zen, eta ordurako ez zuten interesik heldu berrieta-tik inor kontratatzeko. Azkenean, *Asociación Nacional*ekoen prezioz, beste tanbero batek hartu zituen Ignazio eta bere familia, ordurako Ignazio gaztea ez zen arren (berrogei urteko gizon sendoa baizik), eta berarekin familia ugarria bazekarren ere.



Uruguaira joateko Argiñarenatreek erabili zuten pasaporte.

Bazkaria bukatu bezain laster, Bonillak Argiñarenatarrak Montevideoko tren-geltokira eraman zituen eta handik zuzenean bizitoki berrira. Uruguain ehunka kilometrotan populazio gutxiko zelai zabalak baino ez zituen zeharkatzen trenbideak, eta horrek Ignazio eta Aleja harrituta utzi zituen:

Bueno, la verdad es que cuando llegamos a Santa Lucía⁴⁵, con esas casas de paredes de barro y techos de paja. Huy, huy, huy, ya nos veníamos entristeciendo en el tren. Y esa primera noche, lloramos abrazados los dos. Cuando llegamos a Cardal, nos llevó a la casa. No al chalet que no era para nosotros. Eran dos galpones que tuvimos que limpiar para poder alojarnos. Estábamos tomando agua al costado del aljibe cuando llega la señora del patrón y le pregunta delante nuestro, si esos viejos eran los vascos. La patrona se me hizo ahí, tan grosera. Pero no podía decirle nada. Luego fueron siempre bien con nosotros, pero ella, siempre que podía...⁴⁶



Isla Mala. Alejandro Bonillaren tanboa.

⁴⁵ Canelones-eko departamentuko hiria, Montevideotik gertu.

⁴⁶ Ik. 19. oharra.

Presazko kontratazioa izanda, Bonillak ez zuen han geratzeko lekua prestatzeko betarik izan. Gau hartan bertan, tanboaren ondoan zegoen *galpón*⁴⁷ batean etxebizitza egun batetik bestera eraiki behar izan zuten, esku-
ra zeuzkaten baliabide apurrekin. Astetan, oherik ere ez zuten izan lo egi-
teko; Altsasutik ekarritako koltxoiak harriz eta zurez eginiko *catre*etan jarri
zizuten... Tokiaren izena ere ez zen oso erakargarria: *Isla Mala* zeritzon,
Floridako departamentuan. Ez zioten, ba, itxura onik hartu abentura
horren hasierari.

Amerikara etorri eta
emen gu nola gabiltzan,
lana fuerte egin biarra
orko pobriaren gisan.

Egun batian pensatu gendun
gu onera etorzia,
gure nazio maitagarria
alde batera utzia.
Izango zala lana gutxikin
aundia irabazia,
arrekin erraz erositzeko
gure jana ta janzia.

Gezurrik ez det batere esa[n] nai
egiak dauzkat bastante.
Pensatu ezkeroz ez genduen aisa
gu onera etorri arte.
Egun askotan ez degu izan
negarra oso aparte,
triste egunak pasatzeitugu
bat oroitzen dan arte.⁴⁸

Ignazio Isla Malan geratu zen, tanboaren arduradun eta, familiarentza-
ko etxebizitza eraikitzen hasteko. Bien bitartetan, Alejak eta seme-alabak Car-
dal herrian itxaron zioten. Isla Malan Ignazio bi peoirekin bizi zen galpon

⁴⁷ Horrela deitzen dira, Argentinan eta Uruguain, lantegirako edo biltegirako erabiltzen diren eraikuntzak.

⁴⁸ Ik. 66 or.

zaharrean; baina, ez ziren luzaroan egon elkarrekin, peoiek alde egin zuten eta. Antza denez, Ignaziok lan gehiegi egiten zuen, haiek nabarmen utzita. Bizimodu eta inguru berrira egokitzeak sortarazi zion harridura bertsoetan islatu zuen Ignaziok. Hain zuzen ere, Nafarroan utzitako familiari horren berri emateko idatzi zituen bertsoak. Emazte erdaldunarekin ezin euskararik egin; eta anaia oso urruti zeukanez, behiak izan ziren berpiztu zitzaion bertsoaletasunaren lekuko.

Hasierako une gogorrek gutxi izan ez eta, Uruguaira heldu eta hilabete batzuetara, Ignaziori gerra garaiko gaixotasun bat etorri zitzaion berriro ere. Larritasun handiko ebakuntza egiteko, Montevideora eraman behar izan zuten.

Así estuvimos hasta el 9 de abril⁴⁹. Yo tenía úlcera en el estómago; se me empeoró al no tener los remedios que tenía en España y la comida diferente. Ya pedí a España, pero tardaron mucho, y el médico me mandó al hospital Maciel y allí empezaron a sacar placas y vieron la cosa estaba brava y empezaron a preparar lavajes al estómago y otras cosas. Y llegamos el 8 de mayo ya a operar, 7 horas la operación. De la operación según salí bien pero me enfrié; tantas horas se me paralizó un pulmón que no podíamos respirar. El día 13 de mayo pasé muy mal. Tomaron precaución los médicos y me salvaron. Salí del hospital el 15 a una casa de un amigo, el 30 ya me vine al tambo⁵⁰.

Baina oraingo honetan zoria alde izan zuen. Hamarkada batean, Argiñarenatarren ekonomiak gorantz egin zuen nabarmen. Iritsi eta sei urtera, Bonillari Isla Malako tanboa erosteko adina diru aurreztu zuten, eta Bonillak berak ere horretarako erraztasunak eman zizkien.

Los hijos eran chicos todavía. Para ganar era yo solo, y me empezó a pagar 80 pesos al mes, con comida. Hoy parece una risa pero eran 33,33 dólar, y que hoy ganan 62,20 dólar, casi doble. Pero las cosas valen mucho más que entonces. Así estuvimos con ese patrón. Luego la Sra. empezó a cocinar y a mi me puso de encargado del personal, y los hijos ya empezaron a ayudar. A los 6 años me vendió el tambo para ir pagando en 8 años. Nos quedamos solos la familia. Ordeñábamos las vacas, tarde y de mañana. A los 5 años teníamos pagado, y compramos otro tambo cerca del nuestro⁵¹.

⁴⁹ 1950 urteaz ari da.

⁵⁰ *Autobiografía 1996*.

⁵¹ *Autobiografía 1986*.



Aleja Biurrun Isla Malan (c. 1955). Etxean ñandu batzuk hazi zituen.

Aurrerapauso horren lekuko izan ziren urrunean Nafarroako senideak. Ordurako elkarri bertsoak bidaltzen zizkieten berak eta Martin Oreja bere koinatuak, errazkindarra berau ere eta urte batzuk geroago Nafarroan bertsolari ezaguna izango zena. Ignaziok, koinatuaren bertsoen kalitatearen aurrean betiko umiltasunez, bizitzaren gorabeherak, asmoak eta lorpenak kontatzeari ekiten zion:



Fermin, Aleja, Jesus, Ignazio eta Pedro Isla Malako Bonillaren tanboaren aurrean. 1951.

Kostunbre gutxi neukan orduan
asteko emengo lanetan,
bañan atzera ez naiz gelditu
segitu nuan an bertan.
Sei urte antxen famelijakin
nolabait pasa nituan.



Ignazio Argiñarena Otsotorena (traktorearen gainean) bere iloba Ignazio-rekin.

Bera erosi egin nuan da
lana egin pagatu artian.

Beste bi tambo eosi nitun
ue pagatu ta gero.
Fameliakin la[n] egiñaz
pagatu gendun aguro.
Ori orrela eiteko batek
pasa bear amaika bero.
Urteak ola pasa nituen
baña ondo bizi naiz gero⁵².

Uruguain bizi zirela lehenengo hamarkada bete zenean, baikortasuna zen nagusi Ignazioren etxean. Seme-alabak osasuntsu ari ziren hazten, eta era berean, etxeko ondasunak ugaritzen. 1946an iloba bati, Ignazio Argiñarena Otamendiri, egin zion dei tanboan lan egitera joateko. Bere anaia Antonioren semea zen, Errazkingo baserriko primuarena, alegia⁵³. Berehala, seme bezala hartu zuen. Semeak tanboetako lanean aritzen ziren, bi alabak, ostera, gizarte-laguntzaile batek aholkatuta, Montevideora eramatea erabaki zuten, tanboko bizimodua ez zelako batere biguna eta egokia bi andereñoen heziketarako. Min handiz hala egin zuten, eta Maria Lourdes eta Ramo-

⁵² Ik. 110 or.

⁵³ Antonio Argiñarenak eta Martina Otamendik hamabost seme-alaba izan zituzten. Gazteenetako bi bertsolariak izan ziren, Jose Fermin eta Jose Migel, Ignazio Argiñarena Otamendiren anaiak. Bi horiek Ignazio Argiñarena Otsotorenarekin harreman estua izan zuten bertsoan.

na Almandoztar ahizpen etxeetara bidali zituzten. Horiek bi ahizpa nafar alargun ziren, Goizuetakoak; Montevideon eta Floridan bizi zirenak. Maria Lourdesek ez zuen askorik iraun Montevideon, eta berehala itzuli zen etxera; baina Ramona hamabost urtean bizi izan zen senideengandik aparte, noizean behin aitak negozio-bidaietan zebilela egiten zizkion bisitatxoak alde batera utzita.

Baina denboraren aurrera egitea saihestezina da; eta baziren urte batzuk Europatik umetan irteniko seme-alabek nerabetasuna igaro zutela. 1961eko azaroaren 25ean Maria Lourdes ezkondu egin zen, eta handik hilabete eta gutxira, abenduaren 28an, Pedrori heldu zitzaion txanda. Biok Uruguaiako bertako neska-mutilekin ezkondu ziren, Ruben Orivel Gervasini eta Gloria Mabel Bassinirekin. Aurreko hamarkadetako hainbat etxetan ikusi zen bezala, lehenengo belaunalditik bertatik kulturen arteko uztarketan edo mestizajeaz arazorik gabe sartu ziren euskal etorkinen seme-alabak.



Ignazio Argiñarena tanboan. Datarik gabe.

Cuando llevaba 5 meses pagando tuve que comprar otro porque se me casaban segundo hijo y segunda hija. El banco y Conaprole me dieron plata, o sea, en la misma forma, como el otro fui pagando mes a mes. Un sobrino ahijado mío que se llama igual que yo traje de España, hijo de mi hermano Antonio, ya un hijo más. Cuando compré el primer tambo ya este también se quería casar. Pues compré una casita en el pueblo 18,000 pesos y con arreglos 30,000, y le dejé la casa que nosotros vivíamos a éste y tenía que trabajar.

Yo compré una camioneta Opel usada, 16,000, y viajaba todos los días al tambo, en esa fecha les hice socios a los dos hijos, al yerno y este ahijado o hijo. Les regalé la mitad de lo que tenían, o sea, la mitad era de ellos en sociedad, yo era el que mandaba. Seguimos en cuatro años así, en ese tiempo compré otro tambito con campo y todo, y me dijo la señora: «¿por qué no lo habilitas cada uno con lo suyo, si no no aprenderán a manejar, que a ti te pase cualquier cosa, que ya no somos chiquilines». No me pareció mal la idea de la señora, y les dije y me contestaron que ya hacía, que ellos estaban de acuerdo⁵⁴.

⁵⁴ *Autobiografía 1996.*

Seme-alabek amaxoren hegalean babesetik alde egin ondoren, euren kabuz bizitzen hasi zirenean eta beharkizun ekonomiko guztiak asebeteta, 1962an Nafarroara itzuli ziren Ignazio eta Aleja, aspaldiko senideak eta familiarako kide berriak ikustera. Emigrazioa, dirudienez, errentagarria izan zen bikotearentzat, arlo pertsonalean zein materialean.

FAMILIAREN GORABEHERAK

Baina ordura arteko *paradisu posiblea*⁵⁵ amesgaizto bilakatzen hasi zen. Uruguai “Ameriketako Suitza” ezizenez ezagutzera heldu bazen ere, kontinente osoan ongizatearen, aberastasunaren eta egonkortasun politikoaren irudi izan zena, okerreko bidea hartzen hasi zen. Europatiko hainbat etorkin erakarri zuen nazioa makaltzen ari zen, oraindik bukatu ez den prozesu batean maldan behera erortzen hasi zen.

Egoera politikoaren eta ekonomikoaren txartzearekin batera, familiak lehenengo atsekabeak jasan zituen. Izan ere, 1971n Uruguako erregimen demokratikoa sekulako krisialdi batek jota zegoen, eta artean, *Tupamaro* talde ezkertiar-iraultzailearen ekintzak ere gero eta ausartagoak ziren. Horrela bada, militarrek estatu-kolpea jo zuten, eta horren ondorioz, ezarri berria zen diktadurapean, oposizioko talde guztien, eta batez ere gerrari tupamaroen kontra, errepresio izugarria antolatu zen. Orduan harri eta zur geratu ziren Argiñarenatarrek, hasiera batean *desagertutakoen* artean seme gazteena, Jesus, baitzegoen.

El más chiquito, Jesus, eligió estudio, y estaba en el cuarto de arquitectura. Parece que en aquel tiempo los políticos no andaban muy de acuerdo entre ellos. El gobierno, pues este parece que tomó parte en la cedi-
cion, y dio golpe militar, y estos cayeron prisioneros. Otro momento malo de mi vida fue ese. El trabajo nunca me asustó como esas cosas. Por las consecuencias pasamos con el hijo guardado. En 14 años tuvimos que estar. /4
También a su novia le tuvieron lo mismo, y que le asesinaron al padre que era cenador de la república, y a tantos⁵⁶.

Esan bezala, urtebetean Argiñarenatarrek ez zuten semearen berririk izan. Ofizialki desagerturik zegoen, nahiz eta denbora guztian legez kanpo

⁵⁵ AZCONA PASTOR, José Manuel; *Los paraísos posibles. Historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1992.

⁵⁶ *Autobiografía 1986*.

atxilotuentzat prestatu zen armadako kuartel militar batean preso egon. Elizarekin eta Espainiako enbaxadarekin hainbat gestio egin eta gero, azkenean desagertu zenetik urtebetera preso hartu zutelako albistea zabaldu zen eta, ondorioz, presondegia arrunt batera eraman zuten, Montevideoko *Punta Carretas* presondegia zaharrera, alegia.

Orrelakorik ez nun pentsatzen
emen nik ikusterik.
Kanpo jendia triste dabilta
ta danak daude arriturik.
Ta gerra bertan zer egingo dun
iñor eztaki oraindik.
Semia libre emango balit
alde [eg]ingo nuke emendik⁵⁷.

Baina hor ez ziren nahigabeak bukatu. Ignazio eta Aleja seme presoak ikus-tera Montevideora joan zirenean, beren bila joatekoa zen Pedro Argiñarena semea errepideko istripu batean hil zen, 1975eko martxoaren 13an.

Pedro falleció con 35 años en un accidente. Se volcaron en un camión. Él como todos los días cargó la leche al camión y subió en el prestado para alcanzar el ómnibus de línea, para seguir viaje a Montevideo, para reunirse con nosotros en ese día. Pues el destino estaría, el camino que hacía de recorrido todos los días, pues en ese día se volcó, y allí se fue su deceso. Nosotros en Montevideo esperando, y nos llegó esa linda noticia. En mi vida he pasado malos días pero de los peores, creo que era ese. Pero no había más remedio que aceptar. Contra la fuerza mayor no hay resistencia. Quedo la pobre señora, viuda con 32 años, con dos hijos un casal que hoy son, como digo arriba, el varón con 23 años y la hermana con 21 y siguen con el tambo⁵⁸.

1976an Migel Argiñarenaren emaztea ere zendu egin zen. Etsipenak jota, 1979an Nafarroan bere arreba Jesusa hil zitzaizola jakin zuenean, Ignaziok Europara bigarren aldiz itzultzea erabaki zuen. Haurtzaroko paisaiekin berriro elkartzeaz gain, turismo apur bat egiteko aprobetxatu zuen, eta batez ere *semea askatuko zutenean* Uruguaitik betiko alde egiteko modua baloratzeko; «y

⁵⁷ Ik. 84 or.

⁵⁸ *Autobiografía 1986*.

el hijo cuando cumplió la pena, todavía le echaron del país, como era nacido en España»⁵⁹. 1983an, ia hamalau urte preso egon ondoren, Jesus Argiñarenari Uruguaitik bizitza osorako deportazioa ezarri zioten, eta zuzenean presondegitik Carrascoko aireportura eraman zuen poliziak. Madrilerako hegazkinean Ignazio, aita, izan zuen lagun. Zenbait hilabetetan aita- semeak Errazkinen egon ziren: semea askatasunera eta ezagutzen ez zuen nazio batera berregokitzen⁶⁰; aita, berriz, eginiko agindua bete behar ote zuen erabakitzen. Izan ere, 1981 urterako Isla Malako tanboko behi guztiak enkante publikoan salduta zituen.

Baina ez, azkenean ez zen Nafarroara itzuli. Nafarroan iragana baino ez du; Uruguain, aldiz, zabaldu eta ugaldtu den hazia. Heldu eta handik hogei ta hamalau urtera, Isla Malako etxea *bere* benetako etxea da. Semea eta familia agurtzearekin batera, betiko agurtu zuen Errazkin.



⁵⁹ Ibidem.


⁶⁰ Ez zuen, hala ere, denbora gehiegi pasatu Nafarroan. «Por fin se cambió el régimen, y pudo venir a Uruguay, de vuelta, y la novia fue una amnistía al cambiar gobierno. Liberaron a todos los políticos, y así se casaron y viven en la ciudad» *Autobiografía 1986*. 2002tik aurrera irakaslea da Montevideoko *Universidad de la República*ko Arkitektura Fakultatean (Iturria: <http://www.farq.edu.uy/estructura/administracion/consejo/SESIONES/041202.htm> eta http://www.farq.edu.uy/estructura/administracion/consejo/SESIONES/2004/03_24.htm, 2004ko uztailearen 16an kontsultatuta).

AZKEN URTEAK

Baina Ignaziori, Euskal Herria betiko agurtuagatik, ez zitzaion euskaltasuna joan. Alderantziz, azken urteotan euskal kulturarekiko, eta batez ere euskararekiko atxikimendua are gehiago suspertu zitzaion. Uruguaiko diktaduraren erortzearekin, aldaketari atea ireki zitzaion herrian, eta horrekin, esperantza ere zertxobait piztu zen.

Ez gera gaizki bizi
Jaunari graziak,
bañan gu bezela ez daude
oraindik guziak.
Orain bialtzen ditugu
militar guziak,
txarrak utzi dizkigute
eraindako aziak⁶¹.

Isla Mala oso toki isolatua zen, edozein hiri populatutik urrutiegi zegoena. Tanboetako ardura guztia Ignazioren sorbalda gainean zegoenean, lanak ez zion denbora askorik uzten. Hala ere, hirurogeita hamar urterekin, merezitako atseden hartu zuenean, denbora besterik ez zeukan. Etxean urtetan bidalitako eta jasotako bertsoak biltzeari ekin zion; eta bertso berri gehiago ere idatzi zituen. Ordurako Uruguaiko senideek ulertzen ez zuten hizkuntza batean –bertsogintzaren lehen pausoetan entzun zuten behiak ere aspaldian joanak ziren–, Euskal Herrira begira idazten du. Montevideoko, 25 de Mayoko,



Aizkolari proba 25 de Mayo-n. Ignazio Argiñarena eta Martin Erasun, biak nafarrak.

⁶¹ Ik. 97 or.

Floridako... euskal etxeekin harremanetan hasi eta beste euskaldunekin bil-tzen zenean nahiz musean, nahiz dantzan, nahiz beste edozertan, euskaraz ziharduen. Eta 1993an, Argentinako Mar del Plata hirian euskal aste erral-doia egin zutenean, han izan zen bertsoak kantatzen⁶². Urte horretan bertan, bere bizitzako gorabeherei buruzko elkarrizketak egin zizkioten; horien artean Euskal Irrati Telebistako Josefina Txurruka kazetariak egin ziona.



Ignazio eta Migel Argiñarena Montevideoko *Centro Euskaro Español*-aren mus lehiaketa-
tan pare hartzen. Datarik gabe.

Ignazio Argiñarenak azken urteak Isla Malan pasatu zituen Aleja Biurru-
nen laguntzarekin eta bertan hil zen 1997ko otsailaren 21ean.

⁶² Felipe Araña Mendiñueta apaiz eta kanonigo laterandar nafarrak, orduko euskal jai horretan ezagutu omen zuen Ignazio Argiñarena. Berarekin euskaraz jardun zuen, eta dirudienez hainbat bertso ere bidali zion, nahiz eta tamalez ez dituen gorde. (Elkarrizketa, Erreterria, 2004ko urtarrilaren 23a).

2. Bertsoak

IGNACIO ARGIÑARENAK JARRIAK

50eko hamarkada

BERTSO BERRIAK JARTZERA NUA (1950)¹

1
Bertso berriak jartzera² nua
nere³ lenengo izkuntzan⁴,
gure bizia nolakua dan
jendiak jakindu dezan.
Amerikara etorri eta
emen gu nola gabiltzan⁵,
lana fuerte egin biarra
orko pobriaren gisan.

2
Egun batian pensatu gendun
gu onera etortzia⁶,
gure Nazio maitagarria
alde batera utzia⁷.
Izango zala lana gutxikin⁸
aundia irabazia⁹,
arrekin erraz erositzeko
gure jana ta janzia¹⁰.

¹ Bertso sail hau orri solteetako baten dagoen arren beste bertsio bi ditu, bata Borrador Kua-
dernoan (BK) eta bestea Cuaderno Uruguayn (CU). Hala ere, azken hori ez dago osorik.
Seitik hamabira arteko ahapaldiak *Fameliari eta lagunari*, *Martin Orejari* bertso sailean errepika-
tuta daude (ik. 69-70 or).

² BKn eta CUn *jarzera*.

³ *Ibidem gure*.

⁴ BKn *izkuntzan*.

⁵ *Ibidem gabiltzan*.

⁶ BKn eta CUn *etortzia*.

⁷ *Ibidem utzija*.

⁸ *Ibidem gutxi ta*.

⁹ BKn *irabazija aundia*; CUn *aundia irabazija*.

¹⁰ BKn *janzija*; CUn *jantzija*.

3

Gezurrik ez det batere esa[n] nai
egiak dauzkat bastante¹¹.
Pensatu ezkeroz ez genduen¹² aisa
gu onera etorri arte.
Egun askotan ez degu izan
negarra oso aparte,
triste egunak pasatzeitugu¹³
bat oroitzen dan arte¹⁴.

4

Gure erritik¹⁵ atera giñan
aorran oita¹⁶ zorzian,
eta lenengo Nazio¹⁷ zan
pasatu giñan Franzian.
Gero berrogei egun pasiak
pasatu giñun¹⁸ onzian¹⁹,
geroko pensamentu onakin
guztia paziengan.

5

Abenduaren oeta²⁰ batian
ontzitik²¹ giñan atera.
Bazkari on bat eitia danok
juan giñan Euskalerrira.
Bazkari ori bukatutzian²²
bakoitza²³ bere²⁴ tokira.
Geroztik emen bizi gerala²⁵
animalin²⁶ antzera.

6

Allegatu ta lenengo lana
joan²⁷ giñan beiek jeztera²⁸.
Ofizi[o]²⁹ ontan ondo jartzen³⁰ da
etortzen dana gaztia.
Neure berrogei obeak daude³¹
asteko baña uztea³²,
utzita nola mantenduitut³³
umiak eta³⁴ emaztia.

¹¹ BKn eta CUn *sobrante*.

¹² *Ibidem geunden*.

¹³ *Pasatzeitugu*: Pasatzen ditugu.

¹⁴ BKn eta CUn *España oroitzen dan arte*.

¹⁵ *Ibidem Españütikan*.

¹⁶ *Ibidem oeta*.

¹⁷ *Ibidem nazijua*.

¹⁸ *Ibidem gendun*.

¹⁹ BKn *onzijan*; CUn *ontzian*.

²⁰ CUn *oita*.

²¹ BKn *ontzitik*.

²² CUn *bukatu eta*.

²³ BKn eta CUn *bakoiza*.

²⁴ BKn *beren*; CUn *beran*.

²⁵ BKn eta CUn *gerade*.

²⁶ *Ibidem animalaren*.

²⁷ BKn *juan*.

²⁸ *Ibidem jeztea*.

²⁹ *Ibidem ofzijo*.

³⁰ *Ibidem jarzen*.

³¹ *Ibidem dira*.

³² BKn *astia baño uzta*.

³³ *Ibidem biatut mantendu*.

Mantenduitut: Mantendu ditut.

³⁴ BKn *semiak ta*.

7

Guztia gaizki itz³⁵ egitia
ez dala³⁶ gauza bikaña,
irabazia³⁷ badadukagu
orko bi gizonek aña.
Esne ta ogia badaduzkagu
zurie eta bikaña,
aragi ederra jan nai dunantzat
komeni zaijon³⁸ aña.

8

«Osasun ona dadukanantzat³⁹
goserik emen ez dago»,
ori aitua akordatze[n] naiz
etorri baño lenago.
Ori orrela egonagatik
gusto guztia⁴⁰ ez dago,
akostunbratu artin⁴¹ beintzat
ni oso gustora ez nago.

9

Emengo etxiak tristiak dira
begiratutzen jarrita,
bat nola ez du tristetu biar
oiek ola ikusita.

Arririk gabe egiñak daude
lasto ta lurrez⁴² nastuta,
egurra gutxi, lastoz legorra
tellerik emen ez da ta⁴³.

10

Kristau legia nola dagan
piska bat nai nuke esan:
Lau edo bos gizon izaten gera⁴⁴
guztiok jaieko mezan.
Eleizak txikik izanagatik
gureztat tokia bazan,
konfesio ta apaiz konturik
ez jende oneri esan.

11

Aste batian irabazia⁴⁵
bestian dute gatatzen,
emengo jende geienak⁴⁶
ola dirade bizitzen.
Gero sekulan faltako danik
ez dirate akordatzen,
ospitalera juan biarra
iñoiz badira gaizkitzen.

³⁵ *Ibidem iz.*

³⁶ *Ibidem da.*

³⁷ *Ibidem irabazija.*

³⁸ *Ibidem zaion.*

³⁹ *Ibidem dadukanantzat.*

⁴⁰ *Ibidem guztija.*

⁴¹ *Ibidem artian.*

⁴² *Ibidem lurak.*

⁴³ *Ibidem tellerikan ez du ta.*

⁴⁴ *Ibidem gira.*

⁴⁵ *Ibidem irabazija.*

⁴⁶ *Ibidem emengo jende klase geiena.*

Onekin bada bukatu biat⁴⁷
 au da amabigarrena.
 Neure bizian⁴⁸ bertso ok⁴⁹ dira
 jarzeitutela⁵⁰ aurrena.

Euskalerrian⁵¹ noiz ikusikot⁵²
 neure burua urrena.
 Adios nere adiskidiak⁵³
 neure aita ta ama aurrena⁵⁴.

⁴⁷ *Biat*: Behar dut.

⁴⁸ BKñ *bizijan*.

⁴⁹ *Ibidem berso ok*.

⁵⁰ *Ibidem jarzeitutela*.

⁵¹ *Ibidem Españían nik*.

⁵² *Ikusikot*: Ikusiko dut.

⁵³ BKñ *adios ene adiskidiak ta*.

⁵⁴ *Ibidem aita ta ama aurrena*.

FAMELIARI ETA LAGUNARI; MARTIN OREJARI (1950)⁵⁵

1

Pensamentua artu det orain
berso batzuek jartzeko,
emengo gure notizi danak
zueri esplikatzeko.
Abildadia eskas dadukat
zuk bezin ondo jartzeko,
gure Jainkuak ez baizun eman
igual danantzako.

2

Zurian bueltak jartzeko daukat
propositua egiña,
ezin lezake ondo esplikatu
gutxi dakien mingaña.
Zeruko aitan laguntzarekin
egingo det alegiña,
argitasuna bial zaidazu
zeruko Ama Birjiña.

3

Esaten dezu jartzeko ordañak
baldin merezi badezu,
satisfazio aundigokorik
netzat bialduko ez dezu.
Bear bezela puntu guziak
ederki ukitu dituzu,
ongi egiña damuik ez izan
Jainkuak patuko dizu.

4

Gustora asko kantatu gendun
gu bi anaian artian.
Askotan pena sentitzen degu
famelitik apartian.
Alaitzen gera rato batian
zure bersuak leitzian,
iruditzen zait gaudela antxen
euskaldun danen artian.

5

Egun bei dauzkat neure kontura
eunian bi aldiz jezteko,
bi peon eta bi seme txiki
neori lagundutzeko,
beatzieun litro konpromisua
eunian ateatzeko.
Ondo kuidatu biarra beiek
ori ez galdutzeko.

6

Allegatu ta lenengo lana
juan giñan beiek jeztea.
Ofizio ontan ondo jarzen da
etorzen dana gaztia.
Neure berrogei obeak dira
astia baña uztia,
utzita nola mantendu biatut⁵⁶
umiak eta emaztia.

⁵⁵CU.

Pensamentua artu det orain bertso sortan lehenengo bost ahapaldiak eta *Bertso berriak jartzera noa* izenekoa seigarrenetik aurrerakoak errepikatu egiten dira. Ik. 73-75 eta 65-68 or.

⁵⁶ *Biatut*: Behar ditut.

7

Guztia gazki iz egitia
ez dala gauza bikaña,
irabazia badadukagu
orko bi gizonek aña.
Esne ta obia badaduzkagu
zurie eta bikaña,
aragi ederra ja[n] nai dunanzat
komeni zaion aña.

8

«Osasun ona dadukanantzat
goserik emen ez dago».
ori aitua akordatze[n] naiz
etorri bañan lenago.
Ori orrela egonagatik
gusto guztia ez dago,
akostunbratu artian beinzat
ni oso gustora ez nago.

9

Emengo etxiak tristiak dira
begiratutzen jarrita,
bat nola ez du tristetu biar
oiek ola ikusita.
Arririk gabe egiñak daude
lasto ta lurra nastuta,
egurra gutxi, lastoz legorra
tellerikan ez du ta.

10

Kristau legia nola daguan
piska bat nai nuke esan:
Lau [ed]o bost gizon izaten gera
guztiak jaieko mezan.
Eleizak txikik izanagatik
gureztat tokie bazan,
konfesio ta apaiz konturik
ez jende oneri esan.

11

Aste batian irabazia
bestian dute gastatzen,
emengo jende geienak
ola dirade bizitzen.
Gero sekulan faltako danik
ez dirade akordatzen,
ospitalera jua biarra
iñoiz badira gaizkitzen.

12

Onekin bada bukatu biat
au da amabigarrena.
Neure bizian berso ok dira
jarzeitutela⁵⁷ aurrena.
Españian nik noiz ikusikot
neure burua urrena.
Adios neure adiskidiak
neure aita ta ama aurrena.

⁵⁷ *Jarzeitutela*: Jartzen ditudala.

ARREBARI (1952)⁵⁸

1

Españian utzia
arreba bat badet,
arrei berso bi jartzia⁵⁹
orain pensatu det.
Barkazio eskatzen diot
ofenditzen badet⁶⁰,
ez nuke faltatzerik nai
iñondik al badet.

2

Iru ditut arrebak
Españin utziak⁶¹.
Zarrenantzat pensatu det
berso ok jartzia⁶².
Gaxuak etzuen⁶³ nai
ni onera etortzia⁶⁴.
Bera bezela naizun ni
Españin zarzia⁶⁵.

3

Egun tristia izan gendun
despeidatutzian⁶⁶.
Negarra saltatutzen zait⁶⁷
akordatutzian.
Aita suaren⁶⁸ onduan
ta arreba guatzian,
ija negarrez gaxuak
kasi urtu ziran.

4

Ori goguan degula
ezin leike bizi.
Oiek danak egin biar
alde batera utzi.
Al degun alaienak
mundu ontan bizi,
iltzen geranian danak
biar ditugu utzi.

⁵⁸ CU. Beste bertsio bat dago BKn.

Betsoon azkenean idatzita dagoenez, 1952ko ekainekoak dira.

⁵⁹ BKn *jarzia*.

⁶⁰ Ibidem *Barkazioa eskatzen / diot ofenditzen badet*.

⁶¹ Ibidem *utzijak*.

⁶² Ibidem *jartzija*.

⁶³ Ibidem *etzuan*.

⁶⁴ Ibidem *etortzija*.

⁶⁵ Ibidem *zarzija*.

⁶⁶ Ibidem *despeditututzian*.

⁶⁷ Ibidem *zat*.

⁶⁸ Ibidem *subaren*.

5

Orain esan biar det
zure edadia⁶⁹,
berrogeita amabi urte
aurten bete biar⁷⁰.

Illa eta eguna
uztan oita bian⁷¹.
Deseatutzen⁷² dizut
ondo pasatzia⁷³.

6

Felizitutzen zaitut
famelin⁷⁴ partetik,
bertago ezin da ta
bastante urrutitik.
Desejatutzen dizugu
bijoz biotzetik,
Jaunak konserba zaizula
gaiz guztietatik.

7

Amaika rato goxo
pasatu genduan,
gabeko amabiek arte
subaren onduan⁷⁵.

Jeneral Pazkuak eta
fiestak ta abenduan.
Urtian⁷⁶ bisita oiek
seguro nituan.

8

Neskazar batendako
badira bastante,
onekin despeitzen zaitut
nik lenengo arte.
Nai nuke nik emaitia
besarka bat fuerte,
beintzat ez naiz aztuko
bizi naizen arte.

9

Onekin bukatutzen det
neure arreba Mari.
Gaizki jarriak badaude⁷⁷
ez esan ñori.
Aita eta ama
fameli⁷⁸ danari,
Jainkoak⁷⁹ zabaldu zala
grazia⁸⁰ ugari.

⁶⁹ Ibidem *edadija*.

⁷⁰ Ibidem *bijar*.

⁷¹ Ibidem *bija*.

⁷² Ibidem *desejatutzen*.

⁷³ Ibidem *pasatzija*.

⁷⁴ Ibidem *familijan*.

⁷⁵ Ibidem *gabeko amabijek arte / subaren onduan*.

⁷⁶ Ibidem *urtean*.

⁷⁷ Ibidem *daude ta*.

⁷⁸ Ibidem *famili*.

⁷⁹ Ibidem *Jainkuak*.

⁸⁰ Ibidem *grazija*.

PENSAMENTUA ARTU DET ORAIN (1952)⁸¹

1

Pensamentua artu det orain
berso batzuek jarzeko,
emengo gure notizi danak
zueri esplikatzeko.
Abildadia eskas dadukat
zuk bezin ondo jarzeko,
gure Jainkuak ez baitzun eman
igual danentzako.

2

Zurian bueltak jartzeko daukat
proposituba egiña,
ezin lezake ondo esplikatu
gutxi dakien mingaña.
Zeruko aitan lagunzarekin
egingo det alegiña,
argitasuna bial zaidazu
zeruko Ama Birjiña.

3

Esaten dezu jartzeko ordañak
baldin merezi badezu,
satisfazijo andigokorik
netzat bialduko ez dezu.
Bear bezela puntu guzajak
ederki ukitu dituzu,
ongi egiña damuik ez izan
Jainkuak patuko dizu.

4

Gustora asko kantatu gendun
gu bi anaien artian.
Askotan pena sentitzen degu
familiarik apartian.
Alaitzen gera rato batian
zure bersuak leitzian,
iruditzen da gaudela antxen
euskaldun danen artian.

5

Gure bizija⁸² nolakua dan
astia nua esplikatzen,
Jainkuai grazik seme txikiak
asi zaizkit ia laguntzen⁸³.
Apuro aundiak pasa nituen
orain a[r]i naiz sosegatzen⁸⁴,
mundu onetan txar da on danak
guztiak dira tokatzen⁸⁵.

6

Gerra denboran esposatu ta
asi giñaden bizitzen,
gau ta egun fuerte lana eginda⁸⁶
semiak ein da azitzen.
Nezesidade aundiarekin
beti zerbaitxo erosten,
garai arretan onera etortzia⁸⁷
asko ezkendun pensatzen.

⁸¹ BK. Lehenengo lau bertsoak eta bederatzigarrena *Fameliari eta lagunari*, *Martin Orejari* izenekoan (ik. 69-70 or.) errepikatzen dira eta beste guztiak CUko bertsoian. Sortaren azkenean agertzen denez, 1952ko urriaren 12koa da.

⁸² CUn *bizia*.

⁸³ *Ibidem asi zaizkit laguntzen*.

⁸⁴ *Ibidem soseatzen*.

⁸⁵ *Ibidem pasatzen*.

⁸⁶ *Ibidem egiten*.

⁸⁷ *Ibidem etortzia*.

7

Etxeko gauzak merke utzita
 giñan onera etorri.
 Nai izan arren gauza guziak
 ezin zitezken ekarri.
 Berriro emen erosi biar
 tokatu zitzaidan neri.
 Istillu gorrik pasatu arren
 eskerrak gaur Jainkoari.

8

Emengo lana or nuaneti⁸⁸
 dadukat diferentia.
 Gaubeko amabietan jekita⁸⁹
 juate[n] naiz beiek jeztea⁹⁰.
 Gero laueta desaiionatu⁹¹
 juate[n] naiz berriz loitia⁹²,
 beatzitan jeki linpieza egin
 amaiketan bazkaitia⁹³.

9

Egun bei dauzkat neure kontu
 eunian bi aldiz jezteko,
 bi peon eta bi seme txiki
 neri lagundutzeko,
 beatziegun litro konpromisua
 eunian ateatzeko.
 Ondo kuidatu biarra beiek
 ori ez galdutzeko.

⁸⁸ Ibidem *nuanetik*.

⁸⁹ Ibidem *jekita*.

⁹⁰ Ibidem *jeztia*.

⁹¹ Ibidem *desaiionatu*.

⁹² Ibidem *lo eitera*.

⁹³ Ibidem *bazkaitera*.

⁹⁴ Ibidem *daukat*.

⁹⁵ Ibidem *irabazia*.

⁹⁶ Ibidem *lau*.

⁹⁷ *Esateutenez*: Esaten dutenez.

⁹⁸ CUn *guzia*.

⁹⁹ Ibidem *guzia*.

10

Ori orrela eginda daukagu⁹⁴
 irabazija⁹⁵ polita,
 bi⁹⁶ milla pezta illian sobra
 jan da ean lasai eginda.
 Orkoaz asko akordatze[n] naiz
 au orrela ikusita,
 etxea gauzak ezin ekarriz
 naiz ederki pagatuta.

11

Esateutenez⁹⁷ gaur España
 arreglatu da bastante,
 diruarekin daukazutela
 gauza guztia⁹⁸ sobrante.
 Etzan olako aukera asko
 gu onera etorri arte,
junta de abasto eta fiskalia
 gauz onik ez jendu [sic] arte.

12

Olako gauzik emen ez dago,
 libertadia danenzat,
 gauza guzija⁹⁹ libre dagola
 lana egiten dunantzat.
 Leurrian lana oso ona da
 osasuna onantzat,
 bañan askotan geisko ein biar
 izaten dala guretzat.

13

Esaten dezu neure bersuak
ija pasata daudela,
askotan gutaz akordatzeko
serbitu izan zutela.
Naiko tristiak jarriak ziran
onera etorri ta bela.
Diru ta osasun gauz guztiaz
gaur askoz obeto gaudela.

14

Neure aita-amak enkargatua
garbi ta klaro dijozu¹⁰⁰
Jesukristoren dotriña umiai
ondo erakutsi dijezu¹⁰¹.
Obligaziju au ondo beteta
zerun ekusi nai nazu,
grazi au bera neure partetik
Jaunak emango al dizu.

15

Sekulan gaizki ez det ikusten
ondo inor erakutsija,
gaur mundu ontan nai izan arren
asko dago malezija.
Seme askok gaur ez dute egi[n] nai
gurasuak erakutsija.
Ortikan dator gaurko egunian
askorenzat desgrazija.

16

Gure euskera galdu ez dedin
egin zagon¹⁰² alegiña,
iz egin gabe egon ezkeroz¹⁰³
torpetutzen da mingaña.
Askotan emen ez degu izaten
norekin iz egiña,
bañan ala ere ezat aztuko
lenengo izkuntza bikaña.

17

Au da amazpigarren bersua
egiten dizut kantatu,
notizi asko berso gutxitan
ezin leiteke pagatu.
Gusto badezu famili¹⁰⁴ artian
egin ditzazu kantatu,
bijotzetikan¹⁰⁵ eskatzen dizut
gaizki ein badet barkatu.

18

Neure laguna ta famelija¹⁰⁶
Errazkindar danakin¹⁰⁷,
pakia beti izan dedilla
lagunduaz alkarrekin.
Ezertan serbitu albadezaket¹⁰⁸
kontatu zure launakin.
Adios danok beste bat arte
bukatutzen det onekin.

¹⁰⁰ *Ibidem diozu.*

¹⁰¹ *Ibidem diezu.*

¹⁰² *Ibidem zaigun.*

¹⁰³ *Ibidem ezkeru.*

¹⁰⁴ *Ibidem lagun.*

¹⁰⁵ *Ibidem biotzetikan.*

¹⁰⁶ *Ibidem famelia.*

¹⁰⁷ *Ibidem danokin.*

¹⁰⁸ *Ibidem albanazake.*

NEURE LAGUNAK AMERIKATIK (1952)¹⁰⁹

1

Neure lagunak Amerikatik
berso bat bijat¹¹⁰ kantatu,
esanez danok egin ziñaten
neurekin ondo portatu.
Barkazijua¹¹¹ eskatuzen¹¹² det
iñoi ein banun faltatu,
eta orain neure bizija¹¹³
egin biaizuet¹¹⁴ kontatu.

2

Milla beatziegun urte pasata
berrogaita beatzigarren urtian,
Españitikan atera giñan
aorran oita zortzian.
Lendabiziko naziua zan
pasatu giñan Franzian,
Abre izena zaion puertuan
sartua itsasontzian.

3

Egun batzuek an pasa eta
giñan¹¹⁵ onera allegatu.
Nere ustian Nazio ona
ein zaigu¹¹⁶ tokatu.
Nunai jendiak badira eta
ondo dirade portatu.
Kanbiatutzen ezpadirade
ni okin bizi naiz kontentu.

4

Emengo lana orkoetatik
dadukat diferentia,
gaubeko amabietan jekita
juate[n]¹¹⁷ naiz beiek jezitia¹¹⁸.
Gero laueta desaiionatu¹¹⁹
eta berriz lo egitera¹²⁰.
Beatzitan jeki, linpieza egin,
amaiketan bazkaitera.

¹⁰⁹ BK. CUko bertso sorta pare baten hemengo ahapaldi guztiak errepikatu egiten dira. Horrez gain honako biak daude:

Egun batian pensatu gendun
guk onera etorzia.
Gure nazio maitagarria
alde batera utzia.

Izango zala lana gutxi ta
aundia irabazia.

Arrekin erraz erositzeko
gure jana ta jantzia.

¹¹⁰ *Bijat*: Behar dut.

¹¹¹ CUn *barkaziua*.

¹¹² *Ibidem eskatutzen*.

¹¹³ *Ibidem bizia*.

¹¹⁴ *Biaizuet*: Behar dizuet.

¹¹⁵ CUn *ein giñan*.

¹¹⁶ *Ibidem zaigula*.

¹¹⁷ *Ibidem joaten*.

¹¹⁸ *Ibidem jeztea*.

¹¹⁹ *Ibidem desaiionatu*.

¹²⁰ *Ibidem eitera*.

Españitikan atera giñan
Aorran oita zortzian.
Lendabiziko nazio zan
pasatu giñan Franzian.
Gero berrogei egun pasiak
pasatu gendun ontzian.
Geroko esperantza onakin
Guztia pazientzian.

5

Egun bei dauzkat neure kontura
eunian bi aldiz jezteko,
bi peon eta bi seme txiki
neuri lagunduteko.
Konpromisua beatzi egun¹²¹ litro
eunian ateatzeko,
ondo kuidatu biarra beiek
ori ez galduteko.

6

Ori orrela eginda daukat
irabazija¹²² polita,
lau milla pezta illian sobra
jan da ean lasai eginta.
Orko bizijaz akordatze[n] naiz
orain au ola ikusita,
etxera¹²³ gauzak ezin ekarri
naiz ederki pagatuta.

7

Jateko ainbat ez da allegatzen¹²⁴
batian pagamentua,
notiziak maiz engañazeko
laister dala amentua.

Kobratutzera illian juanda
ederra bai deskuentua,
gero jendiak lanera juanda
galanki juramentua.

8

Amabi urte pasa nituen
kalamidade orretan,
sekulan penik etzait kenduko
esaten dizut benetan.
Emen eon baniz sobratuik neukan¹²⁵
amabi urte oietan,
milloi erdi bat gezurrik gabe
paseatzeko zarretan.

9

Neure laguna¹²⁶ berso onekin
egin biar det bukatu.
Gusto badezu lagun artian
egin ditzazu kantatu.
Jaunak nai badu oraindikuan
egingo gera juntatu.
Adios nere lagun guzijak¹²⁷
gaizki esanak barkatu.

¹²¹ *Ibidem eun.*

¹²² *Ibidem irabazija.*

¹²³ *Ibidem etxea.*

¹²⁴ *Ibidem ez du ematen.*

¹²⁵ *Ibidem neuzkan.*

¹²⁶ *Ibidem lagunak.*

¹²⁷ *Ibidem guziak.*

AUZOLANARI (1953)¹²⁸

1

Akordatzen naiz auzolanian
mutil koskorra nintzala,
gizon senduan aldamenian
antxen ibiltzen nintzala.
Ordun sartuak aitz arbolak
ederrak izango dirala,
eta askotan aprobetxatu
dezuten aien itzala.

2

Paguak eztu lanik ematen
aitzek bezala sartutzen,
arbolak bota ta osto artian
berala da agertzen,

eta gañera aitze baño
aguro dala etortzen.
Emen ekusi ukalituak da
askotan naiz akordatzen.

3

Badira beste arbol klasiak,
elorri ta arantza beltza,
urriz jatorrak urrek biltzeko
eta beste bat da altza.
Esola sartu esie eiteko
ta zañek agertu zaizka.
Urrengo urtian toki orretan
esol biarrik ez dauka.

¹²⁸ CU.

Bertso sail hau izenburua duen bakarrenetakoa da.

FAMELIAN ETXEAN (1956)¹²⁹

1

Rejina, Pedro eta Jabier,
Inazio, Kasimirokin,
Migel da Agustin eta Carmen,
Jose Migel, Joan Joserekin,
Bautista eta Jose Fermin,
beren aita ta amakin
Antonio eta Martina,
beren amabi semekin.

2

Famili dana ortxen sartu det
orain nik berso onekin.
Gure lenengo adiskidiak
egin dezaten jakin.
Aietatikan bat Inazio
dagola emen gurekin.
Beste guziak an Espaiñian
bizi dira alkarrekin.

3

Nere anaia eta goiñata
etziran lo egon beti,
fameli ori atezteko
lana e[i]n biar gogoti.

Beiko belarrak sartuta
gero ekartzen zuten malloti.
Diputazioan lana eitezun¹³⁰
joanez oso urruti.

4

Jangoikoaren laguntzarekin
aurrea ziran atera,
jarrita gutxi egon biarra
oiri emateko jatera.
Goizian goiz jeki eta
bakoitza bere tokira,
alaxen ere seme bizkorrak
egin dirala atera.

5

Urruti nago lagundutzeko
bañan nago ni zurekin,
gorputzaz ezpada ere
bai espirituarekin.
Pensamentua badadukat nik
juntatzeko alkarrekin.
Nai dezunian kanta dizazu
bukatutzen det onekin.

¹²⁹ CU.

Bertso sail hau izenburua duten bakarrenetakoa da.

¹³⁰ *Eitezun*: Egiten zuen.

70eko hamarkada

ZURE BERSUAREN BUELTAK (1975)¹³¹

1

Zure bersuaren bueltak
nai nituzke kantatu.
Jose Fermin bersolaria
jatorra zera agertu.
Osabak eta lengusu danak
nai dizugula agurtu.
Zure besarkadaren bueltak
gure partetik zuk artu.

2

Zure anai eta arreba
gurasoakin batean,
illuak eta lagun guziak
bizi zaitela pakian.
Neure deseio aundiena da
sarzea zuen artian.
Gure Jainkuak nai dezatela
sartzia gure atian.

3

Oetabos urte dira ingurun
gu onera giñan etorri.
Barku aundi bat Takoma izena
giñun onera ekarri.
Oraiñ artian beintzat dijogu
segitu danok alkarri,
Naziotxo au ona zan baña
atzera degu ekarri.

4

Zuek gu emen bisitatzia
guk ez al degu merezi.
Oetabos urte oetan emen
etzaitugu oraindik ikusi.
Pereza alde bat utzita
bidera onera ikasi.
Buelta eginda or kontatzeko
gu emen nola geran bizi.

5

Batek ez daki nun biar ditun
utzi biar bere ezurrak.
Zerbat geiago izatearren
izaten gerade zurrak.
Egun triste bat etorri eta
utzi biarra bazterrak.
Jainkuai graziz ez dedilla izan
orduana bide okerrak.

6

Neure illua familiakin
onekin despeida artu.
Emengo zure fameli dana
nai dizugu agurtu.
Nai dezun deseio dana
gure partetik zuk artu.
Ta zerbait gaizki esan badizut
bijotzetikan barkatuk.

¹³¹ CU. *Circa* 1975.

Dirudienez Jose Fermin Argiñarenaren *Au eta geiago ere zuek* izeneko bertsoei erantzuna da (ik. 188 or.).

KONTRAPUNTO ENTRE LOS DOS HERMANOS (1977)¹³²

1 *Migelek*

Zure iruotamar betetzea
egin gera gu etorri.
Zerbait nai eta botellatxo bat
egin dizut nik ekarri.
Ez degu naiz nai emen izaten
olako koiñak Terri.
Gustora aundikin edan dezagun
brindis egiñaz alkarri.

2 *Inaziok*

Asko alegratzen gera guztiok
zuek e[i]n dezuten bisita.
Beti bezela etorri zera
koiñak eskuan artuta.
Edozein gauza esango degu
burue piska bat nastuta.
Urrena berriz ekarrizkeo
eraman botella ustuta.

3 *Migelek*

Asko gustora sartu giñan gu
Zu[r]e lagun danen artian.
Berriz ere gu emen gerala
danok urrenko urtian.
Gustora eguna pasatu degu
danok alkarren artian.
Astero gera alkar ikusten
naiz bizi apartian.

4 *Inaziok*

Jaunari grazik eman dazkiot
iruoitamar betetzen.
Oartu gabe ari gedala
aitondu eta zartutzen.
Illo monton bat ekusten degu
ari dirala azitzen.
Bizi biarra onez aurrera
oieri piskat laguntzen.

5 *Migelek*

Neure anaia zer bersolarik
ari geran gu kantatzen.
Neure ustian alkarri biok
eiten degula laguntzen.
Obenak gera oroin artian
obeik ez bada arkitzen.
Zer parra illoak egingo dute
oik eitian kantatzen.

6 *Inaziok*

Gure illuak azkarrak dira
ta bersolari jatorrak.
Bañan gustora leitukoitue¹³³
gure berso koskorak.
Noski Txirritak jartzen zituen
bai berso ederrak,
guk bezela etzun labratzen
noski soro bazterrak.

¹³² CU.

¹³³ *Leitukoitue*: Leituko dituzte.

7 Migelek

Laugarrena da eta azkena
gaur dizut nik kantatzen.
Deseatzen det guztiok ola
gaitezen danok arkitzen.
Egondu gera rato ederra
gaur bersuak kantatzen.
Besarka batekin zaitu nik
gaur despedatutzen.

8 Inaziok

Neure anaian besarka ori
bijotzez emana dago.
Zeñek artua bijotzarekin
oso erruti ez dago.
Pakiarekin trankilidadia
beti gurekin dago.
Nai dezuenian berriz etorri
beti esperatzen nago.

BERSO BI BERRIK JARRI NAIAN (1979)¹³⁴

1

Berso bi berrik jarri naian
emen nago ni pensatzen,
eta emen gu zuen anaiakin
nola a[r]i geran pasatzen.
Orko berriak jakin ditugu
gustora ein giñun enzuten,
emen baiño obeto Espaiñin
gaur adi zeaten pasatzen.

2

Zer gustora guk artu genduan
legurririkan ez dauka,
Bautista, Maria, Kasimirokin
egin diguten bisita.
Urengo urtian espera degu
beste on batzun bisita.
Jaunan laguntza eta gogua
etzaizuten falta.

3

Emengo gauzak oso ederki
ez dira adi pasatzen.
Jaunari eskerrak pazienzijan
guztiak a[r]i gera artzen.

Bañan au ola segitzen badu
guztiok a[r]i gera galtzen,
neure ustian asiko dala
noizbait buelta artzen.

4

Jose Fermin eta emaztia
oraidik bijok gaztiak,
ezkonberritan ondo ibili
izaten giñan guziak.
Alkarri lagunduz umeak ein da,
pazienzikin aziak,
ori eiteko eskatzen diot
Jaungoikoari graziak.

5

Jose Fermin, nik berso onekin
egin biar det bukatu,
zerbait gaizki esan badizut
biotze egin barkatu,
Zerbait gaizki datorrenian
pazienziakin artu,
oi ola eginda Jaunan grazikin
zeruan gaitezen sartu.

¹³⁴ BS.

Bere iloba Jose Fermentzat idatzi zituen 1979ko urtarrilaren 20an.

80ko hamarkada

NEURE ANAIA BERSO BERRI BAT (1982)¹³⁵

1

Neure anaia berso berri bat
kanta biatzut¹³⁶ emendik.
Zuk deseorik ez daukazula
etorritzeko oraindik.
Pena dizute zuri ematen
uztea ardik eta mendik.
Ez dakigu guk noiz juango
geran orrera gu emendik.

2

Berso batzuek jarriak dauzkat
zueri orrera bialtzeko.
Esan ziraten Juan sendo zala
maiatzean orrera juateko.
Beatzi karta egin nituan
berarekin bialtzeko.
Izan zazute esperantza zuk
San Joanetan ikusteko.

3

Esango dizu nola gabiltzan
geroztikan okerrago,
Neure ustian arreglorik eman
sekulan geigo ez dago.
Beiak ferian ez dute egiten
bi milla pezta baño geiago.
Aragi ona jan nai badezu
oetasei millan dago.

4

Orrelakorik ez nun pentsatzen
emen nik ikusterik.
Kanpo jendia triste dabilta
ta danak daude arriturik.
Ta gerra bertan zer egingo dun
iñor eztaki oraindik.
Semia libre emango balit
ald[e] ingo nuke emendik.

¹³⁵ CU. Sortaren amaieran 1982ko ekainaren 4an bere anaia Migeli bialdutakoa dela esaten da. Dirudienez, Migelen *Urtea etorri bera bukatuz* (ik. 177-179 or.) bertso sortaren erantzuna da.

¹³⁶ *Biatzut*: Behar dizut.

JAIO GIÑAN GUZTIOK (1982)¹³⁷

1

Jaio giñan guztiok
ta ill artian bizi.
Aitak eta amak gu
ein genduen azi.
Askok ere ori
ezkendun merezi.
Egin biarra zala
ta Jainkuai grazi.
Ein genduen azi.
Nor adierazi.
Zer gendun merezi.
Ta laguntza guzi
ala eman genduan
esker eta grazi.

2

Zenbait urte dituen
orain esango det.
Memorian [ed]o nola
iñondik al badet.
Uztaren oitabian
urte betetzen det.
Egun ortakua nik
arreba bat badet.
Amar urte aurrez
aurtzarie badet.
Ukatu ezin det
ta guxua maite det.
Iruogeta amairu
aurten bete biar det.

3

Sei giñan senidiak
ta ni bosgarrena.
Ta gero Migel zala
etorri azkena.
Maria izan gendun
senide zarrena,
ta gero Antonio
zala biarrena,
Salome urrena,
Jesusa laugarrena.
Gure aita ta [a]ma
kunplitu zuena.
Famelie ederra
azi ginduela.

4

Orain zartuta nora
emendik joango naiz.
Esateko zein naizen
Inazio ni naiz
Festaren ordezkua
lana nuen noiz-naiz.
Amerikara etorria
penatua ez naiz.
Miñak ditut noiz-naiz.
Diruan jabe naiz.
Konforme bizi naiz.
Miserable ez naiz.
Noiz-nai Jainkuarentzat
konformatua naiz.

¹³⁷ CU.

5

Bosgarren bersua da
ta au da azkena.
Nai duenak kantatu
nik jarzeitutena¹³⁸.
Beiak izandu nitun
askotan laguna,
aien artian pasa

gauba ta eguna.
Zeñen ezaguna,
ibili zuzena,
ta gaizki egiña
arzen zuen miña,
aiekin onez beti
obeki izana.

¹³⁸ *Jarzeitutena*: Jartzen ditudana.

ERRAZKINEN JAIO (SEGUNDA PARTE LA VIDA EN BERSOS) (1982)¹³⁹

1

Errazkiñen jaio
eta bertan bizi.
Aitak eta amak
ein nindun azi.
Lanian erakutsiaz
ein ninduen ezi.
Denbora aietan nuan
gutxi irabazi.
Jainkuari grazi
osasun da guzi
nuan nik merezi.
Nork adierazi.
Soldadu joan nintzan
etxetik lenbizi.i.i.

2

Ilbeltzaren zorzian
soldaduskan sartu.
An egin zizkidaten
legurriak artu.
Etxetik oso bertan
ez nintzen gelditu.
Santoñako partian
ei[n] nintzan tokatu.
Zeñek apartatu,
la[g]un artian juntatu,
urtia pasatu,
etxera bueltatu,
Orduan giñan danok
oso kontentu.u.u.

3

Oetairu urtekin
etxean lanean.
Soldaduska beteta
etorri nintzanean,
Zer tokatu zitzairan
gero azkenian.
Kuiñaduak eaman nindun
bere aldamenian.
An napar aldian
maiz toki berrian
lana egin leurrian
danaren aurrian,
Andregaia nik antxen
lenengo ei[n] nuan.an.an.

4

Gero zer pasatu zan
orain det esango.
Gerra agertu zaigu
nai baiñan lenago.
Ezkontzeko ustetan
ni orduan nago.
Esperatu biarra
guri etorri zaigu.
Nere pena dago
kintak artu nago
ta frentian nago.
Trankilo ez nago
ta justo bala batek
alkantzatu nago.

¹³⁹ CU. *Circa* 1982.

5

Gero hospitalera
tokatu zait neri.
Besua moztutzeko
preparatzen ari.
Ala esan dio
meikuak alkarri
Iltzeko peligruan
egin zala jarri.
Koloriak gorri
ein zizkidan jarri.
Tolosara ekarri,
andregaiia etorri.
Zer gustora ein gendun
beiratu alkarri.

6

Orduko komediak
a[r]i naiz ni esaten.
Bertan asi giñan gu
preparatutzen.
Ezkontzeko eguna
a[r]i giñan pentsatzen.
Besua nola zeguan
ez naiz akordatzen.
Pensamentua artzen
oso erraxa etzen.
Ta zein egoten zen.
Ezkontza det artzen.
Andretxuakin libre
nintzala gelditzen.en.en.

7

Gero semiak ziran
rapido etorri.
Urte bat eta gutxi
diela alkarri.
Iru seme ta bi alaba
Jainkuak ekarri.

Askotan izan ziran
gu[r]e konsolagarri
beituaz alkarri.
Lana ein biar gorri
launduaz alkarri,
pasa istillu gorri.
Gero Ameriketara
giñan gu etorri.i.i.

8

Andik aurrera emen
giñan diferente.
Semiak azi ziran
da lanian fuerte.
Geuren kontura giñan
gero asi aparte.
Ondo ibili giñan
ok dauzkaten arte.
Artu zuten parte
ta gero aparte.
Batzuentzat suerte
ta bestia ill arte.
Nunbait bizi biar denok
Jaunak nai dun arte.e.e.

9

Aitonduta emen ni
naiz ni orain bizi.
Iruogeita amairu urte
Jainkuari grazi.
Generazio berria
ein dala ia azi.
Zer geiago batek
duala merezi.
Esker eta grazi
Jaunai adierazi.
Fameli ta guzi
emen gera bizi.
Oraindikan etxian
nagola nagusi.i.i.

10

Amar dira onekin
ta nago uzteko,
naikuak badirala
kantatutzeko.
Beti pensatzen nago
zuek ikusitzeko.
Pensamentua badet
bera betetzeko.
Noizbait agertzeko,
semia libratzeko,
poza bat artzeko.
Gu or agertzeko
denboratxo bat
ortxen pasatzeko.o.o!

11

Eskiña onek ez du nai
utsik bialtzea.
Orregatik beste bi
noa ni jartzea.
Deseatzen zautela
ni orrera etortzea.
Zer estimazioa

dadukat zartzea.
Obe ondo artzea
ta ondo ibiltzea.
Ez utzi galtzea
betia eltzea.
Ortikan juango gera
danok Frantzia.a.a.

12

Amargarrenarekin
nuan nik bukatu
Papelak egin dazkit
beste bi artu.
Bertsotan ni zuekin
ez naizela aspertu.
Noizbait egin nai nuke
zuekin juntatu.
Egun o[r]i argitu,
gure etxian sartu,
besarkadak artu
ta nor apartatu.
Pozez egin zat orain
negarra saltatu.u.u.

KASIMIRO TA BERE ANAIA (1983)¹⁴⁰

1

Kasimiro ta bere anaia,
andria iru semekin,
Lourdes Oribe iru semekin
beren aita ta amakin.
Gu danok eta Migel
bere fameli danakin,
Urteberri egun pasatu degu
danok emen alkarrekin.

2

Berso berri bat kanta biar det
emendik Espaiñiraiño.
Luzegokua dala sakia
Etxarriko pelotarik baiño.
Senarra dago Mejikuan da
Espaiñin semia jaio.
Apaizak ala esan omen zun
sake luzena oraindaiño.

3

Goizian meza entzun genduan
gero arkumia erreta.
Etzan izandu arkumeori
errutitik ekarrita.
Edadia ere etzagun falta
ederki otzaz jarrita.
Egun jatorra pasa genduan
danok emen juntatuta.

4

Onekin orain esan beaizuet¹⁴¹
jarri zaitetze aditzen.
Lana asko emen egiñagatik
gutxi zaigula gelditzen.
Naziotxuan atzera dio
ez dakit buelta naiz duten.
Asmatuko du nere urtian
emendik dana joaten.

¹⁴⁰ CU.

Azkenean esaten denez, bertsook 1983ko otsailaren Iean grabatu eta Espainiara bialdutakoak dira.

¹⁴¹ *Beaizuet*: Behar dizuet.

NEURE ILLUA BEAIZUT (1985)¹⁴²

1

Neure illua beaizut¹⁴³
bersotxo bat jarri.
Pena aundiarekin
ei[n] nitzan etorri.
Festa oietarako
egin nintzan jarri.
Olako urtia berriz
ez da ingo etorri.

2

Panplonan denbora bat
ei[n] nuan pasatu.
Donostian xarraguak
ez dira tokatu.
Batetik frontonian
ederki jokatu.
Gero plaia eskinian
neskatxak billatu.

3

Isilik egon biar
ez dezaten jakin
gauz onik ez da pasako
neure andriakin.
Urrezko bodak ein biar
denbora gutxikin.
Allegatu gaitezen
biok alkarrekin.

4

Au ere esan biat
aditu zazute.
Ni berriz agerzia
pensatu zazute.
Etorria naiz ortik
oso gaztetuta.
Neskatxak beintzat
ala esaten dirate.

5

Amar kilo nitun galdu
beatzi illabetian.
Amarrak emen dauzkat
neure gorputzian.
Oso torpetua nago
geitze[n] naiz atzian.
Or galduko ditut berriz
Aralar mendian.

6

Lau illabete dira
etorri nintzala.
Danak esaten ziraten
gaztetu nintzala.
Nik ori aditzian
poztutzen nintzala.
Bañan gaur diferente
arkitzen naizela.

¹⁴² CU.

1985eko urtarrilean bere iloba Inaziri jarritako bertsoak dira.

¹⁴³ *Beaizut*: Behar dizut.

7

Arreglatu naian gabilz
danok deseatzen.
Lana emango du onek
txar guzia kentzen.
Orain uzten digute
egiak esaten.
Len etzen olako
libertadia izaten.

8

Gu emen bizi biar
pobriak bezela.
Kontentu zerkin bete
badaukagu kazuela.
Emen ere jan biar babak,
bestetan bezela.
Iñoiz etzazu esan
ja[n] nai ez dezula.

9

Komeriak mundu ontan
jaiotakoantzat.
Beintzat tokatzen da
naikua neretzat.

Lana egin biar mundu
guzientzat.
Ganartzi gutxi utzi
gertatu guretzat.

10

Nik amar berso berri
zuk or kantatzeko,
motibua jartzen dizut
zu akordatzeko.
Desejua badaukagu
danok ekusteko.
Pensamenturik ez det
oraindik iltzeko.

11

Amaikagarrena orain
biaizut¹⁴⁴ kantatu.
Gaizki nik esan badet
biotzez barkatu.
Ondo esandakuak
bai goguan artu.
Onekin eite[n] naiz ni
zuekin despeditu.

¹⁴⁴ *Biaizut*: Behar dizut.

AMERIKATIK ESPAINIRAIÑO (1985)¹⁴⁵

1

Amerikatik Espainiraiño
bertsoak biatut¹⁴⁶ kantatu,
oraingo aldian notizi txarrak
egin ditutela artu,
Oreja irugarrena,
dezutela lurperatu.
Notizi orrek nere biotza
nola ez du biar tristetu.

2

Au da lenengo nere biotzak
Jaunari dio eskatzen,
orren anima beran onduan
betiko izan dezala.
Erri guziak opako dio
daudela deseatutzen,
beraren ama ta familia¹⁴⁷
osasun ona eskatzen.

3

Orko jendiak pena aundia¹⁴⁸
zuten orduan artuko,
ez dadukat nik juan biarrik
ori ondo ikusteko.
Deseo zuten beren¹⁴⁹ aurrian
beti antxen¹⁵⁰ ikusteko.
Iñor[k] esanda ezin sinistu
gauz ori zala pasako.

4

Lau probinziak egongo dira
penaz urturik guziak.
Aurrelari on bat faltatu dala
beran jokuko graziak.
Eman zituben egun askotan
jendeari gusto guziak,
Jaunak emanda ditu utziak
aurrerako bere¹⁵¹ aziak.

5

Konformatu biarra degu
gure Jaunaren legetan.
Iñor kontrarik ez egin orri
dana konforme an bertan.
Negar puska bat egin biarra
degula momentu ortan.
Bañan konformatu biarra
degula mundu onetan.

6

Batek ez daki amaren penak
zer legurriak dituan,
Bañan alare abanta¹⁵² biar
guziok degu munduan.
Beran grazian izan gaitzala¹⁵³
beintzat azken orduan,
Beti-betiko izan gaitezen
berakin danok zeruan.

¹⁴⁵ BS. CUn ere beste bertsio bat dago baina ez osorik.

Bertsook Oreja III pelotariaren heriotzean haren omenez eginak dira.

¹⁴⁶ *Biatut*: Behar ditut.

¹⁴⁷ CUn *familiari*.

¹⁴⁸ *Ibidem Orko jendiak zer pena*.

¹⁴⁹ *Ibidem beran*.

¹⁵⁰ *Ibidem ortxen*.

¹⁵¹ *Ibidem berriz*.

¹⁵² *Ibidem abuanta*.

¹⁵³ *Ibidem gaitezen*.

7

Askotan gera munduan bizi
gauza askotaz¹⁵⁴ aztuta.
Zerbait ondo datorrenian
gelditzen gera poztuta.
Zerbait geiago izan naian
tokatze[n e]z dana artuta,
gero azkenian joan biarra
guztiak emen utzita.

8

Olako gauzik gerta ez dedin
dotriña ikasi degu,
ama gatxuak egun askotan
ortan erakutsi digu.
Besteren gauzak pakean
utzi biarrak ditugu,
ola guztiok ibili gaitzan
zerue irabaziko degu.¹⁵⁵

9

Neure erritik urte askotan
urruti naizela bizi,
baiñan legiak gaztetandikan
egin genduan¹⁵⁶ ikasi.
Ondo portatu biarra dala
ta, konfiantza irabazi,
modu orretan egiten dira
bartzarrak ondo ikusi.

10

Neure erriaz ez naiz aztuko
arnaserik dedan arte,
urte askotan ibili arren
andikan oso aparte.
Jangoikoren laguntzarekin
lana eiñez al dan arte,
adios orain danori
lenengo ikusi arte.

11

Zerbait adi naiz zueri esaten
eta egia guztia,
ez da erraza oso izango
ni zuetaz aztia.
Ez da pentsatzen olakorik
bat dagonian gaztia,
piska bat orain ai naiz ikasten
naiz ez ikusi mundu guztia.

12

Amabigarren bertsuarekin
biar det orain bukatu,
errazkindar batez medioz
danok agur on bat artu.
Zuen artian gustora samar
egingo nitzake sartu.
Biotzetikan eskatutzen det
gaizki esanak barkatu.

¹⁵⁴ Ibidem *askoz*.

¹⁵⁵ Bertso honetako ezkerreko hitzak CUko bertsoiarekin osatu dira, honetan ez baitira argi ikusten.

¹⁵⁶ CUn *nituben*.

BERSO BATZUEK JARTZEKO (1985)¹⁵⁷

1

Berso batzuek jartzeko
enkargua nik artue.
Nola nagon gure errian
txapelkerian sartue.
Gure euskera galdu ez dedin
aspaldin dala sortue.
Españik eta Franziak ere
edade ori eztue.

2

Eskerrik asko aintariari
nitaz dirala akordatu.
Gusto aundikin egingo det
nik parta zuekin artu.
Sur Amerikan arkitutzen naiz,
urruti samar gertatu.
Baiñan alare gusto aundikin
zuekin ingo naiz sartu.

3

Uruguaien gertatzen gera
gu bi anaiok aspaldin.
Bañan alare gure euskera
itz eiten degu berdin.
Ogeita amabost urte pasiak
lagunduaz alkarrekin,
al dan bezela gera gu bizi
Jaunaren laguntzarekin.

4

Milla beatzi egun urte pasata
berrogeita beatzian,
bi fameliok etorri giñan
enbarkaturik Frantzian.
Garai arretan gosia zegon
bai gure Euskalerrian.
Gerran ibili anaian kontra,
loa egiñik lurreean.

5

Gauza tristiak alde bat utzi
alegre bizi gaitezen.
Gure errian egun batian
nolabait geran agertzen.
Nazijotxu au ona zan baiñan
atzera a[r]i da gelditzen.
Zorra aundiak ein ditugu ta
orain legurriak artzen.

6

Gure izkuntza aitz garbia da
eta oso atsegiña.
Erderazko itzak ez nastutzea
ein dezagun alegiña.
Askotan ala aditutzen da
alako itzaldi zikiña.
Al dan garbina egin dezagun
gure euskera bikaiña.

¹⁵⁷ CU.

7

Zuen deia artutzen det nik
orain nago ni gustoa.
Iduditzen zat ortxen nagola
ni zuekin nastua.
Euskeran alde nik jarriko det
beti bai neure eskua.
Argiñarenak gaudela beti
euskeran alde prestuak.

8

Zortzigarrena bera azkena
orain kantatzen dutena.
Beti nai det ibili zuzena
eiñez gurasoai entzuna.
Grazik Jaunari badet osasuna,
baita ere ondasuna.
Barkatu neri gaizki esana.
Pakia ta anaitasuna.

ESTIMATZEN DIZUT NIK (1985)¹⁵⁸

1

Estimatzen dizut nik
zure berso ori.
Nundik edo nola dezun
berso ori ekarri.
Kontestatu nai dizut
al badet nik jarri.
Pena aundiarekin
ei[n] nitzan etorri.

2

Emen ez dago txanpanik
Panplonan bezela,
jendia baiñatzeko
botatzen zutela,
San Fermin bezperian
ikusi gendula
Aiuntamentuko plaza
bustita zegola.

3

Ekusi degu Espaiña
oso ondo dagola.
Ez da nunai bizitzen
gaur or bezela.
Edozein gauzarekin
beterik kazuela.
Ez kejatu oraindik¹⁵⁹
goseik ez dagola.

4

Ez gera gaizki bizi
Jaunari graziak,
bañan gu bezela ez daude
oraindik guziak.
Orain bialtzen ditugu
militar guziak,
txarrak utzi dizkigute
eraindako aziak.

5

Iñala ein dezagun
euskeraren alde.
Baiñan erderazko itzak
ez nastu debalde.
Ni ez naiz izandu
itz txarraren¹⁶⁰ alde,
garbi ta klaro itz egin¹⁶¹
Euskalerrin gaude.

6

Ondo porta gaitezen
orain eta beti,
bizi izanagatik
erritik urruti,
Jaunari eskatuaz
pakia¹⁶² guretzat beti.
Erderazko itz txar oiek¹⁶³
gugandik urruti.

¹⁵⁸ BS. CUn beste bertsio bat dago.

Nafarroara egin zuen bidaiatik itzultzean idatzi zuela dirudi.

¹⁵⁹ CUn *Ez kejatu ara iñork*.

¹⁶⁰ *Ibidem xarraren*.

¹⁶¹ *Ibidem garbi ta klaro itz ein dezagun*.

¹⁶² *Ibidem pakea*.

¹⁶³ *Ibidem oik*.

7

Larogaita laugarrena
ondo deu pasatu.
Iruñeko festak aurten
ditugu aprobetxatu.
Eta gañerakuak
postur[a] ortan artu.
Orrelako urtetxua
noiz degu guk pasatu¹⁶⁴.

8

Jose Marik eakutsi dit
aitaren berriak.
Neuri lana eiñ arten¹⁶⁵
daukate gorriak.
Jan da ean lasai egin
alper galgarriak.
Nik ein bear nitunak
eiteitu¹⁶⁶ andriak¹⁶⁷.

9

Parra egingo dezu
gauz au adituta.
Neurekin etzazu pensa
ez geitu arrituta.
Noiz pasako degun berriz
danok juntatuta¹⁶⁸
Mugiron eta Albian
gaztaiñak erreta.

10

Au da amargarrena
berakin bukatu.
Porterian zaudela
eintzazu¹⁶⁹ kantatu.
Gaizki egin badet
eintzaizu¹⁷⁰ barkatu.
Besarka aundi batekin
zaizuet despeditu.

¹⁶⁴ Ibidem *Orrelako urtetxua guk / noiz degu pasatu.*

¹⁶⁵ Ibidem *eiñazten.*

¹⁶⁶ *Eiteitu*: Eginen ditu.

¹⁶⁷ CUn *ein biar andriak.*

¹⁶⁸ Ibidem *alkartuta.*

¹⁶⁹ *Eintzazu*: Egin ezazu. CUn *ein zazu.*

¹⁷⁰ CUn *ein zaizu.*

ARGIÑARENAK EZ GERA IZANGO (1985) ¹⁷¹

1

Argiñarenak ez gera izango
besteak baiño geiago.
Gaizkirik beintzat inori ez egin
ondo eitia naiago.
Eskursio ederra egin degu ta
eiña damurik ez dago.
Urrengo urtian Jaunak nai badu
juango¹⁷² gerala geiago.

2

Neure naia da euskeran alde
eitia al dan guzia.
Jaiotze ezkeroz aurrena
biar erain azia.
Modu orretan ibili eta
utzi nai degu bizia.
Artarako¹⁷³ gu jaio giñan da
ein zagon al dan guzia¹⁷⁴.

3

Afari¹⁷⁵ eder bat gaur egin degu
guztiok Euskalerrian.
Eguna ere esango dizut
abenduaren ogajian.
Urtia ere zerbait bukatu
guztiok alkarren artian.
Eskatzen diot gure Jaunari
obeto urrengo urtian.

1

Los Argiñarenas no seremos
nunca más que otros
por lo menos, mal no haremos
si podemos mejor bien.
Buena excursión hemos hecho
no tenemos pena lo hecho.
El año que viene si Dios
quiere iremos mucho más.

2

Nuestro deseo es hacer lo que
podemos, a favor del vascuence
pero si queremos que nazca
primero hay que sembrar.
En esa forma queremos
dejar nuestra vida,
para eso nacimos en la vendita
tierra Vasca.

3

Cena buena hemos hecho hoy
todos juntos en Euskalerría
el día también quiero declarar
el 20 de diciembre.
El año ya medio terminado
llevamos bien reunidos.
Le pido a Dios el que viene
que nos dé mucho mejor.

¹⁷¹ BS. CUn ere euskerazko bertsoia dago. Circa 1985.

¹⁷² CUn *joango*.

¹⁷³ *Ibidem Ortarako*.

¹⁷⁴ Argi dago esaldi hauetan ez datozela bat jatorrizko euskal bertsoia eta itzulpena.

¹⁷⁵ CUn *Afari*.

Onekin ditut lau berso berri
 guztiontzako kantatu.
 Jaunari eskatu urrengo urtian
 guztiok gaitezen juntatu.
 Nere gustoa¹⁷⁶ izango dala
 gaitzio¹⁷⁷ danok kontentu.
 Adios danok beste bat arte
 onekin eitet¹⁷⁸ bukatu.

Con este son cuatro
 que os he cantado para todos
 pídadle a Dios el año que
 viene que nos reunamos todos.
 Mi deseo sería que nos
 quedamos contentos todos
 con este termino hasta la
 próxima a Dios para todos.

¹⁷⁶ Ibidem *gustua*.

¹⁷⁷ Ibidem *geitzia*.

¹⁷⁸ *Eitet*: Egiten dut.

NESKAIX EDERRA IKUSTEN ZAITUT (1984-85)¹⁷⁹

1

Neskaix ederra ikusten zaitut
Erretratuan jarrita,
Txikitandikan etorri ziñan
Beti zu oso polita,
Segitu beti kostunbre oiek
Ez iñoiz kanbiatu ta,
Egun on baten eamango zaitue
Batek enamoratuta.

2

Bertso bi orain zuri jartzia
Buruan bertan zait jarri,
Ementxen gaude biok nola
Begaritutzen alkarri,
Orren politik gazte denboran
Nere etzekiran¹⁸⁰ jarri,
Orain zartuta ikusten ditut,
ikusten adi naiz larri.

3

Zarauz aldian izango dira
Mutillak begiratzeko,
Nere konsejuz etzaitezela
Edoñekin geldituko,
Pentsatu ondo gauza oiek
Betiko egiteko,
Pensatu gabe gauzak ez egin
Alperrik gero damutzeko.

4

Jaunari eskatu komeni bada
Mutil on bat zuretzako,
Gure Jainkua ofrezitzen dago
Beti guri laguntzeko,
Mutilak onak badaude oraindik
Bat bakoitzentzako,
Biotzetikan eska zazute
Oitako bat zuretzako.

5

Oitabost urte aitortzeituzo
Orain zuk dauzkazutela,
Edaderik onena orain daukazula,
Obegokorik espera ez dezula,
Zartutzen zeranian zu gu,
Gauden bezala,
Andik aurrerakuak erreala zazula.

6

Irurogei neuzkan nik zu jaiotzian
Orain ia dauzkat anka bakoizian,
Jarriko banituke neri mentoitzian
Irrintzi bat egingo nuke abitzian,
Agur egiñaz danori errin pasatzian,
Igual egongo zerate danok oatzian,
Parra ateratzen zat akordatutzian,
Amaika gutxiko einda emendik jua ziran.

¹⁷⁹ BS.

Honakoa eta *Marzoaren oetabeatzi* batera daude. Biengatik honakoa esaten da: "Migelek eta Inaziok jarriak en 84 y 85".

Laugarren bertsoetik aurrera neurria ez da erregularra, Inaziok berak ere aitortu egiten dau bederatzigarrean.

¹⁸⁰ *Etzekiran*: Ez zizkidan.

7

Tonteriak ere batek jarri biar ditu
 Zu orrengatik etzaitez arritu,
 Iñori gaizkirik zuk sekulan
 Etzaiozu deseatu,
 Danakin zu beti ondo
 Ein zaitez portatu,
 Gure Jaungoikoak eingo dizu
 Bai dana barkatu.

8

Beti gustora lanian ez dala ibiltzen
 Dibertsio ere ondo batek dula artzen,
 Batek bere lanakin badu kunplitzen,
 Saiatu zaitez zu beti ondo kunplitzen,
 Bere lanetik kanpora nai du paseatzen,
 Saia zaitez gateria zu disgrutatzen
 Pobriak naiko komedik ditugu pasatzen,
 Ta zer egin degun ez dira ondo enteratzen.

9

Bertso oietan atera dire edozein gauza zuta[n]
 Lau puntutan asi nitzan da zortzira allegatuan
 Parra piska bat zuk egiteko biarko dezu lan
 Nolabait zuk pasatzeko or zuk zauzan.
 Plaia polita du ez da errebusan,
 Zuk beintzat busti gorputza merezi dun beza[...]
 Gañerakuak kontuak dirala azkenian esan,
 Zuk eguna ondo pasa nai duenak nai duna esan.

10

Amargarren bertsua bear dan bezela,
 Zuk or esateko bertsularia naizela,
 Gauzak ez ditutela egiten edozein bezela,
 Batek esan lezake al duten bezela,
 Zuk porsiakaso artu nai dezun bezela,
 Majian izan dedilla ederra kazuela,
 Sasoi ortan igual edozein bezela,
 Zuk egin zazu beti nai dezun bezela.

11

Amaikagarren bertsua txarra ezta izango,
 Artzai bañan obeki zerala egongo,
 Iñork ere ez dizu zuri ezer esango.
 Zure gorputzan jabe zera izango.
 Orregatik zuk nai dezuna zuk egingo,
 Arrazoa nik zuri dizut emango,
 Ondo egiña gaizki dagonik ez dizute esango,
 Guztia ondo pasatzen komedik dira izango.

12

Amabigarren bertsua data eta beraki azkena,
 Beangatik zuk esango dezu nai duzuna.
 Zuk al badezu ibili beti ondo ta zuzena,
 Gezurrik ez orrek ematen dit pena,
 Gezurtik deama¹⁸¹ enbusturuan fama,
 Ortik eskapatzia egin zazu al dezun dana,
 Bestela artuko dezu gezurtian fama,
 Zuk beti txintxo egin zeren lana.

¹⁸¹ *Deama*: Darama.

MARZOAREN OETABEATZI (1984-1985)¹⁸²

1

Marzoaren oetabeatzi, gaurko egunian,
berua ere daukagu, tamaña onian.
Uda ederra pasa degu, seko ta beruan.
Orain gaude neguri, onan animuan.

2

Ez da nunai izaten, olako denbora.
Bañan igual askotan, kejatutzen gera.
Españian txarraguak, kusiak gera.
Elurrak eta izotzak, ederrak badira.

3

Alare gu askotan, akordatzen gera.
Nola ori aztuko, an jaiuak gera.
Naiz egun txarrak asko, pasatuak gera.
Baiñan alare gustoaz, akordatzen gera.

4

Oeta amabos urte, kunplituak emen.
Berrogei Españian, pasatuak lenen.
Neure urtiak dijoaz, nik nai baño len.
Aurki noiznai nago, esan biarrak amen.

5

Esaten degu emen gaizki, gerala gaur bizi.
Baiñan eztula iñork, naiz txar oiek utzi.
Naiago biar baiñan, naiago degu etzi.
Esnea ona eateko, beie berak jetzi.

¹⁸² BS.

Honakoa eta *Neskaix ederra ikusten zaitut* batera daude. Biengatik honakoa esaten da: "Migelek eta Inaziok jarriak en 84 y 85".

6

Oetamar urte dira, esnia ean ez dutela.
 Eaten banun gaizki, egiten zirala.
 Baiñan igual oraindik, ni bizi naizela.
 Beste gauz asko gaur, munduan daudela.

7

Akordatze[n] naiz txabolan, amar urteakin
 gazterik lanari, egi[n] nion ekin.
 Ta konfiantza baneukan, neure buruakin.
 Ardiak zanduta jetzi, gazta ederrak egin.

8

Artzango negozioa, eozinëk bezala,
 gaztea izan arren, egiten nuala.
 Erras pasa bideak, Beloki ta Ubelak,
 bear bazen soltatzen gendun, gerriko ubela.

9

Gazte denboran guk, geren lagunakin
 ondo ibiltzen giñan, danok alkarrekin.
 Dantza egiten gendun, edozein soiñukin.
 Baita pelotan ere, eozin pelotakin.

10

Orain ez dago alako, konturik gaztetan.
 Ez dirala asiko dantzan, edozein soiñutan.
 Bi edo iru orkesta biar, edozein salonetan.
 Konforme ez dirade ok, edozein lekutan.

11

Guretzako kontu oiek, akabatu ziran.
 Orain allegatu gera, lengoan antzera.
 Naiz ez gustatu iñori, orrela zartzia.
 Baiñan gustatzen zaigu, denboa pasatzia.

12

Au da amabigarrena, ta onekin azkena.
 Oraingoan aldian nik, kantatzen dutena.
 Baldin badago norbait, konforme ez dagona,
 neri erakusteko, dator neregana.

Berri batzuk jartzeaz
egingot alegin,
ez danik inoiz badago
eta naiaz jakin.
Kuadrillatxo eder bat
danok alkarrekin
izan gera lenguan
ikusten Makatxin¹⁸³.

¹⁸³ Aurreko bertso sorta dagoan orri berean dago baina ez dauka besteekin zerikusirik.

BERRIZ ERE BERTSO BI (1984-1986)¹⁸⁴

1

Berriz ere berso bi,
nai dazkizut jarri.
Notiziak dazkigu,
baltzen alkarri.
Segi zagun orrela,
amistade orri.
Beti desejoetan,
ekusteko alkarri.

2

Jaungoikoak nai badu,
ikusiko gera,
Emendik bi urte,
gu ortxen gera.
Berriz udaberria,
ortxen pasatzera.
Ez naiz allegatuko,
zizeren denbora.

3

Emezorzi urterekin,
nai zaitut ikusi.
Ija nola dezun zuk,
dantzatzen ikasi.
San Ferminetan festara,
eingo degu irasi.
Eun pare bat an pasatzen,
gurasuak utzi.

4

Urte guzia etxean,
pasatu lanean.
Permisua bear da,
festa dagonean.
Egun batzuk pasatzeko,
umore onian.
Saiatu biar da bat,
garaia danian.

5

Amasei urte biar,
bete maiatzian.
Ondo pasatzeko desejo
det nire biotzian.
Al deguna eingo degu,
zueren antzian.
Neure amasei urte,
aspaldi jua ziran.

6

Amasei urterekin,
ori da sasoia.
Ez dizu eingo eozinak,
ondoan usaia.
Agoztun jua biarko,
Donostiko plaia.
An ikusten dirala,
mutillak alaia.

¹⁸⁴ BS. Bere iloba Edurneri jarritako bertsoak dira.

7

Batian Panplonan da,
Donostin bestian.
Nor egin lezaken,
buelta ori astian.
Ondo begiratu biar,
frontonan sartzian.
Dirue jokatuta gero,
komerik an zian.

8

Galartza ta Orejan,
esperanza zuan.
Badartarrak dirue,
lasai bota zuban.
Olako asko len ere,
asko pasa ziran.
Berriz ere frontonia,
seguro ez joan.

9

Ez dakit zer tema,
nai dezun jartzia.
Nai nuke nere bersuak,
zuk gustora artzia.
Esan lenengo kartian,
nola nai dezun.
Ez naiz ibiliko ni,
oso apartian.

10

Au da amargarrena,
egin det kantatu.
Eta onekin orain,
biaizut¹⁸⁵ bukatu.
Nai dezun gauza neri,
noiznai eskatu.
Eta gaizki esan badet,
biotzez barkatu.

¹⁸⁵ *Biaizut*: Behar dizut.

NERE ANAIA BERTSO BERRI BAT (1986)¹⁸⁶

1

Nere anaia bertso berri bat
oran biaizut¹⁸⁷ kantatu.
Oso ederra ez da izango baña
egin dezazu aditu.
Ogeita amairu urte dirala
eiten dituzu kunplitu.
Urrengo urtian guziok ola
egiten geran juntatu.

2

Egun ederra pasatu degu
zar guziok juntatuta.
Letxon ederra jarria zegon
majian ondo erreta.
Lagunak onak badira oraindik
barberiak ekarrita.
Ardo ederra berak egiña
jarri zan alegratuta.

3

Ikusi nuan konten jendia
ardo on ori edaten.
Neure ustian egun gutxitan
olako ardorik izaten.
Gure Jainkuak lagun zaizula
urrengo urtian ekartzen.
Modu orretan pasako degu
zure urtiak kontatzen.

4

Oetabi giñan bazkari ortan
guziok edadekuak.
Larogeita amar urbil batzuek,
irugeitamar gutxinekuak.
Botxa jokuan gustatzen zaigu
musiako obenekuak.
Gezurra lasai egiten degu
ikaratzeko bestiak.

5

Olaxen gera bizi izaten
Amerikako partian.
Baina Euskalerriaz ez gera
aztuko bizi geran bitartian.
Al dan ondona saia gaitezen
bizi alkaren artian.
Batek ez daki nola izango dan
mundun bizi dan artian.

6

Oetama zazpi urte ingurun
ni onera etorri nintzan.
Berrogei urte betiak noski
egin nituban ekarri.
Bost seme txiki andiarekin
egin nituan ekarri.
Egin nezkion komedi ederrak
neure buruari jarri.

¹⁸⁶ BS. Amaieran abuztuaren 15ean jarritakoak direla dio.

¹⁸⁷ *Biaizut*: Behar dizut.

7

Kostunbre gutxi neukan orduan
asteko emengo lanetan,
bañan atzera ez naiz gelditu
segitu nuan an bertan.
Sei urte antxen famelijakin
nolabait pasa nituan.
Bera erosi egin nuan da
lana egin pagatu artian.

8

Beste bi tambo eosi nitun
ue pagatu ta gero.
Fameliakin lan egiñaz
pagatu gendun aguro.
Ori orrela eiteko batek
pasa bear amaika bero.
Urteak ola pasa nituen
baña ondo bizi naiz gero.

9

Iruogeita amazzpi ia
nik kunplituak dauzkat.
Orain dirua badaukat bañan
non gastaturik ez daukat.
Gorputzak orain ez dit eskatzen
bizio txarrik ez daukat.
Buelta on bat Euskalerrira
egin biarra dadukat.

10

Neure biziak kontentu nago
ezeren faltik ez daukat.
Osasun ona minikan gabe
beintzat nerekin dadukat.
Gure Jainkuai zer geiago nik
eskatu biarra daukat.
Nai duenian eaman gaitzala
emen nago ni beretzat.

11

Zu ere gaizki etzera bizi
beintzat osasun onakin.
Jainkuai grazik ekusten gera
sarriri gu alkarrekin.
Gauza oberik onez aurrera
ez dagoala gurekin.
Denbora ola pasatzen degu
bertsoak jartzen alkarrekin.

12

Amabi bertso dira onekin
eta biar det bukatu.
Denbora ustet¹⁸⁸ daukazutela
ok eiteko kantatu.
Gutxi dakinak asko ezin egin
egiten dizut garbitu.
Eta gaizki orain nik esan badet
biotz aundiaz barkatu.

¹⁸⁸ *Ustet*: Uste det.

NEURE LAGUNAK ADI ZAZUTE (1989)¹⁸⁹

1

Neure lagunak adi zazute
esan beaizubet¹⁹⁰ egia.
Gauza polita ikusitzian
alegratzen da begia.
Gose aundikin datorrenian
gustoa jaten da obia,
ezin billatuz garai batean
izan gendun komeria.

2

Laroai urtean ikusten dira
egunak diferentiak,
guztiak onak ez da erraza
tokatzen dira besteak.
Beti jai baliz danok obeki
geiago dira astiak,
dibertitzeko obe litzake
beti egotia gaztiak.

3

Pobre jaiuak lana egin biar
ortik ez da eskapatzen,
korrikan ez da erbia erraz
atzetikan arreatzen.
Okasiotan orise ere
gerta zitzaigun egiten
nekatu eta gelditzen giñan
nola zijuan bisidatzen.

4

Diruan jabe ezkiñan izan
naiz lana egin gogotik,
erbik bezela eskapatzen zun
diruak gure ondotik,
motibo ori izan nuan nik
ald[e] eiteko nik ortik,
Jaunai graziak ez det nik izan
geoztik dirurin faltik.

5

Diruan faltik orain ez daukat
gorputza ez du eskatzen,
erbik bezela gure ondotik
danak dute eskapatzen,
gorputzak zerbait nai zubenian
diruik ez gendun izaten,
erbia juanda ez da erraxa
atzetikan arreatzen.

6

Gauza guziak izaten dute
bakoiza bere leurria,
alde batetik penarik ez det
ni onera etorria,
bañan urruti ikusten det
nik nere jaioterria,
neure begikin ikus[i]tzian
artutzen det alegria.

¹⁸⁹ BS.

¹⁹⁰ *Beaizubet*: Behar dizuet.

7

Milla beatziegun urte pasata
oita zazpigarren urtian,
bos lagun gazte sartu giñan
orduko lagun artian,
berrogeitairu kuadrilla ederra
ein gendun danon artian,
aietatik sei bizi gerala
mundu guziko partian.

8

Andik lau urte soldaduskara
egin ziraten deitu,
antxen urtebat pasatu eta
etxera nizan bueltatu.
Ai zer gustora urte pare bat
egin nituben pasatu,
andik aurrera kalbarioa
neri zitzaidan tokatu.

9

Koñaduakin kostruzioan
neretzat irabaztea
napar aldean bearko eta
erdeaz nik ikastea,
gazte nitzan da gustatuzen zan
neskatxarekin nastea
ordu bat edo bestia,
gero lanian astia.

10

Ortik aurrera gaia badaukat
bertso geiego jartzeko,
garai arretan gure Españian
gerra zeguan lertzeko,
gerrara danok eaman ginduen
danok alkarri iltzeko,
norbait bizirik gelditu biar
orain emen kontatzeko.

11

Momentu txarrak pasa genduan
orain a[r]i naiz kontatzen,
Gerrara danok joan biarra
gutxi giñala bueltatzen.
Oaingo gaztiak ez dakizute
jarri zaitezte pensatzen,
Nik uste ordun orain bezela
bizie etzan estimatzen.

12

Amabigarren bertso onekin
egin biaizut¹⁹¹ bukatu,
egiak dira eta edoziñeri
egin zaizkizu kontatu.
Uruguaiako partian nago
nai [...]zu geigo enteratu.
Nai dezuna abisatu
gusto aundikin eingo dizubet
eska ori nik kunplitu.

¹⁹¹ *Biaizut*: Behar dizut.

BERTSO BAT JARRI NAI DET (1989)¹⁹²

1

Bertso bat jarri nai det
orain nik zuretzat.
Nik zu berriz ikustea
gustoa neretzat.
Baiñan azken urtiak
dirala guretzat,
ta bide luzia dagola
ni eta zuretzat.

2

Emeretzi urtiak
txarrak ez dirala.
Oiek gaizki pasatzia
merezi ez duela.
Jateko preparatu
aurrena kazuela.
Ondo danok pasatzia
deseatzeizuela¹⁹³.

3

Au ere esa[n] nai dizut
asi naizen ezkeroz.
Zutaz ez naiz aztutzen
etorri ezkeroz.
Berriz gu juntatzeko
nagola ni gogoz
Jaunan borondatia
daukagun ezkeroz.

4

Orain mendi aldian
artzai zabiltzete.
Bitartian boltxikuak
ondo zizez bete.
Bai bertago baleo
litzake bai suerte.
Ez nuke iltzerik nai nik
or zizek jan arte.

5

San Migel aingerua
lagundu naizaizu
berriz ni orrerako
buelta emantzazu.
Neure desejo guziak
zuetaz artu zazu.
Larogei urte betetzea
lagundu zaidazu.

6

Gazte asko ikasi nitun
nik orko bideak.
Beti S. Migelak asko
nituan ideak.
An kutsian eta barurik
dauzkat pasatuak
neure amatxorekin
promesak artuak
gaxoak zeruan eukiko ditu
danak kobratuak.

¹⁹² BS. *Circa* 1989.

Zazpigarren bertsoetik neurri aldaketa dago.

¹⁹³ *Deseatzeizuela*: Deseatzen dizuela.

7

Zer polita da mundo onetan
bizitutzia pakian.
Alkar maitatuz obegua da
bizi alkarren artian.
Alde guzitik obeto danok
bizi geran bitartian
eta zerua seguro degu
beste mundura juaitian.

8

Asko munduan bizitzen dira
dana naian beretzat.
Asko sobrate iduki arren
ezertxo ez besterentzat.
Munduon eta bizi den arte
lagunik ez du beretzat.
Gero Jainkuak zeruan ezta
ez du lekurik orrentzat.

9

Aitagutxiak esaten dizu
egia garbi ta klaro.
klase ortako jendearekin
ezer etzazu espero.
Bear bezela bizi zaitea
zu orain eta gero.
Modu orretan bizi bazera
zerua dezu seguro.

10

Lana eitia oso ona da
arren etzaitez arritu.
Gorputza dezu liraña eta

begian ondo garbitu.
Kontziekin lagun artian
beti egin zaiz arkitu.
Gero azkenian gure Jainkuak
beretzat eingo zaitu artu.

11

Amaikagarren berttua da ta
bestearekin azkena.
Neure esanak goguan artu
sartu ditzazu barrena.
Desejo faltik ez dadukat nik
Noiz ikusiko geran urrena.
Jaunak nai badu urrengo urtian
kunplituko da dana.

12

Ausen da dana oraingo aldian
nere biotzeko kutuna.
Denbora luze egiten zaio
batek espero daukana.
Neure partetik artu dezazu
desejoetan onena.
Biotzez orain barka zaidazu
zerbait nik gaizki esana.

Maiatzak du gaur amasei
egun señaigarria.
Jaunan bitartez bai zure amak
mundura zu ekarria.
Deseo dizut gaurko egunian
kabitu eziñik alegria.
Ez det uste nik penaz zaudenik
mundu ontara ekarria¹⁹⁴.

¹⁹⁴ Bertso hau besteekin batera dago baina sorta berekoa ote da?

EDURNE ETZERA ZU¹⁹⁵

1

Edurne etzera zu, nitaz akordatzen.
Orrengatik karta gutxi, dirazu bialtzen.
Asia egongo zera, mutillai beidatzen.
Neretzako denborik, ez dala gelditzen.

2

Negue orain trankilo, a[r]i zera pasatzen.
Gero primaber[a] aldian, lana da agerzen.
Belarrak ein biarra, dala or tokatzen.
Festarako denborik, ez dala gelditzen.

3

Lenago [e]re eiten genduan, lan klase oiek an.
Festetarako denbora, artutzen gendu[an].
Beikuak eginda Mallotik, ekartzen genduan.
Naiko belarra neguan, izaten genduan.

4

Lengo posturati orain, dala diferente.
Daukazutela orain, boltxikua fuerte.
Kamiona alfalfak, etxia bete arte.
Gero ardiak esnia, ematen du fuerte.

5

Edurne artzaien bat, zuk artuko dezu
arkumia ta esnia, lasai izangozu.
Bañan ezkontza biajian, onera ekar zazu.
Konpromiso orrekin, noiznai artu zazu.

6

Zuk esango dezu osaba, zer a[r]i zera esaten?
Ezkontzeko gauzik, ola ez da esaten.
Oraindik gaztia nago, nei utzi pensatzen.
Ortan arrazoia nik, zui dizut ematen.

¹⁹⁵ BS. 1980ko hamarkada ingurukoa omen da.

7

Gaztiak dibertitu, biar du aurrena.
Gauz oietarako denbora, badator urrena.
Gurasuak erakutsia, egin zuk aurrena.
Gero pensamentua, zuretzat azkena.

8

Orain jarri dazkizut, zortzi berso berri.
Oiek zuk leitzian, eingo dezu irri.
Zer esango dirazun, ni emen nago larri.
Maite al dezunian, onera etorri.

BERSO BATZUEK JARTZEKO DAUKAT¹⁹⁶

1
Berso batzuek jartzeko daukat
pensamentua artue.
Etzazula uste nenguala ni
oraindik zutaz aztue.
Zuri gustoa nik egitia
itzate[n]¹⁹⁷ naiz ni poztue.
Or bialtzen det zuk leitzeko
zuk kartian eskatue¹⁹⁸.

2
Bi osabak or bersolariak
ni bañan askoz obiak
ora[i]ndikuan¹⁹⁹ ez al dauzkezu
batere oiek jarriak.
Ondo egiñaz alkarri beti
jakin alkarren berriak.
Esa[n] niezu nik baña obiak
dozenatxo bat berriak.

3
Gutxi dakinak asko ezin egin
ori guztiok dakigu.
Bañan alare zerbait gustora
jarri nai izaten degu.

Zuri gustoa nik egitia
desejuan daukagu²⁰⁰.
Orandikuan Jaunak nai badu
alkar ikusiko degu.

4
Egunik ez det oraindik pasa
zutaz ni emen aztuta.
Zure karta nik artzeteanian²⁰¹
gelditutzen naiz poztuta.
Iru illabete etorria naiz
zuek or danok utzita.
Emen esperan zeuden guziak²⁰²
pozez danak alkartuta²⁰³.

5
Triste atera neure²⁰⁴ etxetik
zuek utzita negarrez.
Gu onera allegatzian
guztiok giñala parrez.
Geroztik emen gabiltzala gu
ezer ein gabe alperrez²⁰⁵.
Aitaren berria ikasi gendun
lanik ein gabe nola ez.

¹⁹⁶ BS. 1980ko hamarkadaren bukaera aldekoa omen da.

CUn bertsoon beste bertsio bat dago.

¹⁹⁷ CUn *izate[n]*.

¹⁹⁸ CUn bertso honen errima *-tua* da.

¹⁹⁹ CUn *Oraindikuan*.

²⁰⁰ Ibidem *badaukagu*.

²⁰¹ *Artzeteanian*: Hartzen dudanean.

²⁰² CUn *berriz*.

²⁰³ Horren aurretik hau dago: *biaje ona tokatu eta esperuan / emen danak alkartuta*.

²⁰⁴ CUn *gure*.

²⁰⁵ Ibidem *Gu onera allegatzian guziak / zeuren parrez. / Geroztik emen gabiltza / lanik ein gabe alperrez*.

Neskatx ederra egongo zera
gelditu ziñan bezela.
Ondo janzita leku askotan
gaztiak beidatuz ala.
Zure atxegutxik deseatzan du
Jaunak nai izan zala
urte askoan osasunekin²⁰⁶
alkar ikusi zaigula.

²⁰⁶ *Ibidem osasunakin.*

90eko hamarkada

NEURE BIZIA NOLAKUA DAN (1991)²⁰⁷

1

Neure bizia nolakua dan
noa bertsotan jartzera,
Egun batian pensatu nuan
ni onera etortzia.
Gerra onduan obirik gabe
zalla zan bizitzera.
Lana eginda etzagu falta
zeñekin falta eltzea.

2

Amabi ordu oian pasa
deskansatua jeki naiz.
Amabietan ondo bazkaldu
berriz siestara juate[n] naiz.
Lenago asko ei[n] nuan bañan
orain ordaintza ari naiz.
Azkeneko zar-parte au
ondo pasatzen adi naiz.

3

Goizian jeiki oietik eta
kanpora euzkia artzera,
paseotxo bat ortxen eginda
amabitan bazkaitera.
Andre gaxuak zer bazkari daukan
trankilo nua jartzera,
kafetxo on bat lasai artuta
berriz oie zanzatzera.

4

Iruek aldian andik jeiki ta
paseontxo bat egin,
gero kartetan dibertitze[n] naiz
neure andretxuarekin.
Neure bizia nolakua dan
obeto nai badezu jakin,
etorri onera eta
bizitu zaitez nerekin.

5

Larogeitabi urte nituan
lengo igandian bete.
Famili ederra juntatu giñan
sala egin zan bete.
Apetitu ederrarekin danok
jan da edan fuerte,
ola despeditu giñan danok
urrengo urtea arte.

6

Gure Jainkuan borondatia
bera kunplitu dedilla,
porsiakaso etzaitez asi
propio beraren billa.
Baldea putzura erorzen bada
soka ere jua[n] dedilla.
Berriz piztutzen zalla izango da
gelditutzia bat illa.

²⁰⁷ BS. 1991ko uztailaren 25ean jarriak.

7

Gauza guztiak gora dijuaz
gure edadia bezela,
gauzak igual ez dira izan
nik iñoiz pentsatzen nuan bezela.
Ekibokatu egingo nintzan ni
xexaro [sic] arduakin bezela,
uste nuan nik beti izatia
ogai urtetan bezela.

8

Boton bat ortxen aurrian dago
bista daukanak ikusi.
Gauzak nola egin denbora dala
egin zazute ikasi.
Juan da gero presarik ez egin
urak eiten du igasi.
Saia zaitezte onez aurrera
al dan obekina bizi.

9

Guraso zarrak erakutsia
iñoiz aztutzen eztana,
berak egin da ginduen azi
biretan jarri zuzena.
Damurik ez degu izango
egin aik erakutsi ziguena,
azkenian danok juntatutzeko
zeruan alkarrengana.

10

Jaungoikoaren laguntzarekin
esperantza ori badaukat,
iñori gaizkirik egiñan
kargurikan ez daukat.
Gutxi bada ere ondo eitia
beti gustatu izan zat,
orreatikan zar-parte ontan
ezen faltarik ez daukat.

11

Amaika bertso dira onekin
ez dira oso bikañak,
oiek obeto jartzeko ez dauka
abildaderik mingañak.
Konformatu bearra daukagu
bakoizak berak egiñak.
Fiesta ederrak izandu ditu
illa onetan Iruñak.

12

Amabi bertso dira onekin
eta berakin azkena.
Gauza guziak egiak dira
ez det nik jarri ez dana.
Orain artian ibili gaitzan
onez aurrera zuzena
barkazioa eman zazute
borondatez euskaldunak.

BERTSO BATZUEK JARRI NAI DITUT (1993)²⁰⁸

1

Bertso batzuek jarri nai ditut
motiboa ema[n] dirate,
Arjentinara jua**n** biarra
Uruguaijok daukate.
Anibertzarioa dadukatela
an Mar del Platan presente.
Kuadrilla ederra bi onibusekin
an egin giñan patente.

2

Egun pare bat pasa genduan
ezin da obegokuak,
Jan da edan lasai eginda
ekusi dibertsioak.
Bi egun da larogei dantzarik
ikusi bai famosuak,
Euskaditikan etorri dira
kanpeon da famosuak.

3

Gure euskera galdu ez dedin
danok gaitezen saiatu.
Lagundutzeroa al dan moduan
parte**a** dezagun artu.

Saia gaitezen guztiok orain
gero etzaigun damutu.
Gure erria zepo oietatik
egin dezagun libratu.

4

Anziñetako gure aitona**k**
eziñez aurkitu ziran.
Pena aundikin gure bandera
lapurrak eraman zuan.
Lau probinziak morroi gaudenak
beste iru daude Franzian.
Bertso ederrak jarrikoitugu²⁰⁹
Zazpirak bat juntatzian.

5

Akordatze[n] naiz eskolara ni
lendabiziko urtetan,
prohibitua jarri ziguten
itz egitia gure izkunzan.
Orreri kontra ezin egiña
guretzat pena izan zan.
Gaurko egunian irabazi da
Ikastolak jarri ziran.

²⁰⁸ BS.

Bertsook 1993 urtekoak dira, lehen ahapaldian ematen den informazioaren arabera. Bertan Argentinako Mar de Plata hiriko euskal etxearen *anibertzarioa* aipatzen da. Mikel Ezkerrok argitu zigunez (2004-XII-16), Denak Bat izeneko euskal etxe hau 1943an fundatu zen; eta lehen mende erdia bete zuenean, jai erraldoi bat antolatu zen, Argentina osoko eta Uruguai**k**o euskal etxeetako ordezkari**tz**ak bilduta. Uruguai**k**o ordezkari**tz**arekin batera joan zen Mar de Platara Inazio Argiñarena. Argentinako Marcelino Iriani eta Madgalena Mignaburu ikerlariek ere hau argitzen lagundu digute. Cf. ALVAREZ, Adriana; *Historia del centro vasco Denak-Bat. Mar del Plata*, Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco, 2002.

²⁰⁹ *Jarrikoitugu*: Jarriko ditugu.

6

Geuren erritik kanpora gabilz
ardi galdua bezala.
Otsuak dabilz nundinaitikan
Euskera akaba dezala.
Jaungoikoaren graziz oraindik
guztiok junta gaitzala.
Nunai gerala sentitzen degu
gure errian itzala.

7

Neure partetik nai det nik egin
Euskeran alde guzia,
Izan dezagun egun on batez
apartatzeko grazia.
Jaiotz[e] ezkeroz aurrena dala
erain biar azia,
Guztiok lotan jartzen bagera
guretzako desgrazia.

8

Al[a] anaiak artuak alkar
guztiok saia gaitezen.
Gure erria lapurretatik
egin dezagun libratzen.
Gure odolak orrelakorik
iñoiz ez du ametitzen.
Arrazoa guk daukagu eta
Zazpirak bat geran izaten.

9

Bertsolaria ez naiz izandu
egiak nai ditut esan,
besten mendian gu bizitzeko
jaiuak ez gera izan.

Oien mendetik apartatuta
nai gendukela izan,
al[a] anaiak alkar artuta
Jaunari eska zaiogun mezan.

10

Orra amar bertso gaizki jarriak
Euskaldun batek atera.
Gaztañak janez ikastazute²¹⁰
Euskaldunaren tankera.
Egun batian neure erritik
egin nintzan ni atera,
deseo faltik ez dadukat nik
buelatzeko bertara.

11

Amar bertso euskaldunak kantatzeko
eta gure penak aztutzeko.
Egun batian jaio giñan
il artian bizitzeko.
Ez penik izan orregatik
mundua dago sufritzeko.
Gure Jaunak zabalik dauzka
Zeruko atiak guretzako.

12

Amabi dira orainguakin
eta berakin azkena.
Guk biotzian artu dezagun
nik orainguan esana.
Sekulan penik izan etzagun
gu Euskaldunak izana.
Inazio naiz Argiñarena
Naparruan jaio izana.

²¹⁰ *Ikastazute*: Ikas ezazue.

ZURE BERSUAK AURRETIK (1993)²¹¹

1

Zure bersuak aurretik, eta neriak atzetik
Bijok ortxen gabiliz, alkarren atzetik²¹².
Etzaitut nik utziko, sekulan atzetik.
Nai dizutelako ondo, nere biotzetik.
Jaunak eaman arte, segi zagusun betik.

2

Arrazoi aundiak orain, dituzu kantatu
Nai badute lagunak, ondo entenditu.
Ondo da beti alkarri, eitia segitu
Eta arrazoi onak, beti ondo artu.
Munduban euskaldunan, ein zaigun segitu.

3

Alkarren kontra gabiliz, bi grupo euskaldunak.
Ez ditugu ondo pasao, askotan egunak.
Geuren erritik urrun, or bizi geranak.
Alkar ondo artzia, komeni da danak.
Izan gaitezen danok alkarren lagunak²¹³.

4

Neure anaiak esan du, klaro eta garbi.
Juntatu giñezkela, bi zentroak alkarri.
Batetik Euskalerrria, ta zentro Euskalerrri.
Bestenaz or gabiltza, askon parragarri.
Ez da komeni ibiltzea, ortxen zuek igarri.

²¹¹ BS.

²¹² Makinaz idatzitako beste orri solte baten lehenengo bi ahapaldiak daude. Bertan honela dator: *Bijok antxen gabiltza, / alkarren atzetik.*

²¹³ Bertso honetan, Montevideoko bi euskal etxeren arteko liskarraz ari da, 1990eko hamarkadaren hasieran biak elkarte bakar batera biltzeko ahaleginak egin zirenekoa. Bi euskal etxeok Euskal Erria eta Centro Euskarro Español ziren.

5

Iru egun ederrak, or pasa ditugu.
 Arjentinatik ere, etorri zazkigu.
 Euskaldun jatorrak, agertu zazkigu.
 Dantzan eta aizkora, jarraitu zazkigu.
 Gu joan izan giñan, bañan ordaindu digu.

6

Beatzitan izan gendu, meza nagusia.
 Josemari Zubizarretak, euskeraz guzia.
 Emen ezkendun ikusi, olako klasia.
 Ederki bete zuela, eleiza guzia.
 Despeidan San Inazion, martxa ta guzia.

7

Amarretan giñaden, mezik atera
 Kalejiran artu gendun, guztiok parte.
 Dantzaten juan giñan, aiuntamentura.
 Aizkora apustua, antxen ikustera.
 Aiek eman ziguten, danori gustora.

8

Zortzi grupo ziran gero, ezpatadanza[rik]
 Gustora euki gendun, begiratzen begik.
 Aspaldin ez genduan, ikusi olakorik.
 Arjentinan fuerte, dabilz euskalarik.
 Segi zaiogun danok, kostunbre oierik.

9

Ori bukatu eta, goaz bazkaltzera.
 Sartu giñan guziok, zentro aundi batera.
 Ori bukatutzian, Arjentinok jira.
 Guztiok joan giñan, aik despeditzera.
 Txaluak izan ziran, aien despedira.

10

Au da amargarrena, eiten det kantatu.
 Zazutela ondo leitu, eta mediatu.
 Gauza ortan partia, egin zagun artu.
 Ez egiña azkenian, etzaigun damutu.
 Sekulan euskaldunak, gaitzan apartatu.

11

Euskaldun guziak, pakia betiko.
Naitasuna ez dedin, falta danentzako.
Beti euskeran alde, gerala ibil[iko].
Orren alde degula, bizia utziko.
Eskatzen det pakia, orain danentzako.

12

Ija bada onekin, danok entenditu.
Bi zentroak alkarri, gaitezen juntatu.
Ez erdaldun oien itzak artu²¹⁴.
Gu beti euskaldunak, zagun alkar artu.
Sekulan iñork ere, gaitzan apartatu.

²¹⁴ Neurria osatzeko zerbait falta da.

BERTSO BATZUK JARTZEKO (1994)²¹⁵

1

Bertso batzuk jartzeko
Asmua artu det,
Emen zer pasatzen dan
Orain esa[n] nai det,
Gosean bildurrik beintzat
Orain emen ez det,
Mundu zabalian gaur
Miseria aitzen det,
Ori gerran isatsa dala
Nik ala esango det.

2

Gerrak gauz onik ez du
sekulan utziko,
Miseria eta gosea
bai askorentzako,
Fanfarronak badira
dana okertzeko.
Komedik izaten dira
Ori zuzentzeko.
Askorentzat ordua
Bat bertan iltzeko.

3

Fanfarron asko gaude
Oraidik munduan,
Ez nuke jarri nai ni
Lagun aien onduan,
Pakian lagunduaz
Al degun moduan,
Leituak gaude askotan
Kristoren liburuan,
Ez dakit zer jartzen zaion
Askoren buruan.

4

Euskalerrin pasa nitun
Nik berrogei urte.
Gurasoan ondoan ondo
Gerra asi arte,
Gerran ibili biarra
Ondo negon arte,
Erituta joan biar
Andikan aparte,
An ibiltzeko balio
balio ez nun arte.

5

Lana eman ziraten
Egin nezakena,
Famelia mantentzeko
Etzen jornal ona.
Amabi urte pasa nitun
Asperaldi ona,
Onera etortzia pensa gendun
ta ez dadukat pena.
Irugarren gizaldian
Etorri da amaikagarrena.

6

Bost seme ta andriakin
Ni dirurik gabe,
Ue ordaindu arte ni
Lana egin biarra egun eta gabe,
Ori pagatutzian gu
Denok konforme gaude,
Berrogei urte pasa
Gendun aorratu gabe,
Beste berrogejoian
Igual ez gaude.

²¹⁵ BS. Amaieran agertzen denez, 1994ko urriaren 14koa da.

7

Berrogeita bost urte
Beteta a[r]i naiz kantuan,
Oz bi edo iru pasatu ditut
Urte oietan munduan,
Gustora etziñan izango
Beti nere onduan,
Zerbait esa[n] nai nuke
Nik zer egin nuan,
Alditan tokatutzen zan
Egin biarra belz lanian.

8

Orain zartua nago ta
Naita [e]re ezin,
Ekusiagatikan eiten diot
Mozin egin naita [e]re ezin,
Gaztea nitzanian
Eiten nun edozein,
Akostunbratzen adi naiz
Uzten nai duanak egin,
Ekusteak ere ez dit
Onik eiten begin.

9

Auker[a] au izan banun
Oetabos urtekin,
Gaur ibiliko nintzan
Beste txakurrakin,
Nik egi[n] nitun lanak
Edade orrekin,
Pagatu zizkiraten
Pezta zikiñakin,
Orain ez da ordaintzen
Neure esanakin.

10

Konformatutze[n] nai ni
Danari beidatuta,
Oriek mantendutzeko
Ezeren faltik ezta,
Gaur berrogeita iru
Danok juntatuta,
Konformatutzen naiz
Oik ola ikusita,
Ta ni osasunakin
Oietik jekita.

11

Uruguaien nago ni
Fameli danakin,
Onera etorria
Ez nago penakin,
Lenago etorri naita [e]re
Biderik ez jakin,
Noizbait bear da ikasi
nuan Jaungoikoakin,
Ez daukat damurik nik
Lan parte orrekin.

12

Amabigarren bertsuarekin
Egin biar det bukatu,
Euskalerriko gazte jendiak
Egin dit ala kantatu.
Ongi egillen bat arkitzen bada
Faltak dezala tapatu,
Neure burua eta begiak
Egiñak daude zartu,
Ondo jarriak ez dira izango
Bañan mesedez barkatu.

BERTSO BATZUEK JARTZEKO DAUKAT [2] (1994)²¹⁶

1

Bertso batzuek jartzeko daukat
pensamentua artua,
bear bezela oiek jartzeko
eskas daukat talentua.
Badakit ondo zeñek dadukan
gauza guzian kontua.
Jaun zerukua eman zaidazu
neuri entendimentua.

2

Larogeita bost urte ez ditut
munduan alperrik pasatu,
eunero zerbait lana eiteko
beti egin zait agertu.
Ni lanik gabe orain artian
sekulan ez naiz gelditu.
Zazpi urtekin etxeko ardiak
egiten nitun kuidatu.

3

Andik aurrera zer egi[n] nuan
nai nuke dana kontatu.
Papeleran bat aurrera nosko
egin biarko det billatu.
Lenengo lana zer izan nuan
egin det nik esplikatu.
Gerran ere allegatu naiz
naiz ondoan ez pagatu.

4

Obligazioz egin biarra
askotan egin zait tokatu.
Besoa ausita bialdu niñuen
alare jua[n] nitzan konte[n]tu.
Olako lanik boluntarios
iñor ez dezala artu.
Denbora gutxin egondu nitzan
gorrik ein gendun pasatu.

5

Aurrera gerran segitutzeko
inutil utzi nituan.
Amabi urte pasa nituben
naiko aspertu artian.
Euskalerrria alde bat utzi
nago Amerikako partian.
Dirurik gabe berrogei urte
ni onera etortzian.

6

Bos seme txiki eta andria
eta ni aien nagusi.
Emen konforme arkitzen gera
naiz gorriak or ikusi.
Etxera gauzak ezin ekarri
naiz ez merke erosi.
Orduko guardik nik Espaiñian
ez ditut nai geigo ikusi.

²¹⁶ BS.

7

Bi illabete ogirik gabe
pasatu gendun Alhasun.
Alkate jaunak merezi zuan
erretzea bea labesun.
Erri guzia ogirik gabe
jaiean komenioa artzen zun.
Parroko jaunak jai batian
komuniok gabe utzi zun.

8

Olako gauzak pasatu eta
egin nintzan ni aspertu.
Oneraño etorri nintzan emen
egin naian probatu.
Berrogeitabos pasa ditugu
oaindik ez gera aspertu.
Edozein lekutara joateko ere
dirue zaigu agertu.

9

Matrimonioa bost semerekin
egin giñan gu etorri,
etxeko gauzak piskabat bañan
diruik ez gendun ekarri.
Berrogeita iru arkitzen gera
begiratuaz alkarri,
laneako erramienta badaduka[gu]
amar fameli ta lanean jarri.

10

Egie esatia beti on dala
neri erakutsi ziraten,
orregatikan dana dan bezela
adi naiz eskribitzen.
Denbora gutxin familie gora
adi zaigu amentatzen.
Jaunak emanak ondo artu biar
ez naiz ni ortan kejatzen.

11

Euskalerrian asko egiteko
epoka txarra zitiran tokatu,
iru urtean gerra izan genduan
asko zigun orrek lapurtu.
Eta batek datorren bezela
egin biar artu,
motiboa zer izandu zan bat
orain ein degu garbitu.

12

Amabigarren bertsuarekin
egin biar det bukatu,
gustora duten euskaldunak
egin dezaten kantatu.
Batek gustora kantatzen badu
besteak gustora aditu,
oartu gabe egiten dute
egun ederra pasatu.

BERTSO BI ORAIN JARZIA (1994)²¹⁷

1

Bertso bi orain jarzia
Ez da gaizki izango,
Ola atsalde guzia ez naiz
Ezer ein gabe egongo,
Eta ola jendiak dana
Eingo du jakingo,
Oraindikan daduzkat
Amaika amigo.

2

Len asko nitun bañan
Asko dirade eamanak,
Kanposantu txiki bat
Arrek ditu janak,
Danori ere orrek
Emango dazkigu lanak,
Emen ez da gelditzen
Iñor fanfarro[i] izanak.

3

Bateri iduritzen zaio
Ondo dabillen arte,
Oraindik gaztea nago
Joan neiteke aparte,
Ibiliko da al dun bezela
Jainkuak nai dun arte,
Ez leurririk jarri
Zuk nai dezun arte.

4

Larogeita bos urte dauzkat
Ta ez dirade txarrak,
amaika lekutan maitu ditut
Neure beso ta iztarrak,
Neure ondotik jua diranak
Askotan txakurrak,
Bestenaz joko zuten
Arri kozkorrak.

5

Españin da Amerikan
Zerbait ibili naiz,
Milagrorik neure begikin
Ikusia ez naiz,
Pobriak lana ein biar
Orti eskapatzen ez naiz,
Askok edozein gauza esan
Bañan beti pobre naiz.

6

Gezurra batek zertako esan,
egiak dauzkat sobrante,
Beti egia esango det nik
Mingaña libre daukat ene,
Sekulan eztu gezurrak izan
Oraindik nerekin parte,
Txakurra bezela ibiliko da
Beti nigandik aparte.

²¹⁷ BS.

7

Berrogeita bost urte dirade
Ni onera allegatua,
Amaika bidez gelditua naiz
Nere lanetik nekatua,
Edadez pasatua nago ta
Orain daukat barkatua,
Gaztetandikan izandu nitzan
Bai bastante mobitua.

8

Gaztia beti dibertitzen da
Zartua bañan obeki,
Akordatze[n] naiz pobre izanik
Dibertitua ederki,
Gazte jendia dibertitzen da
Españin emen baño obeki,
Jendiak ondo jakindu dezan
Egia beti obeki.

9

Orko malloak ez dira txarrak
Aize freskuak artzeko,
Bioznako iturrin pago azpian
Ur freskua edateko,
Gazte zautenak probatu biar
Zein dan onena jakiteko,
Zizek o ontoak zartai batekin
Prejituta an jateko.

10

Gauz oiek danak egiña nago
Oso gaztia nintzala,
Probatutzia ez dala txarra
Nik egi[n] nuan bezela,
Gero bertsotan jarri
Jendiak jakin dezala,
Mundu aundia iruditzen da
Txikia gelditzen dala.

11

Oartu gabe pasatu zazkit
Neuri larogeita bos urte,
Toki berriak nik ikusiaz
Nai det nik pasa beste oinbeste,
Tokitan lana jai ta aste,
Beti egin biar presente,
Erraza dala zuk uste,
Proatu²¹⁸ ta papelian jarri zazute.

12

Amabi dira ia onekin biar ditut
Nik bukatu,
Al dan bezela batek jarriak
Egin zazute kantatu,
Erregalo danentzat
Ezer ez dezu pagatu,
Gizon zar baten borondatia
Danontzat ortxen daukazute artu.

²¹⁸ *Proatu*: Probatu.

AHIJADITA MÍA TE QUIERO CANTAR UNA CANCIÓN²¹⁹

Ahijadita mía, te quiero cantar.
Escuchen todos con mucha atención.
En mis brazos tomaste, bautizo de religión,
ahora tienes un compañero para tu ilusión
pero no os olvidéis de Dios, hasta la redención.

²¹⁹ BS. Circa 1990eko hamarkada.

Zalantzarik gabe, bertso elebidunok Edurne alababitiaren –beste konposizio batzuetan ere agertzen dena– prestatu zituen.

Datarik gabeak

ANAIA JARRI BIAIZUT²²⁰

1

Anaia jarri biaizut²²¹
bersotxo berri bat.
Uste nuan betiko utzi
gaituzula alde bat.
Orain gure erria
utzirik alde bat.
Emen agertuko zera
euskaldun berri bat.

2

Zuriak jasota daude
ez ditugu saldu.
Aiek kantatzen rato bat
ein biagu²²² galdu.
Primabera ontan zuk
egin zizek bildu.
Guardatuaz ardiak
ez ditezen galdu.

3

Txintxo egongo zera
ardiei begira.
Bañan egun batian
egin biar jira.
Besuak zabaldurik
dizugu espera.
Danak or ondo utzi
despeidatutzia.

4

Anai eta illuak
ta erritar danari,
zein ondo bizi giñan
launduaz alkarri.
Sekulan etzat aztuko
Errazkingo erri.
Neure partetik musu bat
eman, ta gero etorri.

5

Neure anai Antonio
fameli guztikin,
ondo zabiltzetela
orain Migelekin.
Noiz arte izango dan
oi iñoz ez jakin.
Bukatutzen dizut orain
nik berso onekin.

6

Berak eginda azi
gure gurasuak.
An utziak baditut
nere senidiak.
Berakin eman nituan
lenengo pausuak.
Leurtuta utzi nituan
mendi ta basuak.

²²⁰ CU.

²²¹ *Biaizut*: Behar dizut.

²²² *Biagu*: Behar dugu.

BEIN MIGELEKIN AN ZOTZ AUNDIAN²²³

1

Bein Migelekin an zotz aundian
ai giñan belar ebakitzen.
Maxeleneko bi anaiak an
gurekin zan itz egiten.
Esan genduan segituzagun²²⁴
aber genduan bukatzen.
Ikusi gendun Marzelinok
an parrez giñula burlatzen.

2

Orduan biok esan genduan
burla ori etzan gustatu.
Gozagun fuerte egiten degun
beste zotzera mudatu.
Esanda egin berak utzita
zotz luzian presentatu.
Aik joateako bireño guk
egiña gendula moztu.

3

Gezurrik ez det batere esa[n] nai
egiak dauzkat sobrante.
Orduko gauzak nola izan ziran
oraindik dauzkat presente.
Ni neure erriaz ez naiz aztuko
arnaserik daukaten arte.
Gogo aundia dadukatela
emateko besarka bat fuerte.

²²³ CU. Migeli jarritako bertsoak dira.

²²⁴ *Segituzagun*: Segitu dezagun.

BERSO BATZUEK JARRI BIAITUT²²⁵

1

Berso batzuek jarri biaitut²²⁶,
egin zazuten kantatu.
Lenagokuak nonbaitan daude
egiñak ondo pasatu.
Gure bizia nolakua dan
egin bijar det kontatu.
Ez det ezertxo ere egiten
jan da ean da paseatu.

2

Zarzera on bat neri etorri
ezin det orain ukatu.
Lana lasai ei[n] nuan bañan
orain zaizkit bukatu.
Ainbeste beiak nituen bañan
bat ere ez tet gelditu.
Alare euzkiak goiz-goizian
euna eiten du argitu.

3

Martintxo espera izandu gendun
beñere etzan agertu.
Neure ustian paraje oek
ingo zitzaion gustatu.
Andregai on bat egingo zuan
obenian emen billatu.
Amari bueltan zer regalua
ingo zion presentatu.

4

Ama Salomek an esango du
gauza ori aditzian.
Lengo erua zeok oraindik
eztuk ez zurtu zartzean.
Emen nik arreglatukot gaur
edo biar etorzian.
Bañan alare etorri adi
bazeok esnia pertzian.

5

Salome zure seme-alabak
danak onduan zautela.
Buru etxeko falta zaitzue
Jaunak kendu dizutela.
Larogeita lau Jaunak emanda
oso xarra [e]re eztala.
Konformatu biarra degu
naiz aundie utzi itzala.

6

Asko oroitzen naiz neure erriaz
eman lenengo pausuak.
Legurturikan utzi nituan
ango mendi ta basuak.
Ta nere lagun guztiak eta
neure senide gaxuak.
Oraindikuan daduzkatela
ondo zentzu guziak.

²²⁵ CU. Bere arreba Salomeri jarriak.

²²⁶ *Biaitut*: Behar ditut.

7

Arraten sartu Malloa eta
Koldorroz edo Beluta.
Bete ederrak egiten gendun
belar ederra bilduta.
Jai atsaldian bukatu eta
etorritzian buelta.
Plazara juanda illundu arte
jotzen genduan pelotan.

8

Aitzartetik Mentoitzeraño
zotz aundik eta zoz luze.
Kablian bota [lialurritara]
etzen bidia oso luze.
Ardientzako etzela txarra
andik ekartzen zen gauze.
Belarrik orain ez dala ekartzen
baizik pardela zize.

9

Gure orduko neke guztiak
orain ez dute balio.
Piskat pentsatzen jarri ezkeroz
laordentxo bat olio.
Gezurra dala esango luke
bateri esango balio.
Ez Errazkindar bakarrak baña
badoaz Betelu ta Araiz guzio.

10

Iñoiz edo bein egiten badu
bati edo beste agindu,
arpegi txarra lenengo jarri
oso gustora egin ez du.
Neure ustian mundo guztia
egin biar dala galdu.
Modu onetan segitutzeara
oso luzaro ezin du.

11

Gazte denboran nunai gendula
dibersioa formatzen.
Ezpañetako soñuarekin
igual giñan dantzaten.
Gaiztakeririk orain bezela
ez gendun guk pentsatzen.
Alkarri danok lagunduaz
sano giñan dibertitzen.

12

Berso onekin biat²²⁷ bukatu
adios beste bat arte.
Gusto badezu fameli artian
kantatzeko artu parte.
Etzazu pensa orain gaudela
lenago bezin aparte.
Lenago ez banaiz ni orrera juaten,
adios zu etorri arte.

²²⁷ *Biat*: Behar dut.

BERSO BATZUEK JARRI BIARKIZUT²²⁸

1

Berso batzuek jarri biarkizut²²⁹
neure arreba maitia.
Daukat gogua joateko orrera
musutxo bat emaita.
Zuen desejua badakit ondo
dala gu orrera juatia.
Gusto aundikin eingo dezula
iriki etxeko atia.

2

Bigarrena da berso auxe
nik kantatze[n] nizutena.
Esperantza det nik kunplitzeko
biotzez deseo dedana.
Alkarrekin or pasatu zaigun
gustora aundikin eguna.
Gure Jainkuai eskatzen diot
egin zaigula laguna.

3

Amabi bertso len ni jarriak
eingo zenduan kantatu.
Ez dirazu esan orain artian
ein zizkidazun gustatu.

Agustinakin egun batian
eiten zeanian juntatu,
boz ederrakin bion artian
ein dezazuten kantatu.

4

Piskat atzera begiratuta
eun batez ziñan ezkondu.
Andik aurrera lanan faltarik
etzenduala izandu.
Amaika seme bikañak zendun
egin da azi ta zuzendu.
Jarrita etzen denbora asko
egoiteko izandu.

5

Entenditzeko zerbait badira
ta au da bosgarrena.
Aspertu gabe utzi biaizut²³⁰
auxen dala azkena.
Mundu onetan nere ustian
asko egin degula lana.
Barkatu neri arrebatxua
ein nizun ofensa dana.

²²⁸ CU.

²²⁹ *Biarkizut*: Behar dizkizut.

²³⁰ *Biaizut*: Behar dizut.

BERSO BATZUEK JARTZEKO DAUKAT [3]²³¹

1

Berso batzuek jartzeko daukat
enkargue nik artue,
nola nagon ni gure errian
txapelkerian sartue.
Gure euskera galdu eztedin
aspaldin dala sortue,
Españik eta Franziak ere,
edade ori eztue.

2

Eskerrik asko gure aintariari
nitaz dirala akordatu,
gustora aundikin egingo det nik
partia zurekin artu.
Sur Amerikan arkitutze[n] naiz
urruti samar gertatu.
Bañan alare gusto aundikin
zuekin engo naiz sartu.

3

Uruguaien gertatzen gera
gu bi anaiak aspaldin.
Bañan alare gure euskera
itz eiten degu berdin.
Ogeita amabost urte pasiak
lagunduaz alkarrekin.
Al dan bezela gera gu bizi
Jaunaren laguntzarekin.

4

Milla eta beatzi urte pasata
berrogeita beatzian
bi fameliok etorri giñan
enbarkaturik Franzian.
Garai arretan gosia zegon
bai gure Euskalerrian.
Gerran ibili anaian kontra
loa egiñaz larrian.

5

Gauza tristiak alde bat utzi
bizi gaitezen alegre.
Gure erria egun batian
nolabait [...] agertzen.
Naziotxu au ona zan baña
atzera a[r]i da gelditzen,
zorra aundiak ein ditu eta
orain leurrak artzen.

6

Gure izkuntza aitz garbia da
eta oso atsegiña.
Erderazko itzak ez nastutzia
ein dezagun alegiña.
Askotan ola aditutzen da
alako itzaldi zikiña.
Al dan garbina egin dezagun
gure euskera bikaña.

²³¹ BS.

7

Zuen deia artutzen det nik
orain nago ni gustua,
iduditzen zat ortxen nagola
ni zuekin nastua.
Euskeran alde nik jarriko det
beti bai nere eskua.
Argiñarenak gaudela beti
euskeran alde prestua.

8

Zortzigarrena bera azkena,
orain kantatzen dutena.
Beti nai det ibili zuzena
eiñez gurasoai entzuna.
Jaunari grazi badet osasuna
baita ere ondasuna.
Barkatu neri gaizki esana,
pakia ta anaitasuna.

BERTSO BATZUK JARTZEKO²³²

1

Bertso batzuk jartzeko
asmua det artu,
gustora eingo nitzake
zun artian sartu.
Eta bertan bizitzeko
eingo det firmatu,
eiten banazute beintzat
bertan ametitu.

2

Askotan estorbua
onetaz aurrera.
Bañan famelin artian
an sartuko gera.
Permisorik²³³ eskatu gabe
gu beti aurrera.
Zuek igual egiteko²³⁴
etorri onera.

3

Zer gustoa litzaken
emen ekustea
edozein datorrela²³⁵
naiz bat [ed]o bestea.
Emen gu nola geran
bizi ikustera.
Gustora bueltatzeko
euskarako²³⁶ txokora.

4

Egun batean giñan gu
onera etorri²³⁷,
bi anai familiakin
seituaz alkarri.
Garai arretan Euzkadin
bazan naiko larri,
erosita [e]re gauzak ezin
etxera ekarri.

5

Berrogei urte betia
nintzan ni etorri,
sobratutako asko
ez nuan ekarri.
Gaztetan asi eta
lana bai ugari.
Pasajia emen paga biar
tokatu zait neri.

6

Jainkuaz aztu gabe
emen bizi gera,
beran laguntzarekin
atera aurrera.
Semiak azi eta
ezkonduak dira.
Billuak azitzen emen
orain bizi gera²³⁸.

²³² BS.

Bertsook eskuz idatzitako bertsoiaz gainera makinaz idatzitakoa ere badauka.

²³³ Makinaz, *permisoik*.

²³⁴ Ibidem, *eiteko*.

²³⁵ Ibidem, *dala*.

²³⁶ Ibidem, *euskara*.

²³⁷ Ibidem, *Egun batean giñan / gu onera etorri*.

²³⁸ Idem, *billuak azitzen orain / emen bizi gera*.

7

Neure istoria orain
a[r]i naiz kantatzen.
Ez dala erraza izan au
dana ondo pasatzen.
Orain lasaiago emen
naizela bizitzen.
Eunero Jainkuai grazik
adi naiz ematen.

8

Orain zartzera ona
egin zait arkitzen.
Osasuna ona daukat
ez miñik sufritzen.
Lasai neure zartzia
a[r]i naiz pasatzen.
Gaizki egiñak kontzientziak
ez naga estutzen.

9

Españian beatzi illabete
ein ditut pasatu.
Egun ederrak ere
egin ditut artu.
Nai nunian frontonian
eite[n] nitzan sartu.
An zer pasa zan gero
eiteko kontatu.

10

Pelotari ederrak
gu[r]e [e]rrian badaude.
Noanai ez dira joaten
debalde oriek.
Martinikorena ta bi Oreja
gure azuan daude.
Beste bik irabazten
komerik badaude.

11

Au da amaikagarrena
nik orain kantatu.
Oiek ekusten rato
ederrak ei[n] nitun pasatu.
Nola ez orain
oitaz oroitu,
sekulan ez naiz ingo
ni oitaz aztu.

12

Amabigarrenakin
biar det bukatu.
Nik jarri ditut beintzat
nai dunak kantatu.
Noiz berriz ingo geran
gu danok juntatu.
Gaizki esan badet
biotzez barkatu.

1

Beste batzuek jartzeko
 zuk or goguan artzeko
 eta gero kantatzeko.
 Nere bertsoak nai dituzu zuk
 konsejuak guardatzeko
 ta nitaz akordatzeko,
 lagunari erakusteko,
 beti zerbait ikasteko.

2

Amalau urte maiatzan
 zure jaiotza izan zan.
 Ni ortxen egondu nitzan
 nai izan arren orain artian
 eziña neretzat izan zan.
 Gure Jainkuan laguntzan
 orain nago esperantzan
 notizi onak dabiltzan.

3

Ez det esa[n] nai gezurrik,
 seguro ez nago oraindik
 baña esperantza badenik
 eguerri eunak or pasatzeko
 baldin badago gaztañik.
 Oriek jan ez nai det nik.
 Neure txokua maitet nik.
 Ez naiz aztuko inondik.

4

Nai det nik egon zurekin
 ezagutzeko alkarrekin
 ta zure fameli danakin

neure errian ni sartutzian
 errazkindar danakin
 negarra eingo det pozakin.
 Musue bustiz alkarrekin
 ez da aztutzen onakin.

5

Gero andikan aurrera
 alkarrekin eongo gera.
 Kontuak an izango dira
 urrengo eunian ikusitzera
 juango gera bordara
 ardi ta arkume ekustera.
 Neretzat ai zer gustora
 beran artian eongo gera.

6

Amesak a[r]i naz egiten
 nago ni zutaz pentsatzen.
 Sekulan ez naiz aztutzen.
 Gabon oietan beran denboran
 elurre bada agertzen
 eingo degu eskiatzen
 edo moñekak egiten
 beintzat danok dibertitzen.

7

Onekin beaizut²⁴⁰ bukatu
 ta zuk au goguan artu.
 Sekulan etzaitetz aztu
 zure aitagutxik nai duana
 beraz etzaitetz aztu.
 Ta gaizki egiñari barkatu
 biotzez ondo maitatu
 gero Jaunak zeruan artu.

²³⁹ CU.

²⁴⁰ *Beaizut*: Behar dizut.

EDURNERI NIK ORAIN²⁴¹

1
Edurneri nik orain
berso bat kantatu
esateko aspaldian²⁴²
ez gera juntatu.

Kariñozko besarka bat
egin zazu artu.
Pasatu diran gauzak
pazientian artu.

2
Sinisten det pena aundia
zuek dezutela artu²⁴³,
kariñua aspaldian
egin zala sartu.
Batzutan igual zuten
eiten eskapatu.
Askotan pazientzia
egin biar artu.

3
Agradezitzen dizut
nere biotzetik²⁴⁴,
beti ibili zera
beraren atzetik²⁴⁵:

Berak lagunduko dizu
ederki zerutik²⁴⁶.
Orrekin ez sekulan
eduki dudarik²⁴⁷.

4
Kunplitu du berak
zeru ta lurrian
beti gizona izan zan
danaren aurrian²⁴⁸.
Orregatik²⁴⁹ lagundu zien
azkeneko orduan,
bañan konforma biar
guztiok munduan.

5
Egun batzuk ditula
isilik pasatu,
egingo zuan berak
ederki sufritu.
Bestian²⁵⁰ esana
eiten zun aditu,
eta berak esanaia
ezin zun garbitu.

²⁴¹ BS.

CUn beste bertsio bat dago.

²⁴² CUn *aspaldin*.

²⁴³ *Ibidem Sinisten dut pena aundia // dezutela artu.*

²⁴⁴ *Ibidem biotzeti.*

²⁴⁵ *Ibidem atzeti.*

²⁴⁶ *Ibidem zeruti.*

²⁴⁷ *Ibidem dudarik eduki.*

²⁴⁸ *Ibidem aurrean.*

²⁴⁹ *Ibidem orregatik.*

²⁵⁰ *Ibidem Bestiaren.*

6

Gustatzen dazkizula
jartzera²⁵¹ bersuak.
Iñala egi[n] nai det
eitia gustoak.
Beti zaudela²⁵² esperuan
zabaldurik besuak
ez dauzkagu²⁵³ bide
oso erosuak.

7

Ez naiz aztuko zutaz
bizirik nagon arte²⁵⁴
Lastimatua²⁵⁵ nago
zugandik aparte.
Ema[n] nai det oraindik
besarka bat fuerte
Ez naiz trankilo biziko
eun oi etorri arte.

8

Zu ta²⁵⁶ zure aizpa
aitonan lagunak
ederki pasa zituen²⁵⁷
zuekin egunak.

Zuek emen utzia
zuben beran penak²⁵⁸.
Egun batez juntatuko
gera oraindik danak.

9

Au da beatzigarrena
besteakin buka,
zuen artian sartzia
orain nai nuka²⁵⁹.
Urte bin esperua
oraindik dadukat²⁶⁰,
bañan etorriko dala
esperantza daukat.

10

Onekin bukatzen det
nik beste bat arte.
Izan zaitzela²⁶¹ beti
orain bezin fuerte.
Ola deseo dizuet
ni berriz joan arte.
Jauna ez dedin ibili
gugandik aparte.

²⁵¹ Ibidem *jartzeko*.

²⁵² Ibidem *zaude*.

²⁵³ Ibidem *daduzkagu*.

²⁵⁴ Ibidem *bizi naizen arte*.

²⁵⁵ Ibidem *lastimasua*.

²⁵⁶ Ibidem *eta*.

²⁵⁷ Ibidem *zituben*.

²⁵⁸ Ibidem *izango zun penak*.

²⁵⁹ Ibidem *nik orain nai nuka*.

²⁶⁰ Ibidem *baduka*.

²⁶¹ Ibidem *zaitela*.

ERRAZKINEN JAIO ETA²⁶²

1

Errazkiñen jaio eta
urte askuan bizi
neure amak bularrakin
ein ninduben azi
baita lanian ere
ondo erakutsi
gero soldadu nintzan
juan lendabizi.

2

Gurasoak erakutsia
ez dala aztutzen
beti esaten ziguten
zuzen ibiltzen,
bear alditan launari
dijeau laguntzen.
Jaunak atzera sekulan
etzaitu utzitzen.

3

Soldaduska pasa eta
bi urte etxian,
oeta bos urte pasa
gurasoan saitsean.
Lana billatu nuan
an napar aldian,
gero gerra agertu
bi urte barruan.

4

Neskax bat antxen nuan
an nik ezagutu
berak ere gustora
ein zidan beidatu.
Nunbait ala izan biar
ein giñan saiatu,
berrogeita zazpi urte
juntoan pasatu.

5

Asko nai izan nion
ezagututizian
gero askoz geiago
ama izatian.
Neure semian ama
batek ekustean
gauza aundigokorik
ez dago munduan.

6

Berrogeita zazpi urte
pasa alkarrekin
beste ainbeste pasatzeko
konformidadeakin.
Noiz arte izango dan
oi iñor ez jakin
konforme gera Jaunak
nai borondatiakin.

²⁶² BS.

7

Pobria izan arren
ni beti kontentu
obeki bizi diranari
zuk ez beidatu
gaizkigo bizi diranari
zuk errax segitu
ola mundu au erraz
eiten da pasatu

8

Bañan atzera iñoiz
bagera gelditzen
naturaleza ori
etzaigu gustatzen.
Beti aurrera badegu
naiago ibiltzen
bañan ikasi zaigun
konforme bizitzen.

9

Berrogei urte Españian
pasatu nituan
geroztik nazio asko
ikusi nituan.
Argentina ta Brasil
Uruguai Franzian
konforme ibiltzen da bat
danak ikustean.

10

Nezesidadiak beti
joan bear aurrera
ez dute geitu nai iñork
danaren atzian.
Entendituko dezu
gizona bazera
atea eiki biar
sartuko bazera.

11

Amaika berso berri
ari naiz kantatzen
nere bizi guztia
a[r]i naiz esplikatzen.
Jendiak dana ondo
jakindu dezaten
Amerika aldian
nola dan bizitzen.

12

Au da amabigarrena
eiten det bukatu,
gusto duanak egin
ditzala kantatu.
beraz ondo esanak
zuk goguan artu,
eta gaizki ein badet
biotzez barkatu.

ERRAZKINGO NESKATXAK²⁶³

1

Errazkingo neskatxak
San Pedro goizian
zapatillak jantzitzen
Betelun sarrarian.
Axen ustian beintzat
obian non ziran,
dantzan Beteluko plazan
obenak aik ziran.

2

Otxokien alabak lagunari
keñu gosarie berenik
izango al diñagu.
Oik gui irabazteko
bildurrik ez diñagu,
Aik baño obeagok gu beti
izango gaitun gu²⁶⁴.

3

Aingeru batek neri
ein dit abisua
jai batez juan ziñala
Martin Albisua
pardel zizekin ziñan
zu juan etxera,
tortillean berakin
merienda gotxua.

4

Enbidie ematen
dirazu orrekin
olako gauzik ez det
ekusi aspaldin.

Gazte denbora nola
pasatu orrekin,
aztua negola ni
aspaldin orrekin.

5

Martin zu beti bezela
jaiek zuretzako,
astiak badauzkazu
piskat aspertzeko.
Neskazar on bat ortxen
pixkat tentatzeko.
Pazientzia biar
askotan artzeko.

6

Semiak azi zazkizu
zuri laguntzeko,
igual zer egiña
etzazu faltako.
Munduan egiña dago
lana guretzako.
Zalla izan da guretzat,
ortik eskapatzeko.

7

Jainkuan laguntzakin
osasuna ona,
ori ez dala falta
gauzikan onena.
Gaxo gaudenian iñoiz
ekusten deguna,
ondo dagonian bat,
akordatzen ez dana.

²⁶³ BS.

²⁶⁴ Zerbait falta dela dirudi.

8

Bakoizak ikusten ditu
bere juan etorrik.
Urtiak eamateitu²⁶⁵
urtiak ekarrik.
Oañ artian juan dira
onera etorrik.
Pazienian dago
egin gabe parrik.

9

Gauz oiek neretzat
garbi daude danak.
Ondo eiten ez dunak
eamangoitu²⁶⁶ penak.
Lau egun mundu ontan
izan gaitezen onak.
Gero izan gaitezen
Jainkuan lagunak.

10

Ondo entzun zazu beti
iñork ondo esanak,
ez dezu arren izango
sekulan penak.
Ni beti akordatze[n] naiz
nere aman esanak:
gizona ez du akabatzen
legurrian lanak.

11

Ezagutzen zaitut
Martin aspaldian
Gaiztakeri asko ez dezu
zuk egin munduan,

ibili diranak iñoiz
zure inguruan
beti ibili zera
Jainkuan legian.

12

Albiko zelaian dago
mai bat jarria,
musian legurtzeko
alkarri leurria.
Gezur gutxi eta
jatorrez egia.
Irabazten dunak
alegre begia.

13

Iñoiz egiñak gera
saio on bat ortan.
Irabazi aldetik
gelditua nintzan.
Geigo jokatu naian
gelditua nintzan.
Lastima juntatzeko
urruti gabiltzan.

14

Broman asi naiz eta
ia amaika bertso.
Ia onekin dirala
dozena bat oso.
Bertsotan izan ziñan
zu beti airoso.
Berriak orain jarri
ta zarrak egin jaso.

²⁶⁵ *Eamateitu*: Eramaten ditu.

²⁶⁶ *Eamangoitu*: Eramango ditu.

FESTA EGUNA ARDANORI²⁶⁷

1

Esan biar det momentu ontan
danori berso onekin,
gaurko egunian mundu onetan
egin nuala nik ekin.
Zer komediak pasatu biar
batek egin balu jakin
seguro nago lenengo lana
negarra nuela egin.

2

Egun ortantxe jaioa naiz ni
Santa Maria Magdalena.
Amar urte aurretik zala
Maria jaio aurrena.
Neure aurtzaje izandu zala
eman nion naiko lana.
Lastimosua izandu zan
arren bizija geiena.

3

Nolabait pasa biar munduan
baten erori ta jeiki.
Egunak txarrak pasa ditugu,
beste batzuek egoki.
Osasun ona dadukanian
bera kuidatzen ez daki.
Gaxotzen dana ondo jarzia
gustatzen zaigu eduki.

4

Festa bezperan ardie il da
mondeku zopak jateko.
Gustora asko pasatzen gendun
bat orain ez akordatzeko.
Neure ustian gauza oberik
orduan ez guretzako.
Plazara juanda lauko batekin
piparro pillla ateatzeko.

5

Fameli dana festa egunian
ortxen juntuan zautela.
Deseon eta pensamentuan
ni zuekin or nagola.
Neure erriaz ez naiz aztuko
beintzat bizirik nagola.
Ta desejua ere badaukat
ezagutzeko txabola.

6

Egun on Jaunak guztiondako
festa egunian emendik.
Oien bitartez esaiteizubet²⁶⁸
ez naizela aztu oraindik.
Eguntxo oiek gazte denboran
gustora pasatzen nitun nik.
Gustora batek pasatzen duna
ez da aztutzen iñondik.

²⁶⁷ CU.

²⁶⁸ *Esaiteizubet*: Esaten dizuet.

7

Ustegabian juntatu gera
paraje onetan oiekin.
Bai berak ere gusto zutela
ezagutzia gurekin.
Naiz egun gutxi pasatu arren
emen guk alkarrekin,
Jaunak nai badu egun ortantxe
eongo zeatela berakin.

8

Esperantza det nik jakiteko
nola diraden portatu.
Gezurrik gabe dana egia
or egin duten kontatu.
Egun batzuek emen gurekin
egin ditue pasatu.
Zure semiak ere ditue
emen berak ezagutu.

9

Gauza guziak gaizki dabilta
eoziñak dizu esango.
Bañan guretzat oraindikuan
janaren faltik ez dago.
Lanik ei[n] gabe orain jaten det
asko ei[n] nuan lenago.
Zar partia orain a[r]i naz pasatzen
sekulan baño obeto nago.

10

Amargarrena ta bera azkena
onekin biaizut²⁶⁹ bukatu.
Trankilo samar danan aurrian
egin ditzazu kantatu.
Esperanza ez det galduko
ei[n]go gerala juntatu.
Adios danori beste bat arte
ta nere besarka bat artu.

²⁶⁹ *Biaizut*: Behar dizut.

1

Españatikan zuk bialdu zendun
erretratua bikaña.
Orreri buelta jartzeko daukat
propositua egiña.
Onentxuna nik billatu naian
egin det nik alegiña.
Ondo beidatu dizueten danok
orrentxen gerri eskiña.

2

Gure Juanita ez da aztuko
sekulan nere esanz.
Mingaña lasai izan dutela
naiz santua emanaz.
Eskerrik asko zure koñaki
ederki eaten a[r]i naiz.
Zuetaz ni ez naiz aztuko
munduan ni bizi banaiz.

3

Ai zer gustora pasa genduan
denboratxo bat zuekin.
Nere ustian izan zan berdin
zuek egotia gurekin.
Gutxiena uste genduanian
sorpresa aundi batekin,
antxen gertatu ziñaten biok
atetan kotxe batekin.

4

Ramontxok emen esaten digu
ondo bizi zeatela.
Lasai bizi ta dirua egiten
ederki a[r]i zeatela.
Denbora asko pasatu gabe
berriz etorriko zeatela.
Zer poza aundikin notizi ori
emen artutzen degula.

5

Neure lagunak berso au dala
kantatzen dizut azkena.
Neure partetik deseatzen [di]zubet
bizi modurik onena.
Animatuta etorri berriz
ia noiz dan urrena.
Gure partetik egingo degu
pasatzia al degun onena.

²⁷⁰ CU. Joanitari jarritako bertsoak.

GAZTE GAZTETAN ASIA NINTZAN (CONFESIÓN DE MI VIDA EN COPLAS)²⁷¹

1

Gazte gaztetan asia nintzan
neretzat etzan izandu.
Amorioa nik biotzian
arrentzat nula izandu.
Gezur batzuek izan ziran da
amorioa ein zan galdu.
Urte batzutan iñorentzako
geigo ez nula izandu.

2

Urte askotan ez nuan izan
kariñorik iñorentzat.
Oi pentsatzian nere biotzak
tristura andi bat beretzat.
Fin asko nintzan ibili baña
gustorik etzan neretzat.
Orain artian akordatze[n] naiz
alako gauza triste bat.

3

Txikitandikan sartu zitzairan
alako gauza alegre bat.
Al nuanian pasatzen banun
bere onduran rato bat.
Ez naiz nekatzen gero lanian
igual beste aste bat.
Gero negarrez nere biotzak
pasatu zitun urteak.

4

Zortzi bat urte pasa nituen
akordatu gabe iñorentzat.
Bañan alare jaiua zala
ortxen munduan beste bat.
Napar aldian ikusi nuan
alako dama gazte bat.
Itz egin naian nik berarekin
pasatu nuan aste bat.

5

Gero berakin asia nintzan
naitasuna erakusten.
Andik aurrera asia nintzan
lenengo penak aztutzen.
Berari beira aspertu gabe
antxen ni egoten nintzan,
Andik aurrera penagarria
laister guretzat izan zan.

6

Beraren ama eta bi anai
ez nitzen aentzat gustatu.
Estorbatutzen asi zirala
ez gentzakegun segitu.
Bañan gurea amorioa
egiña zeguan sartu.
Bestenaz gure bion biotzak
egingo zirala urtu.

²⁷¹ CU.

7

Bentzitu gendun kariñoakin
eta ein giñan ezkondu.
Andik aurrera ondo giñala
biok alkarri lagundu.
Lana egiñaz andik aurrera
seme monton bat izandu.
Aiek azi ta jantzi ta ezi
erraxa etzan izandu.

8

Amabi urte pasa genduan
gure kalbario orretan,
gerra onduan ezin billatuz
gosea zegon an bertan.
Amerikara etorri giñan
obeto izateko ustetan,
lana egiñaz giñan gu bizi
antxen gu urte askotan.

9

Amabi urte pasatu ziran
ta seme-alabak ezkondu.
Paseatzea gu Españira
egin genduan pentsatu.
Orain erraxa dala kontatzen
bat ez da eiten aspertu.
Iru bat illabete antxen
gustora gendun pasatu.

10

Urriak ala pasatu ziran
orain ein gerala zartu.
Guztiontzako ori dala ta
gustora ein zaigun artu.
Jainkoai graziz egin det orain
neure bizia kontatu.
Gure istoria nola izan zan
eingo det nik eskribitu.

11

Konzienzia trankilo daukat
gaizkik ez nuan egingo.
Egun batian kontu guzia
gure Jainkoari emango.
Guraso zarrak erakutsia
oso ondo egiña dago.
Obligazio aundie dala
semeari erakusteko.

12

Amabi berso dira onekin
naikua entenditzeko.
Onez aurrera nai izan arren
zer dagola gurentzako.
Deseatzen det bioz guztiaz
pakia denantzako.
Gure Jainkoak izan gaitzala
azkenian berentzako.

GU ERE EMEN GAUDE²⁷²

Gu ere emen gaude
zerbait zarturikan.
Bañan nastu naian
zerbait oraindikan.
Berso bat jarri naian
al dan onenikan.
Juango generala gu
mundu ontatikan
asko aiturikan
eta ikusirikan.
Ez zer esanikan
maite oraindikan
nai diegu illuari
biotzetikan...

²⁷² CU. Bertso hau koadernoari itsatsiriko orritxo batean dago.

GURASOAK ESPAIÑIAN²⁷³

1

Gurasoak Espaiñian, gelditu zirala,
zañetan dadukagu, beraren odola.
Iñoi gaizki egitia, pensa ez degula,
bizi gera munduan al degun bezela.

2

Errazkiñen jaio eta, eta bertan azi.
Lanian gurasuak, ziuten erakutsi.
Kristoren relijio, genduan ikasi,
projimua ni bezela, nai nula ikusi.

3

Eskolan ere piska bat, ikasi genduan.
Rato ederrak plazan, pasatzen genduan.
Guretzako obena, pelota zeguan.
Pena aundiarekin, askotan neguan.

4

Ogeitabat urte pasa, postura orretan.
Soldadu joan biarra, tokatu zait bertan,
eta etzait tokatu, etxetikan bertan,
urte bat an pasata, etorri naiz bueltan.

5

Soldaduska pasa eta, etxean kontentu.
Gurasoak ere atsegin, zuben ori artu.
Urte pare bat etxian, lanian pasatu,
neuretzat irabazten, nuan nik probatu.

6

Gero neri neskatx bat, zitzairan gustatu.
Berakin ezkonzia, nuan nik pentsatu.
Bitartian gerra, zaigula agertu.
Berriz serbitutzero, zaizkidan tokatu.

²⁷³ BS.

7

Enemiguak etzuten, bromarik guretzat.
Guk ere egin biar, gogor berantzat.
Azkenian izan zan, bala bat neretzat.
Besoa ausi eta, libratua nintzan.

8

Orduan ezkondu ta, famelin nagusi.
Azkenerako istilluk, nituan ikusi.
Jornala txiki eta, nai genduan bizi
Azkenerako genduan, España utzi.

9

Nago ni Uruguaien, famelie azita.
Eskerrak oneri orain, nagola zartuta.
Bañan diru piska bat, badet sobratuta.
Zartzera lasa nago, guztie pasata.

10

Neure bizian egunak, txarrak pasa ditut.
Bañan orain ordañaz, ondo pasatzeitut²⁷⁴.
Lastima urtiak asko, kunplituak ditut.
Asko geigo kunplitzia, esperantzik eztut.

11

Eman zaiogun graziak, gure Jainkuari.
Beintzat azken urtiak, on zaizkit etorri.
Emen bizi gera biok, beituaz alkarri.
Iruogeita amasei, pasa urte berri.

12

Amabi bertso berri, nik orain kantatu.
Orain zuk kantatutzen, denbora pasatu.
Gure bizia nola zan, egin enteratu.
Ez det ezer gezurrik, iñon aumentatu.

²⁷⁴ *Pasatzeitut*: Pasatzen ditut.

INAZI TA FAMELIA²⁷⁵

1

Inazi ta famelia
ekusi zaitugu,
zuen erretratuak
ementxen ditugu.
Asko gustora guk
ok artu ditugu.
Zuri [e]re berso bi jartzia
pentsatuta nago.

2

Zu [e]re Inazi ein ziñan
gazterik ezkondu,
amaren onduan asko
etziñan egondu.
Zuretzako ere lana
bazendun izandu.
Iru seme jatorrak
azi ta zuzendu.

3

Lau egun mundu ontan
dirala pasatzen,
askoetan aztu eta
gerala bizitzen.
Betiko gerala jaiok
zaizkigu iruditzen.
Iñala egin zaigun
alkarri laguntzen.

4

Zu ere beti jarrita
etzera egondu.
Senarrak eingo zizula
askotan lagundu.
Atzera ez gelditzeko
gerriak bigundu.
Osabak orain ere
egie esan du.

5

Inazi oraingoakin
biazut²⁷⁶ bukatu.
Denbora dezunian
ein zazu kantatu.
Neskatxa jatorra ziñan
zu beti agertu.
Gaizki esan badizut
biotzez barkatu.

²⁷⁵ CU. Iloba Inaziri jarritakoak.

²⁷⁶ *Biazut*: Behar dizut.

JESUKRISTOREN GURUTZE JAUNAK²⁷⁷

1

Jesukristoren gurutze Jaunak
eiten digu erakutsi
guregatian egin zuala
berak bizia an utzi.
Guk ere orain egin biarra
launduz alkarri gutxi.
Berak bezela gero azkenian
zaigun zerua iritsi.

2

Txikitandikan ikusten degu
dana nai dula beretzat.
Gustatzen zaigu sobrante izanik
uztia or besterentzat.
Eta olaxe bizitzen gera
dana naian guretzat.
Gero azkenian ez da akordatzen
uzten dunik inõorentzat.

3

Naturaleza ekartzen degu
jaiotakuak aurrera.
Inõr ez du nai gelditutzerik
garai orretan atzera.
Esamiña ongi eiten badegu
joan giñazken gu artzera.
Etxian sobra egonagatik
besten sagarra jatea.

4

Adan da Eba egin zituen
Bibliak or diotenez.
Paraisoan jarri zioten

ederki frutaz da florez.
Bañan arbol bat antxen zegoan
prohibitua esanez.
Eba inbiriz zeguan eta
juan zan sagarra janez.

5

Andik aurera izandu ziran
komeri onak aientzat.
Aien kulpakin etorri zala
purgatorioa guretzat.
Lana ein biar izardiakin
biltzeko jana guretzat.
Bide auxen da mundu onetan
zerun sartu nai dunantzat.

6

Bañan alare mundu onetan
pikaro asko dala bizi.
Lanik ein gabe gure kontura
asko diradela bizi.
Utzi deiagun pake-pakean
dana aber duten iritsi.
Gero azkenian infarnun sartu
ta gero atea itxi.

7

Zazpigarrena jartzera nua
nai duanak aditu.
Gaizki gaur emen ibiltzen danak
kontuk biaitu²⁷⁸ garbitu.
Eta emen ondo ibili danak
Jaunak an artuko gaitu.
Desejo ori nerekin dago
eun batez gaitzen juntatu.

²⁷⁷ CU.

²⁷⁸ *Biaitu*: Behar ditu.

KASIMIRO ZU ESPAÑITIKAN²⁷⁹

1

Kasimiro zu Españitikan
propio zera etorri.
Erregalo ta notizi onak
egin dituzu ekarri.
Emen gaude gu ezin pensatuz
nola ordaindu orri.
Bizi gaitezen mundu onetan
lagun egiñaz alkarri.

2

Etzat aztuko bisita ori
bizi naizen artian.
Ez geunden aixa aditutzian
zu emen ikusi artian.
Eta orain zu ementxe zaude
gustoa gure artian.
Ia orrela juntatzen geran
danok datorren urtian.

²⁷⁹ CU. Bere iloba Kasimirori jarriak.

NEURE ANAIARI ORDU ONETAN²⁸⁰

1

Neure anaia ordu onetan
buruan naiz akordatzen.
Oetabos bete ederrak gendun²⁸¹
egiñak an Koldorrotzen²⁸².
Aiek etxea²⁸³ eramateko
sasoian faltarik²⁸⁴ etzen.
Lagundu zion ganbarari²⁸⁵
bere eskiña betetzen.

2

Jarri gaitezen geuren tokian
examin²⁸⁶ on bat egiten.
Ta zer gustora perezik gabe
guztia gendun egiten.
Alkarri biok ondo arturik
bete belarra egiten.
Lana izango zun guri
beste bik ortan irabazten²⁸⁷.

3

Piskat pensatzen²⁸⁸ jartzen bagera
gure orduko aztarnak,
lau kobre ere balio ez du
guk egin genduan²⁸⁹ lanak.

Gaur diferente bizi dirala
or lan ortan dabilzenak²⁹⁰.
Guk orain pensa orduko gauzak
utzirik alde bat danak.

4

Goiz batean antxen garditik
marmit ure eaman genduan.
Zozberrin biok mano-mano
seگان fuerte ein genduan.
Berriz oitatik ekarri biar
gosalduko bagenduan.
Urik gabe guk gosari ori
iñondik ezin genduan.

5

Bostgarrena da eta onekin
izan biar dala azkena.
Ezertarako ez du balio
jenioik ez dun gizona.
Bezinoak aurrera ikusi eta
gelditu biar atzena.
Orrelakorik gure etxian
ametitutzen etzena.

²⁸⁰ CU. Lehenengo hiru bertsoak koaderno horretan bertan berriz agertzen dira. Bere anaia Antoniori jarritakoak.

²⁸¹ CUko beste bertsioan *genduan*.

²⁸² Ibidem *egiñak Koldorrotzen*.

²⁸³ Ibidem *etxera*.

²⁸⁴ Ibidem *faltik*.

²⁸⁵ Ibidem *ganbariari*.

²⁸⁶ Ibidem *esamin*.

²⁸⁷ Ibidem *Lana izango zuen guri beste / bik ortan irabazitzen*.

²⁸⁸ Ibidem *pensatzen*.

²⁸⁹ Ibidem *ein genduen*.

²⁹⁰ Ibidem *dabilzanak*.

NEURE ILLUA BERAIZUT²⁹¹

1

Neure illua beraizut²⁹²
bersotxo bat jarri,
pena aundiarekin
ei[n] nintzan etorri.
Festa oietarako
egi[n] nintzan jarri.
Olako urtia berriz
ez da ingo etorri.

2

Panplonan denbotxo bat
ei[n] nuan pasatu.
Donostian txarraguak
ez dira tokatu.
Batetik frontonian
ederki jokatu
gero plaia eskinian
neskatxak billatu.

3

Isilik egon ontan
ez dezaten jakin
gauz onik ez da jazoko
bada andriakin.
Boda urrezkua ein biar
denbora gutxikin
allegatu gaitetzen
biok alkarrekin.

4

Au ere esan biat
aditu zazute
ni berriz juatia
pensatu zazute.
Etorri naiz ni ortik
oso gaztetute.
Neskaxak beintzet ala
esaten dirate.

5

Amar kilo galdu nitun
beatzi illabetian,
amarrok emen dauzkat
neure gorputzian,
oso torpetua nago
geitze[n]²⁹³ naiz atzian
or galduko ditut berriz
Aralar mendian.

6

Lau illabete dira
etorri nintzala.
danak esaten ziraten
gaztetu nintzala.
Nik ori aditzian
poztutzen nintzela
bañan gaur diferente
arkitzen naizela.

²⁹¹ BS.

²⁹² *Beraizut*: Behar dizut.

²⁹³ *Geitzen*: Gelditzen

7

Arreglatu naian gabiltz
danok deseatzten,
lana emango du onek
txar guztia kentzen.
Orain uzten digute
egiak esaten.
Lenago etzen olako
libertadea izaten.

8

An-emen bizi biar
pobriak bezela
kontentu zerkin bete
badaukau kazuela
emen ere jan biar
batak bestetan bezela
iñoiz etzazu esan
ja[n] nai eztezula.

9

Komeriak munduan
jaiotakuantzat
beintzat tokatzen da
naikua guretzat
lana egin biar mundu
guziantzat
ganantzi gutxi utzi
gertatu guretzat.

10

Nik amar berso berri
zuk or kantatzeko
motiboa jartzen dizut
akordatutzeko.
Deseja [e]re badaukat
danok ekusteko,
nunbait ere alkarrekin
ondo pasatzeko.

11

Amaikagarren
kantatu biazut.
Gaizki nik esan badet
biotzez barkatu,
ondo esandakuak
bai goguan artu
onekin eite[n] naiz un
zuekin besarkatu.

NEURE ILLUA BERTSO BERRI BAT²⁹⁴

1

Neure illua bertso berri bat
orain biazut²⁹⁵ kantatu.
Esateko nik zure eskubitza
oetabian nuben artu,
Barzelonatik notizi onakin
egin zaigula agertu.
Poz aundiakin neure biotza
egin zizaidan saltatu.

2

Bersoak zuri nik jarritzia
misterio ez dala izango.
Bersolaria onez aurrera
ona enaizela egongo.
Zerbait neria zuk gordetzea
nai dezu ala izango.
Neure aitzia itz gutxietan
orain dizut nik emango.

3

Mundu ontara bat jaiotzen da
zertarako asko ez jakin.
Erri txiki batean jaiok biok
deitzen zaiona Errazkin.
Mundua zerbait korritu degu
naiz ez biok alkarrekin.
Nik uste gizon izandu gera
beti lagun guzikin.

4

Gizonak beti pentsatu biar
biar no[n] naiz ni izango,
orregatikan ondo egiña
damuik ez dezu izango.
Gure Jainkuak ondo bazabiltz
berak lagunduko dizu.
Uste etzendun launak munduan
askotan eingo dituzu.

5

Gure España garai arretan
naiko komedik baziran,
nere lagunak mendi aietan
penaz urtuta il ziran.
Kulpa gabeko mutil jatorrak
beste mundura juan ziran,
bala batekin gure Jainkuak
bizirik neri utzi ziran.

6

Ori bakarrik etzan izandu
gero ikusi gorriak.
Lana egin biar erdi debalde
ta zer janik etzuben jendiak.
Amabi urte etziran izan
oso ederrak guziak.
Onera etorri biarra izan gendun
arturik seme guziak.

²⁹⁴ BS. Bere iloba Inazio Artolari jarriak.

²⁹⁵ *Biazut*: Behar dizut.

7

Pena aundia nik izan nuan
gure erria uzteko.
Munduan ez da obegorik
garai artan batentzako.
Lana ein biarra izandu gendun
orti ez da bat eskapatuko
baña zartzia ona etorri zat
dirua badet jateko.

8

Zuk ere zerbait ikusi dezu
asko pobriak bezela.
Bañan konforme famelia azitzen
ederki adi zarala,
oraindikuan zerbait ein biar
gaztea beraz zaudela.
Ona txarrakin igualdu biar
erremedioik ez dagola.

9

Zurian buelta egin nuan da
burura zitzaidan etorri.
Pensatu eta egun berian
egin dizkizut nik jarri.
Notiziak maiz bialdu ditzagun
onez aurrera alkarri.
Jaunak nai badu urrengo urtian
egingo naiz ni etorri.

10

Fameli dana ondo gerala
ta zuriak ala diote.
Segi dezagun modu onetan
Jaunak nai duan arte.
Agur aundi bat guztiontzako
emen danak bialtzen dizute.
Adios nere illuatxua
Jaunak nai duan arte.

11

Amabi berso dira onekin
eta bera da azkena.
Biotzian zuk beti guardatu
osabak esan dizuna.
Danok biar degu mundu onetan
alkarren maitasuna.
Eta Jainkuak eman zaigula
biar degun osasuna.

NEURE ILLUA KANTA BIAIZUT²⁹⁶

Neure illua kanta biaizut²⁹⁷
emendik zuri berso bat.
Lenago ere jarrik badira
orain dala urte bat.
Aztuta ortxen egondu dira
ija denbora aldi bat.
Oen bitartez esperanza daukat
allegatutzia noizpait.

²⁹⁶ *Zer esaten dirazu* bertso sorta dagoan orriaren bazter baten bera bakarrik dago.

²⁹⁷ *Biaizut*: Behar dizut.

ORAINTXEN ERE AGUSTINARI²⁹⁸

1

Oraintxen ere Agustinari
berso bat dihot kantatu.
Urte batzuek pasa zaizkigu
egin giñala juntatu.
Uste gutxina giñun garaian
Arjentinan zan agertu.
Neure partetik musu aundi bat
orain ein zazula artu.

2

Tolosa dala neure bizijan
iñoiz aztuko etzaidana.
Antxen ezkondu eta bi seme
jaio izan zirana.
Gustora aundikin neure bizia
antxen eramango nuana.
Bañan Jainkuak daki zergatik
onera ekarri ninduna.

3

Agustina ta gure Salome
eztarri ederrarekin
nai nuke antxen ni egotia
nola eiten zuten ekin.
Gu nola gauden egin dezute
guztiok orain jakin.
Iru bakarrak kabitu dira
bukatutzen det onekin.

²⁹⁸ CU. Agustinari jarriak.

ZER ESATEN DIRAZU²⁹⁹

1

Zer esaten dirazu
Juanita itz ori,
notiziak bialdu
ziñula zuk guri.
Oraindik ez degula
guk notizi ori.
Zer poza artu genduan
ikustian zueri.

2

Orain ikusten degu
zueren sasoia,
ematen dezutela
andre-gizon gaia.
Umoría onakin
arpegi alaia,
poza artutzen degu
emen ikustija.

3

Ez gerala aztuko
zueren bisita.
Biotzian daukagula
ondo grabatua.
Jose eta Juanita
bijak alkartuta,
emen agertu dira
taxi bat artuta.

4

Migel eta Fani
siestan zeudeten,
orrelako bisitik
etzuen pensatzen.
Gutxina uste danian
erbija saltatzen.
Nun zaizkigun atetan
bijak agertuzen.

5

Emen egin ditugu
eun batzuk pasatu.
Orko pasadizuak
eginaz kontatu.
Bela [e]re juañ biarra
ein zaie tokatu.
Ez dakigu noiz geran
egingo juntatu.

6

Au da seigarrena
ta onekin bukatzen.
Zuekin egotia
ez naiz ni aspertzen.
Tolosan nagoala
zait iruditutzen.
Musu batekin dizubet
nik despeditutzen.

²⁹⁹ BS.

ZURE ESKUBITZA ATZO ARTU DET³⁰⁰

1

Zure eskubitza atzo artu det
berai nai diot kontesta.
Enteratu naiz gauza guziak
bear bezela dabilta.
Malluak eta danzari onak
agertu zaigu ilbeltza.
Otzik etzuen inork sentitzen
naiz egoaldia otza.

2

Neskatx ederrak nunbait or daude
batek aukera eiteko,
pena arzen det urruti samar
bat emendik juateko.
Onez aurrera obe izango da
etxe aldiari geitzeko.
Zerbait nai ta ezin batek or
gero or lotsa artzeko.

3

Sasoi ederra daukazutela
ori guztiok dakigu.
Guk ere noizbait amasei urte
kunplutusiak ditugu.
Amaika gauza orrez aurrera
egiñak asko ditugu.
Ola ibilita orain billoak
ezagututzen ditugu.

4

Bañan alare bat ez da azten
gauza politak ikusten.
Gure Jainkuak munduan etzun
munduan erakutsitzen.
Zartuagatik postura ortan
guztiok gera ibiltzen.
Berak orrela egin ginduan
orain pazienziak barkatzen.

5

Lau egun triste mundu onetan
biar ditugu pasatu.
Orregatikan danok alkarri
biar gintzake maitatu.
Edozein gauza esan dula ta
eiten gera asarretu.
Ondo nai badu batek ibili
biotzez dana barkatu.

6

Gure errian gazte denboran
guztiok giñan lagunak.
Guztiok junto eamaten gendun
danok alkarren penak.
Disfrutatu ere bai zatorrenian
zerbait onak³⁰¹
Ori orrela eiten badezu
barkatuko dizu Jaunak.

³⁰⁰ BS.

³⁰¹ Neurri aldetik akatsen bat dago.

7

Zerbait nik ondo mundo onetan
nai nuke adierazi.
Zerbait emanaz askotan ere
obeki gerala bizi.
Bañan alare injustiziak
egiten dira ikusi.
Biotzetikan esaten dizut
ori eintzazu ikasi.

8

Bertso gutxitan notizi asko
ezin dizkizut kantatu.
Bañan alare gaur nik esana
biotzian ondo artu.
Parra ei[n] dutela ikusi arren
biotzez danai barkatu.
Gure Jainkuak azken orduan
besotan eingo zaitu artu.

9

Lau triste egun mundu onetan
ein biaitugu³⁰² pasatu.
Askotan iñor erakutsia
ez degu eiten ondo artu.
Zerbait geiago izatearren
tokatze[n e]z dana artu.
Nonbaitan ori biarko degu
ein biar ondo purgatu.

10

Zuri Edurne esaten dizut
gauza guziek bezela
zure ontasuna lagun guzikin
beti iduki zazula.
Gañentzakuak gure Jainkuak
dana emango dizula.
Aitagutxiak esaten dizu
ori espera zazula.

11

Pobriak lana egin biar du
ez da bereala etortzen.
Lana egin arren askotan gera
gustora konformatutzen.
Lan egunaren atzetik dator
da festa eguna arkitzen
Esai[n] dirazu gauza ori nori
bati etzaio gustatzen.

12

Amabi bertso dira onekin
egiten dizkizut jarri.
Espero gendun jende oiek
etzaizkigu egin etorri.
Nik oraindikan Jaunak nai badu
besarka aundi bat alkarri.
Fameli danan partetik agur
Errazkindar guztieri.

³⁰² *Biaitugu*: Behar ditugu.

ZURE ESKUBITZA NEREKIN³⁰³

1

Zure eskubitza nerekin
notizik ditugu jakin.
Emen danok alkarrekin
joateko asmotan beti aldera.
Egin nazu neri jakin
juntatzeko alkarrekin,
pantzakada gaztañekin,
nor egon leiken zuekin.

2

Lau berso onak zuriak,
neriak bañan obiak.
Notizi onak da egiak.
Zerbait ordañak nai ditut jarri
esplikatzeko guriak.
Egon gera erromeriak,
euskal antzeko berriak,
ikurrin eta guztiak.

3

Bai gure euskera zarra
juan gera erakustera.
Arjentinako partera,
mundu guztiak juntatu gera
erromeria ortara.
Gu bi anaiok eon gera
gazte guztien artera.
Gaztetuta etorri gera.

4

Aorraren amairuan
meza amaiketan genduan
ta euskeraz kanta genduan.
Eleiz ederra ta jende asko
ta gero aiuntamentuan.
An gela aundi batean
milla batek jan genduan
bazkari ederra ein genduan.

5

Gabian buelta artu degu
kantu ta juerga ein degu.
Gau ta egun kosta zaigu
milla ta erdi kilometro dira.
Ederki pasatu degu,
lagun asko ikusi ditugu,
damurik eiña ez degu.
Urrena noiz dan ez dakigu.

6

Onekin dizut bukatzen,
lan ontan ez naiz aspertzen.
Zuk badirazu barkatzen
ondo jarriak ez daude baña
a[r]i naiz alegiña egiten.
Zuk neure faltak zuzentzen
aber diran garbitzen
gero dituzten kantatzen.

³⁰³ CU. Bere iloba Jose Fermini jarriak.

ZURE KARTIAN ESAN DIRAZU³⁰⁴

1

Zure kartian esan dirazu
berso batzuek jartzeko.
Zure gustoa izango dala
berak zuk kantatuzeko.
Edozein gauza nai nuke egin
zueri konformatzeko.
Ortxen dituzu bost berso berri
nik jarriak zuretzako.

2

Erretratuan ikusten zaitut
zaudela neskaxa jatorra.
Neure ustian merezi dezu
biar mutilla ederra.
Ondo beidatu bear gauz oiek
arkitu ez dedin txarra.
Alperrik gero ez dedilla izan
egin biarra negarra.

3

Konseju onak nai ditut eman
jarri zaitezen aditzen.
Gazte denboran txorakeriak
buruan dirala jartzen.
Gazte zera ta denbora artu
gero etzaitezen damutzen.
Nere besotako aurtxua ez dedin
gero negarrez urtzen.

4

Oraingoakin bukatzen dizut
urrengo aldian geiago.
Zu beti ondo ikusitzia
nik beti det naiago.
Beti Jainkuaz akorda zaitez
jai eta lanian badago.
Ori orrela egin ezkeroz
guretzat zerue dago.

5

Gure txokuaz akordatze[n] naiz
arren izanda polita.
Ez naiz asperzen begira
begiratutzen jarrita.
Mundu guztian emen gabiltza
gu ortikan etorrira.
Musu batzuek ortxen zuk eman
nik emendik bialduta.

³⁰⁴ CU. Bere iloba Edurneri jarriak.

IGNAZIO ARGIÑARENAK BILDUAK

Migel Argiñarena (1913-)

GAUR NIK URTEAK BETE (1979)³⁰⁵

1

Gaur nik urteak bete
ta aste[n] naiz kantuan.
Ez det esango ezer
iñoren kaltean.
Errazkinen jaioa
agoztun amairuan,
irurogeita amar urte
badauzkat gañean.

2

Jaio ta azi amak
bere bularrakin.
Ez nago ni aztua
guztia oraindik.
Naiz dana ez pagatu
beintzat biotzetik,
barkatuko al dit dana
gaxuak zerutik.

3

Txikitandik asia
banago lanean
baita asko ibili
kale ta mendian.
Lagunak ere asko
izandu nituan,
aurki zeruan batzuek,
bestiak lurrean.

4

Sei anai giñan izan,
lau gaude biziak.
Ez dauzkat aztuta
batere besteak.
Poza izango nuke
bilzera guziak.
Bi gera aurkitzen emen
Españin bestiak.

5

Au [e]re esango det
txit egia benez.
Asko gera juntatu
eta borondatez,
bazkaria ederra
edadin faltik ez,
kafe ta kopak asko
eta purue errez.

6

Neure illuak asko
Españian zauzte.
Asko naiz ni oroitzen
sinistu zazute.
Diferenzi gabetan
zarren edo gazte,
maitatuko zaituztet
bizi naizen arte.

³⁰⁵ CU.

7

Umilla izan arren
gora naiz urtetan.
Baita ibilia naiz
iru urte gerretan
Bero, oz ta goseak
pasatu benetan.
Guztiaz gaur kontentu
asi naiz kantetan.

8

Nere jaio erria
aiz dala polita
ezin aspertua ni
begira jarrita.
Etorri berria naiz
bi urte pasata
zubie egitia
juango naiz korrika.

9

Jaioak bizitzeko
bear suertea.
Iru urte pasatuak
juan zait emaztea.
Goxua gazte zegon
eta maitatsua.
Egiz bialtzen diot
musu bat zerura.

10

Deseo onak arren
baita ere fiña.
Zertarako eduki
luzarotan griña.
Jaunan borondatia
kunplitu dediña.
Eta jateko beintzat
falta ez dedilla.

11

Amerikak bazitun
lendikan soñuak.
Orain ditu tapatu
geienak lañuak.
Lanikan ez duenak
naiko komediak.
Dirurik ez duenak
gose-egarriak.

12

Amabi berso emen
ez dira bikañak,
zuek or korrejitu
neure utsegiñak.
Espero det artzea
beraren ordañak.
Guztiok orain artu
gure eskumiñak.

ZUEN BERSUAK ENTZUN DITUGU (1979)³⁰⁶

1

Zuen bersuak entzun³⁰⁷ ditugu
eta guztiak jatorrak.
Nik ere orain nai ditut jarri
guztiontzako³⁰⁸ ordaiñak.
Nola ta noiztik azaldu diran
bi illo bersolariak.
Egi batzuek jarri nai ditu
Amerikako osabak.

2

Errazkiñen ni jaiua naiz da
urte askoetan bizi.
Ez dakinen bat agertzen³⁰⁹ bada
nai diet adierazi,
Mallota mendi gora ta beira
biriak³¹⁰ nitun ikasi.
Eta oraindik oroitzute[n] naiz
Jaunari esker da grazi.

3

Au ere bada nai det nik esan
laguntzen badit mingañak.
Rekuarduak badauzkat emen
niri³¹¹ bialduak Martiñak.
Bera isildu zaigu betiko
uste zaitute ordaiñak.
Gure Jainkuak diola zerun
arren egindako fiñak.

4

Erri aundi ta plaza askotan
bersuak³¹² zitun kantatu
abildade ta kantu ederrak
errespetua agertu.
Motibo gabe etzan³¹³ erraxa
eite[a] arrek faltatu,
paregabeko lagun maitea
ezin det nik iñola aztu.

5

Kontentu xamar dira etorri
gure Iris da Inazio.
Danok ikusten pasatu gustoz
atsaldetxo bat propio.
Jatorrak dira agertzen danak
baiñan batek du premio.
Aita ta ama amabi seme
guztiondako adio.

6

Esan dit batek egia esanda
omen da eiten faltatu.
Egun batian okertu zan da
oraindik ezin zuzendu.
Oitamar urte inguru ditut
egiña nago aspertu.
Beti lanian gelditu gabe
besteak aprobetxatu.

³⁰⁶ CU. Beste bertsio bat dago baina ez osorik BKn.

³⁰⁷ BKn *enzun*.

³⁰⁸ Ibidem *guztiontzako*.

³⁰⁹ Ibidem *arkitzen*.

³¹⁰ Ibidem *bireak*.

³¹¹ Ibidem *neuri*.

³¹² Ibidem *bersoak*.

³¹³ Ibidem *etzen*.

7

Onera giñan bi anai etorri
alkar artuta batean.
Maitatuz beti ibili gera
beintzan gu orain artian.
Suerte txarra aldiz izandu
ori daukagu aurrean.
Entenditzeko bada naikua
bera da euskera zarrean.

8

Au ere bada bukatuko det
beste askoren antzean.
Deseoakin pasatutzeko
aste bat beintzat mendian.
Gu danok emen ongi gabiltza
zuentzat ala naian.
Besarka aundik bialtzen ditut
danantzako papelian.

GOIZTIKAN JEIKI ETA (1979)³¹⁴

1

Goiztikan jeiki eta
lenengo asera,
kanpora begiratzuz
ziñatutzen gera.
Kristau fede bizi
erakutsitzera.
Txikitan ikasia
ez utzi atzera.
Animan graztia
baidu maetzia.
Ez obe galtzia,
ia ez gera gaztia[k].
Garbituta urek bota
ta gero kafia.a.a.

2

Makilla eskun artu
txakurra onduan,
ardiak bildu bear
argitzen darian.
Batzuetan bertan dira
aldiz urrutian,
ongi ebili naiz
laño ez darian
Aralar mendian,
maiatzako illian.
Danak artu aurrean
sartu jeiztokian
illuak saio dauka
aiek jeztian.an.an.

3

Garagarril gaur du lau
argitze polita.
Ardiak moztu biar
asi eta buka.
Dozenatxo bat gera
danok emen junta.
Ongi zaigu portatu
aurtengoan Intza.
Patxi ta Oreja
danok be zartuta³¹⁵.
Goiztik bukatuta
arkumia erreta,
kafia eta purua,
atzetikan kopa.a.a.

4

Adios artzai danak
eta Aralar mendi,
egun batzuk igarota
banua emendi.
Al badet berriz ere
eingo naiz etorri,
beste bat artian
Oreja ta Patxi,
esker Javierri
jana dit ekarri
ta ugari edadi,
asko nai dit neri.
zuek pasa zute ondo
lagunduz alkarri.

³¹⁴ CU. Circa 1979. Bertsook Aralar mendian jarritakoak dira.

³¹⁵ Bigarren aukera bat dakar *beratuta*.

URTEA ETORRI BERA BUKATUZ (1981)³¹⁶

1

Urtea etorri bera bukatuz
asko dirade pasatu.
Berso batzuek jartzera orain
eginda nago pensatu.
Euskera zarra oraindikuan
nola ez baitzaten aztu,
Amerikatik etorria naiz
ezin nentzake ukatu.

2

Milla beaziegun urte pasata
gabiltza larogeian,
agoztuko illan oita zazpijan
sartu naiz Fuenterrabian.
Berroaita zazpi famelikuak
bilduta zeuden onduan.
Egun ortako ongietorria
etzat aztuko sekulan.

3

Neure lenengo pasuak ditut
esango oraingoakin.
Lenengo nuan arreba ikusi
bizitzen dana Berrobin.
Biarrengua jaioz erria
deitzen zaiola Errazkin.
Emen det pasa lenengo gaba
Migel ta Ramonekin.

4

Lenengo eguna digu argitu,
alaia eta berua.
Begiratuta nuan ikusi
lengo lekuan Mallua.
Gero erria ibili nuan
baita [e]re kanposantua.
Emen egin det danarentzako
lenengo orazijua.

5

Zenbait lagunak ditut ikusi
besteak dirade illak.
Rekuerdu au neuk ere badet
andre gaxuak emanak.
Jakiña dago jaiuak gera
berriz juntatzeko danak.
Gure Jainkoak dezala zerun
zabaldurikan besuak.

6

Egunak emen pasatu ditut
gustora ninzan ni egon.
Laugarrenian aparti eder bat
egin genduan Mugiron.
Oet[a] amabi giñan juntatu
emazteki edo gizon.
Emozijua dala bitarte
atera nintzan kanpeon.

³¹⁶ CU.

7

Entzun zazute arkitutze[n] naiz
Belokirako ganian.
Milla berreunda iruoita amika
metro daduzka goian.
Eguna ere garbi esango det
urrian oita lauean.
Eta bera da topatzen dana
Naparruako partian.

8

San Migel degu beti izandu
tronotza Aralar mendian.
Bisitatuta gero bazkaldu
Albiko guardan etxean.
Lau giñan junto illuarekin
Patxi laguna onduan.
Paregabeko egun eder bat
ementxe pasa genduan.

9

Egun batzuek ditut pasatu
Olatxiki ta Ezantzan.
Ardiak zantzen ibilia naiz
Malkorko eta Ubelan.
Ure ederrak baita ere edan
beste askotan da Bioznan.
Bakardadia nuan izandu
egun batzutan txabolan.

10

Egunak emen pasatu eta
kalea nuen ald[e] egin.
Asko tokitan ibilia naiz
Barzelona ta Bitorin.
Ekusitako gauz asko ere
oraindik daduzkat begin.
Iduritzen zat bizi leiteke
ondo oraindik Españin.

11

Esan leiteke asko oraindik
gaia banuke aurrean.
Irun aldean ibilia naiz
Bilbao eta Donostian.
Lau probintziok emen dabilta
kabitu eziñik atian,
ona litzake orain da beti
pakia Euskal Errian.

12

Mendi goietan azaldu digu
aize arro ta elurra.
Onentzek beintzat digula ekarri
askorentzako bildurra.
Ardiak ere bildu biarko
ta eman bearko apurra.
Gose alditan gizarajuak
egiten dute marraka.

13

Uda bukatu eta zaigula
negua orain etorri.
Elur asko ta etxe aundiak
agur egiñaz alkarri.
Ardiak zantzen ora[i]n gabiltza
begiratuaz alkarri.
Desejaturik ikusitzeko
txori gaxuak kantari.

14

Neguko otzak aurki bukatu
udaberriko kantuak.
Gustora dabilz kabi egiten
txori-txepetxak da xoxuak.
Ardiak ere arro dabilta
utzi naian bajuak.
Motiboa da neurritutzeko
mendi aldeko bideak.

15

Gustoa daukat ezagututa
oinbeste famelikuak.
Lanean beintzat dirade adi
batzuek ala bestiak.
Goserik ustet³¹⁷ pasako ez dute
aien umetxo maitiak.
Merezi duen klasian orain
neure partetik graziak.

16

Amasei berso dira onekin
egiaz eta naikuak.
Bukatu eta banua bueltan
ekusitzia angua.
Anaia badet seme ta alaba
bos nieto txiki maitiak.
Ondo bizi ta lenengo arte
osasun on bat Jainkoak.

³¹⁷ *Ustet*: Uste det.

AMERIKATIK ESPAIÑIRAÑO (1982)³¹⁸

1

Amerikatik Espaiñiraño
nai nuke adierazi,
zuen ondotik alde ezkerok
nola emen naizen bizi.
Osasun ona badet oraindik
Jaunari esker da grazi,
eta badakit nuala zorra
zuen artian nik utzi.

2

Ortik onera etorri nintzan
oso denboa gutxian.
Elurra eta otza zegon or,
bero ta egoa etxean,
umedadia ere aundia
egun batzuek astean.
Modu onetan gerade asi
urte berria sartzean.

3

Lan onek neri baidit ematen
aste aurretik pereza.
Okerragua ere badauka
nai izan arren eza.
Egia garbi esateak dit
betiro ematen poza.
Iñala orain egin nai nuke
alleratutzen dan otsa.

4

Nasturik nabil oraindikuan
orkoaz eta emengo.
Gure Jainkoak argitasuna
emango al dit orainio.
Aprobetxatu bearra daukat
gazte nago ta orainio.
Iruogeta amar urte ez ditut
beteak beintzat orainio.

5

Amesa asko ditut egiñak
zuek batere ez arritu
Egunsentian bakarrik beti
egite[n] naiz ni arkitu.
Rato on da txar danetakuak
egiña nago pasatu.
Santus Mariaz oraindikuan
asko eite[n] naiz oroitu.

6

Lagunak asko ditut ekusi
neke askok berean.
Illabeteko irabazia
obego lego astean.
Jatekoakin komerik aldiz
okerrago jaztean.
Modu ontan asko ipiñi
pesorik gabe poltxian.

³¹⁸ CU.

7

Okerkeriak dira ikusten
gure mundu zabalian.
Ondo bizita konforma ezin
gerrak arturik aurrian.
Bi nazi[o] oiek ziraten onak
beste askoren onduan,
miseri asko digute jarri
Uruguai ta Españian.

8

Jaio ta bizi oraindikuan
aldiz kale ta mendian.
Egun ederrak nituan pasa
beintzat nik Españian.
Aurrez pasatuk ezin ukatu
oiek daduzkat aurrean.
Gustora samar egondua naiz
arditxo oien onduan.

9

Uda ederra bai degu aurten
ez da izaten askotan.
Janzi gutxikin dira ikusten
asko [e]re beintzat plaietan.
Negua ola izango baliz
beintzat askoren etxetan,
txikiak ondo dira izango
alaitasuna zarrentzat.

10

Gauzak orrela izanagatik
ez jarri orain kezketan.
Lanik batere ez det egiten
ez jaiez eta astetan.
Gauz onek ez dit ondo egiten
egia esanik benetan.
bañan goserik ez det pasatzen
asteko zazpi eunetan.

11

Danetakoak ikusten dira
langille eta alperrak.
Gauz onek aldiz ditu ekarzen
askorenzako okerrak.
Pesorik bada zurruta egin
jarri artian mozkorrek.
Modu onetan errax bukatu
aurreko irabaziak.

12

Momentu ontan gaizki gabiltza
aundiak eta txikiak.
Ojala noizbat artzen dituzten
merezi diran neurriak.
Errin kontura ederki pasa
orainaldiko maisuak,
bestela gaizki bizi bearra
ta izango gera pobreak.

13

Okerkeriak zuzendutzeko
ez dauka oraindik itxurik.
Aurki oraindik egon bearra
izango degu barurik.
Ezkondu eta ezkongai danak
artzen baluke konturik,
obegoa da ez eraitea
sobrante dagon azirik.

14

Danetatikan jarri nai ta ezin
eskasa dauka buruak,
eta gauz ontan ezin iñola
jarri zueri puntuak.
Gazte oraindik zerate arkitzen
bi anai bersolariak,
gusto guzian orra ba jarri
osaba Argiñarenak.

15

Ijote egunak dirade eta
asko dabilta paiaso,
neurea zerbait pasatua da
ez diet egiten kaso.
Milla ta eun peso eskasak
ill ontan ditut nik jaso,
bearrezkoa ez al da izango
kaso eitea akaso.

16

Oraingoakin bukatutzen det
ibilitu naiz presaka,
kontuan artu oraindikuan
oroitutze[n] naiz Ezantza.
Famelikuak danak arturik
ondo itzan arren poza
gusto aundikin bialdutzen det
guztiontzako besarka.

ITZAK IZBIDE EKARRI ETA (1984)³¹⁹

1

Itzak izbide ekarri eta
astea nua kantuan.
Jaiuak nonbait bearko
al dan bezela munduan.
Neure sortutzez Naparra naiz ta
Amerikako partian
iz batzuk orain nai ditut jarri
neure izkuntza zarrean.

2

Lendabiziko esan bear det
eta arazoi onean,
ogeita amalau urte badauzkat
Uruguaiko partian.
Farra gutxioko egiña beraz
orduak asko lanean,
ala ere aurki arkitutzen naiz
xoxa gutxikin poltsian.

3

Jai onendako esan netzake
egindakuak pasatu.
Lana ugari egiñagati
irabaziak negurtu.
Goizian goiztar lanean asi
arratsaldian berandu,
jateko bentzat Jaunari eskerrak
etzait oraindik faltatu.

4

Milla beatzien urte pasata
berrogeita beratzian,
abendu illak ogeita bat zuan
Montebideon sartutzean.
Bazkari ederra egin genduan
zaiona Euskal Erria.
Ordutik onaz naigabe asko
pasatu gure artian.

5

Nazio au da txikia bañan
kanpuak ditu aberas.
Entenditzeko esango ditut
al dan guztia euskeraz.
Okerkeritan ziran da asi
agintariak erderaz.
Uste gabetan miseri asko
jarri digute deberas.

6

Txiki ta aundi famelikuk
zazpi eta lau amika.
Guztia garbi esatearren
urbildutzen zait negarra.
Lendabiziko illua juan zan
bigarrena emazia,
pena aundikin oroituzte[n] naiz
aitz izanikan maitia.

³¹⁹ CU.

7

Pasatuk aldez utziaz orain
esangot³²⁰ gusto onean,
itxian luzez egon zan Jesus
bañan orain da Españian.
Osasun on bat diot eskeintzen
bi[zi]tutzeko munduan,
baita gustora pasa dezala
bere aita ta [a]man onduan.

8

Beraz ez naiz ni bersolaria
kanonigoa gutxiago,
bañan ala ere entenditzeko
naikua det nik esango.
Militar oiek ustez fuerte
onik ez dute egingo.
Politikuak asko esanda
gutxi digute emango.

9

Esango ditut oraingo ontan
gutziz pozturik jarrita,
gu ikustera dira etorri
Españitikan jautzita
Jose Mari ta andria Karmen
irugarrena Bautista.
Notizi eta erregaluaz
gutziaz nago poztuta.

10

Emen ez dago berri aundirik
baizik lengua txarrean.
Bizi geranak ikusiko du
urte berrian sartzean.
Babak aurrena sartu bearko
ateatzekoz eltzian,
bearrezkoa uste det dala
planta bearko aurrenean.

11

Mundu onetan ez da errexa
guztia ondo pasatzen.
Guria zerbait pasia dago
asiak geralako zartzen.
Al dan modurik oberenean
saia gaitezte pasatzen.
Atsal da etzurak modu orretan
aber diraden biguntzen.

12

Orain biotzez agurra
nago ta bukatutzeko.
Osasun on bat opa dizuet
moduz dana pasatzeko.
Abilla ez naiz lan ontan izan
asko ta ondo jartzeko.
Deseoakin arkitutzen naiz
ortxen danok ikusteko.

³²⁰ *Esangot*: Esango dut.

LENENGO NERE AGURRA (1984)³²¹

1

Lenengo nere agurra, maiako jaun danak,
baita lan ontan parte, artutzen dutenak.
Urrutian gabiltza, zenbait euskaldunak,
oroituz Euskalerriz, eta euskaldunak.

2

Nere biotza pozez, enkargua artzea.
Irri parean nua, motiboak jartzen.
Okasioak nuzinai, ez dira izaten.
Aspaldin Uruguain, nago ni bizitzen.

3

Milla beatzieun da, berrogeita beatzian
ogeita amasei urte, pasa Españian.
Iruogeita amairu, daduzkat gañian.
Bersoak jarri naiaz, euskera zarrian.

4

Ez dagonik badago, eta naiaz jakin.
Migel Argiñarenak, eingo du alegin.
Nere bizimodua, ez da izan berdin.
Guztiak orain garbi, jarrikoit³²² erdin.

5

Sasoia oberena, nuan garaian,
gerra zaigu agertu, guri Españian.
Gose edarri zeinbat, metrallan artian.
Bi erreal sueldua, nuen egunian.

6

Iru urte ingurun, bukatzean noski,
lanikan ez nuan da, ikusi naiz gaizki.
Lenengo itzalketa, sartu naiz guardi.
Emen pasa nituan, bost urte ta erdi.

³²¹ BS.

³²² *Jarrikoitut*: Jarriko ditut.

7

Oraingoak baditu, piska bat minduak.
Ez nago ezagutu, jubilazioak.
Ez du balio izandu, nik egindakuak.
Motiboak jartzeko, nik orain bersuak.

8

Onera etorri ta, asi naiz bizitzen.
Lana asko egiñaz, ez nitzan aspertzen.
Gatxuak emaztiak, ziran da laguntzen.
Iñala egin gendun, txikiak azitzen.

9

Urteak pasa dira, gauaz eta egun.
Lau dira justo orain, nagola alargun.
Seme eta alaba, neretzako lagun,
baita sei bat illuak, guztiak ezagun.

10

Pena daukat nerekin, ola geldituta.
Oroitutzen da nitaz, gure Jaungoikoa.
Eskerrak emateko, ez nago aspertua.
Españira juateko, badet desejua.

11

Ez da errax guztia, dana ondo jartzen.
Bañan ikasia naiz, zerbait ni bizitzen.
Asko ikusten ditut, dirala kejatzen.
Saiatu mutikoak, al bada bizitzen.

12

Nere azken agurra, enzule maitia.
Danantzako det opa, lana ta pakea.
Oraingoakin nua, itzak laguntzera.
Aurrera Euskadi ta, euskaldun guziak.

Jose Fermin Argiñarena (1953-)

AMERIKETAKO OSABAREN³²³

1

Ameriketako osabaren
berriak ditut jakiñak.
Dozenatxo bat bertso dizkida
ni poztarren egiñak.
Gure artian berso lan auek
ain dira gauz atsegiñak,
emendik bidaltzen dizkizut nik
zure bertsoen ordañak.

2

Urte mordo bat eduki arren
gaztea zaude aukeran.
Gaur edo biar nik nai nukena
ibili zure tankeran.
Zar izatia beti ez dago
urte askon goraberan.
Zarra egon zindezke bañan gu
ez dakit zartuko geran.

3

Urruti biziagatik gaude
maitetasunean tente.
Ta ez dut galdu arriskun uste
danik beintzat derrepente.
Zorion irugeita amar
zuk dituzunean bete.
Komeni bada Jaunari esker
bete beste orrenbeste.

4

Osaba zarra beti izan dut
zuretzat aprezioa.
Musian ere askori zaude
emanikan lezioa.
Gaur edo biar probatutzeko
badaukagu desioa.
Nai dezutenean muserako
botatzen desafioa.

5

Boskarren berso onekin nator
agurtzeko idietan.
Gointziak zabaldu itzatu
orko gure jendietan.
Elkarrengana biltzeko berriz
ilusio aundietan,
zure berriak jaso asmotan
gelditzen naiz Urnietan.

³²³ CU. Migeli jarritako bertsoak dira.

AU ETA GEIAGO ERE ZUEK (1975)³²⁴

1

Au eta geiago ere zuek
noski merezi dezute.
Eta zuekin aztuta gaudenik
etzazute beintzat uste.
Naiz eta alkar ikusi gabe
pasa diran ainbat urte,
zuen illoba bersolariak
gaur agurtu nai zaituzte.

2

Anai bi eta koñata batek
izaro dute jarrera.
Zuek bisitatu asmuaz aurten
ekin diote aurrera.
Naita guri [e]re deseoa falta
lendikan gaurrera
ni[k] ere laister juañ nai nuke
bizi zeraten lurrera.

3

Nai eta eziña hemen dena
an da egoera aparta.
Eta ezin baditeke zertan
aterako zalaparta.
Alkar zuekin egotia or
litzake poza galanta.
Diruaz gaizki gabiltza baño
gogorikan ez da falta.

4

Zuek emendik juañ ziñaten,
oraindik nintzan ni aurrera,
eta gerozko denboraldia
ez da izandu xamurra.
Papera ere leku faltan da
egin bear zaio laburra.
Artu zazute osaba izaba
ta gañentzakoak agurra.

³²⁴ CU.

Data bertsooi erantzuten Inazio Argiñarenak idatzitako *Zure bertsuaren bueltak*-en bitartez kalkulatu dugu (Ik. 80 or.).

BERSO BATZUEK JARTZERA³²⁵

1

Berso batzuek jartzera orain,
ala nago pensatuta.
Nere asaba zar orri ainbat
zatzakio gustatuta.
Aspaldin ez degu eskritzen
lapitz asko gastatuta.
Bañan ez pentsa orregatikan
zautenikan aztuta.

2

Jakin dedanez zuek bi anai
zautela onak musean.
Ortaraño ezin iritsi ba
Jaunak suerte utsean.
Desafiua jasotzeko ez
egon denbora luzean.
Bere illua prestu daukazute
negurtutzeko biltzean.

3

Gaur egun ez da erreza baino
umorez artu biltza.
Esperanzaren aize gozoak
gure ingurun dabilta.
Alkarrengana biltzeko laister
desi aundiz gabiltza.
Geigo luzatu gabe obe
aurten izango balitza.

4

Eta onekin bukatzen dizut
eskribituzeko lanak.
Oso pozik jarri ditut emen
bururatu zaizkidanak.
Besarkada bat artu zazute
or bizi zeraten danak.
Ongi bizi zaitezte guztiok
agur osaba laztanak.

³²⁵ CU.

KANTURAKO BIOTZA³²⁶

1

Kanturako biotza
nai det xamurtu
ta nere esanaia
bersotan agertu.
Osaba eta lengusu,
danok nai agertu,
nere besarkadarik
jatorrena artu.

2

Egun batez ziñaten
Amerikara abiatu
geroztik amaika aldiz
onek oroitu ditu.
Ta hemen gu giñaden³²⁷
ain triste gelditu
biotzez maite zaitugu
ta ezin zuetaz aztu.

3

Lanik egin gabe or ere
ez du emango lurrak
ez badira oiek lanzen³²⁸
ain dirade zurrak.
Geroztikako egunak
etziran xamurrak
zuen izardia txupatzeko
amaika lapurrak.

4

Zuentzat dauzkate askok
egiñikan zorrak
etzerate izan iñorentzat
etsai gogorrak.
Zuek zabilzaten lurretan
gutxitan oporrek
nolaz au gertatu
izanda gizon jatorrak.

5

Desiatzen ni nago
danon batasuna
etzaigu ortarako
falta naitasuna.
Ori izango litzake
gure alaitasuna.
Opa dizuet biotzez
urte askoz osasuna.

6

Osaba ta lengusuk
illobak badituta
danak uzten zaituet
biotzez agurtuta.
Noiz geraden ikusten
guziok bilduta
nai dezutenian etorri
daude atek zabalduta.

³²⁶ BS. BKn ere agertzen da baina bertan Jose Migelenak direla esaten da.

³²⁷ BKn *Ta emen gu nola giñan*.

³²⁸ *Ibidem lantzen*.

Jose Migel Argiñarena (1948-)

DANOK DITUGU JUN ETORRIAK (1965)³²⁹

1

Danok ditugu jun etorriak,
danok geuron³³⁰ mani ta aldik;
era ontako burutapenik
ez nun izandu oraindik.
Bertso³³¹ batzuek nai nituzke
jarri al bada inñondik³³².
Bein bear eta gure Jainkoak³³³
orain lagunduko al dit.

2

Nunbait³³⁴ xamurtzen asi dira
bertsoaren³³⁵ erasuak;
begiratuta ez dituzte
paradero erosuak.
Bear dan lekura iritsitzea
nere desio³³⁶ osuak.
Ameriketan jardun ditezen
Euskal Herriko bertsuak.

3

Amabost³³⁷ urte badira
zuek aruntza juanik³³⁸.
Orain dala dozenatxo bat³³⁹
zuen bisita azkenik.
Burutapena au izan eza
ez daukat beste penik,
izan ez badut ere ez pentsa
aztuta bizi nintzanik.

4

Nunbait narratsa edo utzia
izango naiz jaiotzez;
orregatikan itz egiteko
nago ija gaur lotsez.
Baso ta mendi, itsas aundik
beresten gaituzte gorputzez.
Bañan sabel bateko anaia³⁴⁰
bixki³⁴¹ batzuek bezala biotzez.

³²⁹ BS. Bertsoon beste bertsio bat dago CUn.

Orri honen bazter batean honakoa dago idatzita: *Ahal dunak ahal duna eta nik ere orixe. Joxe Mikel.*

³³⁰ *Ibidem geran.*

³³¹ *Ibidem Berso.*

³³² *Ibidem al bada jarri inñondik.*

³³³ *Ibidem Bein bear eta Jainkuak.*

³³⁴ *Ibidem Nunbait.*

³³⁵ *Ibidem bertsuaren.*

³³⁶ *Ibidem deseo.*

³³⁷ *Ibidem Amabos.*

³³⁸ *Ibidem joanik.*

³³⁹ *Ibidem Orain dala dozena erdi bat.*

³⁴⁰ *Ibidem anaia.*

³⁴¹ *Ibidem bixki.*

5

Biotzez batuta ez gaudela
ezin asi ukatzen.
Baña biotzaren jundurak
gorputzik ez du gozatzen.
Begien bixten³⁴² eta onduan
anai te danak sentitzen³⁴³,
gure Jainkoari ez diot
beste askorik eskatzen.

6

Mundu ontako pasadizua
motzan gixan luzia³⁴⁴.
Bate uste gutxina dula³⁴⁵
gerta leike desgrazia.
Auxen da betio Jaunari
eskatzen dioten guzija.
Eman daigula³⁴⁶ berriro ere
alkartzeko³⁴⁷ grazija.

7

Zuek noiz etorriko zeraten
hemen zai nor ez da egongo!
Zuek etorri bearko zerate
gu ez gera ta joango.
Parage aldrebesak diranik
ez det nik esango,
bañan gure Herria bezain³⁴⁸
apaiña ez da izango.

8

Aruntza joan ziñaten baño
bertan naigo aukeran;
beti ez degu ibiltzerik
nai degun eran.
Onuntza³⁴⁹ etorri zaituzte
ez da zuentzat galeran.
Ikustearren zuen Herrian
egunsentiak nola diran.

³⁴² Ibidem *Begian bistan.*

³⁴³ Ibidem *anai ta danak sentitzen.*

³⁴⁴ Ibidem *aruntzat izan luzija.*

³⁴⁵ Ibidem *dala.*

³⁴⁶ Ibidem *deigula.*

³⁴⁷ Ibidem *alkartutzeko.*

³⁴⁸ Ibidem *bezin.*

³⁴⁹ Ibidem *onera.*

Martin Oreja (1913-1978)

BERSO BATZUEK JARTZEKO ARTZEN DET³⁵⁰

1

Berso batzuek jartzeko artzen³⁵¹ det
nik orain pensamentua.
Bear bezela oiek jartzeko
eskas daukat talentua.
Badakit ondo³⁵² zeñek dadukan
gauza guzien³⁵³ kontua,
Jaun Zerukoa argi zaidazu
neuri entendimentua.

2

Amerikatik Españiraño
zindun notizik bialdu.
Noizbait ordañak erantzutia³⁵⁴
orrek merezi ez al du.
Zure bersuak pasata daude
ez ditugu iñora saldu.
Alegin dana saia gaitezen
euskera ez dedin galdu.

3

Guraso zarrak erakutsia
iñoz³⁵⁵ aztutzen ez dana,
gaurko egunian oneri eusten

badaukagu naiko lana.
Aintziñetako bizimodua
oso kanbiatu dana,
atrasatutzaz kontatzen dute
gaur munduan euskalduna.

4

Bañan alare euskerazko itzak
zuk ortik³⁵⁶ bialtzian.
Poz aundigorik ez leike sartu
zure famelin³⁵⁷ etxian.
Danak bilduta subaztarrian
berso oiek kantatzian.
Penak aztuta egoiten³⁵⁸ dira
antxen bolada luzian³⁵⁹.

5

Zure ama zarrak agindu ziran
zerbait ordañak jartzeko.
Abildaderik banuan beintzat
oieri kontestatzeke.
Nor naizen orain esango dizut
naikua entenditzeko,
Martin Belarri izentatze[n] naiz
al dena lagundutzeke³⁶⁰.

³⁵⁰ CU. Beste bertsio bat dago BKñ.

³⁵¹ BKñ *arzen*.

³⁵² Ibidem *ongi*.

³⁵³ Ibidem *orien*.

³⁵⁴ Ibidem *Noizbait kontesta erantzutea*.

³⁵⁵ Ibidem *iñoiz*.

³⁵⁶ Ibidem *ortikan*.

³⁵⁷ Ibidem *familin*.

³⁵⁸ Ibidem *egoten*.

³⁵⁹ Ibidem *antxen bolara luzian*.

³⁶⁰ Ibidem *al dana serbitutzeke*.

6

Gutxinetikan nik agindurik
 izango da urtebete.
 Iru [ed]o lau aldiz geroz³⁶¹ esanda
 ez naiz asi orain arte.
 Egin artian emanda³⁶² itzik
 iñola ez nezaken bete.
 Zuen ama zutaz oroituko da
 arnaserik daukan³⁶³ arte.

7

Fameli³⁶⁴ dana akordatzen da
 au da danok dakiguna.
 Bañan prinzipal berexitzen da
 seme-alabanzat ama.
 Agoa bete-betian gozo
 esaten deguna³⁶⁵.
 Otoiz egiñaz beti eskatzen
 zuentzat komeni dana.

8

Ama gaxua ezin lezake
 seme-alabak ordaindu.
 Zer sufritu dun guregatikan
 ezagutuko bagendu.
 Lenbizi egin, gero azi ta
 bizi dan arte lagundu.
 Arrazoietan aundiensuna³⁶⁶
 Martiñek auxe eman du.

9

Bizimodua nola daguan³⁶⁷
 emen nai det adierazi.
 Lana eginda jateko ainbat
 ezin degu irabazi.
 Jaiotakua illarteraño
 nunbait birdala³⁶⁸ bizi.
 Esposatuta fameli³⁶⁹ aundirik
 aseta ezin leike azi.

10

Itz gutxietan entenditzeko
 ora[n] nik naikoa esan.
 Jende pobria gaur Españolan
 zer posturetan gabiltzan.
 Kontzientzi ta karidadia
 projimatasuna juantzan³⁷⁰.
 Amerikara juandako penik
 eundaño etzazula izan.

11

Jesukristoren dotriña zarrak
 gauz au ez digu agintzen.
 Baño aztu zaigu projimuari
 bear alditan laguntzen.
 Gauza alrebes zerbait dakina
 inozentia³⁷¹ txupatzen.
 Bakar-bakarrik Jainkoak daki
 gaur asko nola dabilten³⁷².

³⁶¹ Ibidem *gerozi*.

³⁶² Ibidem *emandako*.

³⁶³ Ibidem *duan*.

³⁶⁴ Ibidem *famili*.

³⁶⁵ Ibidem *Agoz betea bete-betian / gozo esaten deguna*.

³⁶⁶ Ibidem *aundiensuna*.

³⁶⁷ Ibidem *daukagun*.

³⁶⁸ *Birdala*: Behar dala. BKñ *biar da-ta*.

³⁶⁹ BKñ *famili*.

³⁷⁰ Ibidem *il zan*.

³⁷¹ Ibidem *inozenteari*.

³⁷² Ibidem *dabilzen*.

12

Itxura asko egiten degu
iñoiz eleizera juanda.
Gauz ontan asko akordatze[n] naiz
zuk orko martxa esanda.
Santu papera barruan egin
gero andikan irtenda.
Garai bateko onginaia ta
projimatasuna jua da.

13

Oraingo axe ongi entzun zazu
neure amigo laguna.
Zertatik nola egingo dezun
karidarik³⁷³ onena.
Pazientzian bizi leiteke³⁷⁴
osasan ona daukana,
bañan sanuan defensarekin
oso elbarri dagona.

14

Lenago ere au badakizu
zure obrax ala diote.
Guraso zarrak ta senidiak
biotzez dituzula maite.
Izardiakin irabazija
eginaiz ainbeste neke.
Asko dirade emendik juaak
bañan gutxik bialtzen dute.

15

Notizi danak bialdutzeko
propio³⁷⁵ gaude asiak,
nola ordaindu ezin pensatuz
ementxen³⁷⁶ gaude guziak.
Danan partetik bialtzen dazkizut
milla esker da graziak.
Egi-egiaz esaiten dizut
merezi dituzu guziak.

16

Guraso zarrak esaten dute
dotriña erakusteko³⁷⁷.
Gauz auxe beintzat garbi ta klaro
al badet eskribitzeko.
Zuk ejenplua emanda umiak
bide onian jartzeko.
Emengo karguk txintxo bete ta
gero zeruan sartzeko.

17

Au da amazpigarren bersua
bestiarekin azkena.
Ok jarri arte oso kontentu
etzeuden aita ta ama.
Au da biotzez denan³⁷⁸ partetik
deseatze³⁷⁹ dizuguna.
Zuren famelin pakea eta³⁸⁰
urte askoko osasuna.

³⁷³ *Ibidem karidaderik.*

³⁷⁴ *Ibidem diteke.*

³⁷⁵ *Ibidem propijo.*

³⁷⁶ *Ibidem ementxe.*

³⁷⁷ *Ibidem dotriñaz ez aztutzeko.*

³⁷⁸ *Ibidem bijotzez danan.*

³⁷⁹ *Ibidem desitzen.*

³⁸⁰ *Ibidem zure famelin pakia eta.*

Orra emezorzi³⁸¹ berso nik jarri
ez dira oso bikañak.
Ongi esplikatzen ez da posible
gutxi dakien mingañak.
Parkatutzea³⁸² esperantza det
nere emengo utsegiña³⁸³.
Merezi badet nai dezunian
ortik bialdu ordañak.

³⁸¹ Ibidem *emezortzi*.

³⁸² Ibidem *Barkatutzea*.

³⁸³ Ibidem *utseginak*.

Bibliografia

- AGIRREAZALDEGI, Ainhoa. «Lizardi Sariak 25 urte», *Bertsolari*, Donostia, Bertsozale Elkartea, 43, 2001ko udazkena, 116-137 or.
- ALVAREZ, Adriana. *Historia del centro vasco Denak-Bat. Mar del Plata*, Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco, 2002 (Urazandi bilduma, 7).
- AMILIBIA SALGADO, José eta ARBIZU GABIRONDO, Nicolás. *Altsasu-Alsasua*, Lizarrta-Estella, Caja Navarra, 1997.
- ASTILARRA (Juan de Astigarraga). *Historia documental de la guerra en Euzkadi*, Mexiko, d.g.
- AYERRA REDIN, Marino. *No me avergoncé del Evangelio*, Buenos Aires, Periplo, 1959.
- AZCONA PASTOR, José Manuel; MURU RONDA, Fernando eta GARCÍA-ALBI GIL DE BIEDMA, Inés. *Historia de la Inmigración vasca al Uruguay en el siglo XX*, Montevideo, Archivo General de la Nación, 1996.
- CARO BAROJA, Julio. *Los vascos*, Madrid, Altea, 1986.
- DE BLAS, Juan Antonio. «El Mazuco (La defensa imposible)», *La Guerra Civil en Asturias*, Gijón, Ediciones Júcar, 1986.
- FERNÁNDEZ, Renée eta MAYTIA, Danilo. «1949: Brazos vascos para tambos uruguayos», *Euskonews&Media*, Eusko Ikaskuntza, 194.zb., 2003-01-10-17, argitarapen elektronikoa.
- «Gerra askotako beteranoak. Nafarroako oihanetik jaitsi ziren bertsolariak», *Bertsolari*, Donostia, Bertsozale Elkartea, 47, 2002ko udaberria, 68-81 or.
- IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. «Ignacio Argiñarena Otsotorena», *Auñamendi-Bernardo Estornés Lasa fondoa*, Euskomedia fundazioa: www.euskomedia.org.
- IRIGOYEN ARTETXE, Alberto eta ALVAREZ GILA, Oscar. «De la influencia de la diáspora nacionalista en un requeté navarro, o la historia de un bertsolari que le cantaba a sus vacas. Ignacio Arguiñarena (1909-1997)», *Litterae*

- Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, Bilbao, Labayru Ikastegia, 9 zk., 2004, 155-186.
- IRUJO AMEZAGA, Xabier. *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*; Dokto-
retza tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2004, argitara gabea.
- La Alimentación doméstica en Vasconia*, Bilbao, Labayru Ikastegia, 1999.
- «Llegaron a nuestra capital 62 inmigrantes vascos», *Euskal Erria. Revista men-
sual baskongada del Uruguay*, Montevideo, XXXVIII, 963-964 zk., 1950eko
urtarrilla eta otsaila, 39-40 eta 19-26 or.
- LOPEZ SANZ, Francisco. *Navarra en la Cruzada*, Iruñea, Ed. Navarra, 1948.
- [MAYTÍA, Danilo]; «El tambo como alternativa de vida. Entrevista», *La Revis-
ta de los Vascos*, Montevideo, Centro Vasco Haize Hegoa, 5, octubre 1994,
15-19 or.
- Navarra 1936: De la esperanza al terror*, Tafalla, Altaffaylla Kultur Taldea, 1998.
- «P. Diez Ulzurrun... azken Iruñshemea?», *Korrok*, 2, Iruñea, 1984, 17-18 or.
- Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Bilbao, Labayru Ikastegia, 1998.
- Ritos funerarios en Vasconia*, Bilbao, Labayru Ikastegia, 1995.

Material osagarriak

1. IGNAZIO ARGIÑARENAREN AUTOBIOGRAFIA IDATZIA. 1986KO URTARRILAREN 21A¹

Un día 22 de julio de 1909, nací yo y me pusieron el nombre, Ignacio Arguiñarena, hijo de Joan Fermín y Josefa, en el pueblo de Errazquin, Navarra, España. Según cuentan nací grandote y según me crié fuerte. El día 25 de julio, el día Santiago, que hacían fiestas en España, me llevaron a bautizar. El cura que me bautizó, entre las ceremonias cuando me metió sal a la boca, dicen que empecé a llorar a gritos, parece que no me gustó, y dicen que dijo el cura: «Isilik ago arrama aundie», cállate chillón.

Según mis padres fui creciendo bien, sin ningún contratiempo. Mis padres, 4 hermanitos y los abuelos vivíamos en una casa de labranza. Después vino otro hermano, el último, el 13 de agosto de 1913, o sea a los cuatro años. Los otros hermanitos se llamaban, la mayor, María Magdalena, nació en 1899, el 22 de julio, el mismo día que nací [yo]; el segundo, Antonio, nació el 6 de febrero de 1901; la tercera, María Salomé, en 1903², 20 de setiembre, y la cuarta Jesusa, en 1907, el 24 de diciembre. Esa era la familia entera que nos criamos juntos, como dije arriba, en una casa de labranza.

Teníamos un rebaño de ovejas y unas 4 vacas, y criábamos cerdos y unas gallinas. En las *chacaras* plantábamos trigo, maíz, nabos y patatas, alubias junto con los maíces. Y recogíamos para comer todos los días del año alubias con un poco de tocino que carneaba un cerdo grande en el año. El trigo y el maíz molíamos en el molino de piedra. Amasábamos en casa el pan y con la harina de maíz hacíamos las *taboas*, o sea tortas con queso con leche. Es muy rico, porque después de quitar los corderos ordeñábamos las

¹ Iturria: Argiñarena familia, Isla Mala. Ignazio Argiñarenaren paperak. Jatorrizko testua idazmakiniz idatzita dago. Irudiak CDan daude.

² Ez da argi irakurtzen.

ovejas y hacíamos queso muy rico. O sea en aquellos tiempos hambre no pasamos.

Los niños enseguida empiezan a hacer algo. Yo me acuerdo con 9 años ordeñaba las [...] y las cuidaba en la sierra. Así que a la escuela fui poco, y cuando iba o me mandaban, más iba al frontón que a la escuela. Rompíamos alpargatas jugando a la pelota mano pero había que andar con ellas hasta el domingo. Ahí sí. Para ir a misa nuevas alpargatas, pero en toda la semana no había más. Para trabajar nos hacía el padre unas albarcas de cuero y con ellas hasta romper. Así fuimos creciendo, junto con los padres, cada uno haciendo lo que podíamos.

Más o menos cuando tenía 16 años me empezó a gustar una vecinita que se llamaba Elenita. Cuando podía estar un rato con ella era todo mi ilusión. Así pasamos unos 4 años. Pero pasó un malentendido entre nosotros y ya no le quise más nunca, aunque tuve mucha pena tener que dejar que tanto le quería. Y nunca más me olvidé de ella aunque no la vea.

Así que me iba creciendo y cumplí 21 años. Y en ese verano se construyó la red nacional de telefónica de París a Madrid y a Barcelona, por debajo de la tierra. Y le daban trabajo a toda la gente que quería trabajar, y el sueldo era muy bueno para entonces, 8 pesetas en 8 horas. Yo quería ir y mi padre no quería, pero la madre me decía que vaya. Y yo me comprometí con un amigo, el domingo a la tarde que nos íbamos a ir a pedir trabajo. Y lo hicimos, pero mi padre me desafió con amenaza diciendo: «Te vas. Ya, ya volverás, sí.» Así empecé la primera vez a trabajar. Pero a gusto recibía 48 por semana. Entonces no decía que no. Mientras estaba cerca de casa, unos meses y ¹/₂ seguí trabajando.

El último día de trabajo en la telefónica estuvimos trabajando bajo el agua y siguió 3 días temporal, que se crecieron los arroyos, y muchos desprendimientos. Y entre ellos rompió el canal de la Central, y nos fueron a buscar todo el que quería trabajar. Hasta el 21 de diciembre estuvimos arreglando. Unos 35 muchachos teníamos que subir al hombro las bolsas de porlan, eran de 50 kg. Los demás llevaban una cada viaje, y otro que se llamaba Juan y yo llevábamos 2 en cada viaje, sin que nos obligara nadie. Pero alguno tuvo en cuenta. Cuando fuimos a cobrar nos pagaron más sueldo a los dos que a los demás.

Y ahí vienen Navidades. Nochebuena pasamos en casa. Otro amigo, Ignacio, y yo fuimos a San Sebastián para conocer por primera vez. Aquello para nosotros era grande y a los 15 días, o sea, el 8 de enero de 1931, tuve que incorporar al ejército, y me tocó en Santoña. Fuimos juntos de Pamplona los que iban a Santander, y nosotros en un tren militar. Bajamos en la estación de Trectas³ y de allí en una *zartzeta* pasamos en el agua a Santoña. Ya era de noche.

³ Ziur aski, Treto-ko tren geltokiaz ari da, Santoñatik gertuen dagoen geltokia baita, Bilbo eta Santanderren arteko trenbide estuko linean.

Ahí empezamos como nueva vida. Los veteranos nos hacían cualquier burla, en cualquier pared escrito estaba: «Aquí no valen cojones, sino galones». Y al otro día nos dieron la ropa y calzado; vestir y formar para pasar revista, y el que no tenía bien, tenía que llevar al sastre, arreglar y pagar, y el que no tenía dinero le descontaban del real que nos daban por día. Eso era el sueldo.

Problema era para nosotros, los vascos. Muchos de ellos no sabían ni jota en castellano, y ni escribir algunos. Yo sabía muy poco, pero con lo que sabía tenía que hacer interprete. Una vez estábamos en prueba de tiro. Y viene el capitán y le dice: «¡Animal! ¿A dónde estás tirando?». Y me dice a mí: «¿Qué dice?». Y le digo yo lo que él había dicho. Y me contestó: «Si me deja tirar como quiero yo, ya apuntaré». Y me dice el capitán que qué ha dicho. «Si le deja tirar como él quiere que ya haría blanco». Y me dice que tire como quiera pero, y él me dice que dijo, «que tires como quieres». Y él agarró con la zurda y disparó y nos ganó a todos. Y el segundo era yo. Nos dio la entrada para el cine por primera vez vi la película en mi vida. Así fuimos pasando la mili.

Cumplí mis 22 años el día 22 de julio. Después pidieron voluntarios para Pamplona, a mediados de octubre. Ahí sí estábamos más contentos, cerca de casa. Me dieron permiso para un mes a casa primero de noviembre. Volví al mes y nos licenciaron el 20 de diciembre del 31, contentos todos, a trabajar junto con los padres.

Estuve hasta el fin del 33, porque se casaron el hermano, Antonio, y la hermana, Jesusa en junio de 1933. Así que salí a trabajar con mi cuñado Juan que era contratista el dos de enero de 1934. Estaban construyendo una carretera en el pueblo Abinzando. A continuación hicimos el de Lezaun⁴, y pasamos a Alzorritz. Terminar esa y fuimos a Biurrun. Ahí nos tocó trabajo más largo, estuvimos todo el año 35. Pasamos a Estella, pero ahí me enamoré de una muchacha. No fue tan fácil pero al final de cuentas, me casé con ella. Eso en Biurrun. Y después de Estella, me tocó en Azagra. Estando ahí estalló la guerra el 18 de julio del 36 y se suspendieron todos los trabajos, y me fui a mi casa otra vez. En Navarra la cosecha de trigo estaba sin recoger. Como fue la juventud a la guerra, pidieron voluntarios³. Me fui hasta terminar. Estuve allá pero sin sueldo.

Volví a mi casa otra vez y estaba allí, pero en marzo de 1937 llamaron mi quinta. Tuve que ingresar en el ejército español al frente de Vizcaya, empezando de Gernika, Muxika, Bizkargi, monte por monte. Un día rompimos el cinturón de hierro, copamos Bilbao, después Santander. Cerca de Ribadesella en las peñas de Mazurco⁵, me caí herido de una bala explosi-

⁴ Lezaun, Nafarroako herria.

⁵ Mazuco-ko batailaz ari da.

va. Me rompió el codo izquierdo. Me llevaron a Santander, hospital Cántabro, y de allí a Bilbao, hospital Valdecilla⁶, y de allí a Tolosa, al hospital Misericordia, donde me dieron el alta, pero me dejaron, por inútil para la guerra.

Bueno ahí es cuando me casé. Después de esperar de novios por una cosa o por otra, nos casamos el 28 de diciembre, en el 37. Me empecé a ganar la vida en la Renfe, como listero y es donde pasé 12 años. Tuvimos 5 hijos en ese tiempo. Buena cuadrilla para la vida que estaba en aquel tiempo. Ni con el dinero no se encontraban las cosas de comer. Como el tren tenía libre, yo me iba el día que tenía libre hasta Salamanca. De allí traía garbanzos, lentejas y harina y algún pan. Y otro sábado me iba a Cataluña en busca de aceite y azúcar. El día que no me quitaban los milicos ya le daba a los hijos de comer, pero el día que me quitaban me embromaban gastar dinero y sin cosas a casa. De esa manera vivimos en esos 12 años.

Por fin salió una expedición a Uruguay. Nos vinimos con los 5 hijos. El mayor cumplió en el barco los doce años, y el más chiquito 2 cumplidos tenía. Así empecé a trabajar en un tambo, a ordeñar las vacas. Los hijos en el campo empezaron a trabajar enseguida, y a los 6 años éramos propietarios. Nos vendieron para ir pagando. Y así fue. Pagamos ese y compramos otro, para el hijo que se quería casar. Y la hija también con un peón que tenía yo trabajando. Todos luchamos para el montón. Dejando ellos trabajando, fuimos a nuestra patria, no poco contentos, a ver a nuestras madres y hermanos y amigos a los 12 años, en el 62. Y estando en España nos hicieron abuelos, y ese nieto cumplió 23 años el 18 de agosto, y está para casar en el mes que viene, septiembre. Es huérfano del padre, mi segundo hijo, Pedro. Falleció con 35 años en un accidente. Se volcaron en un camión. Él como todos los días cargó la leche al camión y subió en el prestado para alcanzar el ómnibus de línea, para seguir viaje a Montevideo, para reunirse con nosotros en ese día. Pues el destino estaría, el camino que hacía de recorrido todos los días, pues en ese día se volcó, y allí se fue su deceso. Nosotros en Montevideo esperando, y nos llegó esa linda noticia. En mi vida he pasado malos días pero de los peores, creo que era ese. Pero no había más remedio que aceptar. Contra la fuerza mayor no hay resistencia. Quedo la pobre señora, viuda con 32 años, con dos hijos un cazal que hoy son, como digo arriba, el varón con 23 años y la hermana con 21 y siguen con el tambo.

Menos el mayor se casaron todos. El más chiquito, Jesus, eligió estudio, y estaba en el cuarto de arquitectura. Parece que en aquel tiempo los políticos no andaban muy de acuerdo entre ellos. El gobierno, pues este pare-

⁶ Marqués de Valdecilla ospitalea Santanderren dago. Hurrengo orri batean argitzen duenez, Bilboko Basurtuko ospitalera eramán zuten.

ce que tomó parte en la cesdicion, y dio golpe militar, y estos cayeron prisioneros. Otro momento malo de mi vida fue ese. El trabajo nunca me asustó como esas cosas. Por las consecuencias pasamos con el hijo guardado. En 14 años tuvimos que estar. /⁴ También a su novia le tuvieron lo mismo, y que le asesinaron al padre que era cenador de la república, y a tantos. Y el hijo cuando cumplió la pena, todavía le echaron del país como era nacido en España. Pero por fin se cambió el régimen y pudo venir a Uruguay de vuelta, y la novia fue una amnistía al cambiar el gobierno. Liberaron a todos los políticos, y así se casaron y viven en la ciudad.

